




Mondragoni atxikitako kooperatiba izan ordez, hitzarmen bidezko harremana gura du Ulma Taldeak / 4



Malen Osa oñatiarra, erreferentziazko korrikalari, mendi lasterketetan hasi eta hamabost hilabetera / 32

Izar Etxabe Arregi: "Arrasateko Udalaren aitortzak balio izan digu amaren bizitzaz hitz egiteko" / 8



Potx eta Lotxen azken lana, 'Aireportuan', sei kanturekin eta Pernan Goñiren ilustrazio-liburuxkarekin / 35

SINADURAK



"Indarkeria matxista da emakumeen eskubideen urraketa nagusia"

Talde feministek gizonetzko: "Utzi konplize eta erasotzaile izateari"

Salaketa gehienak, 35 eta 50 urte artekoak

93 genero indarkeria kasu 2022an Debagoiengan

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

"Indarkeria instituzionala" salatuko dute talde feministek gaurko elkarretaratzeetan / 2

Genero indarkeria kasuak %62,96 hazi dira urtebetean Debagoiengan

Kale agerraldiak, gaur, herririk herri

Ugaritzen ari dira 18 eta 25 urte artekoen kasuak ere

SKODA KODIAQ

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70

Hemen garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguneko elkarretaratzea, iaz, Arrasateko Seber Altube plazan. GOIENA

Etenik gabe ari da egiten gora indarkeria matxista bailarako herrietan

Urtebete, genero indarkeriari dagokionez, %62,96 kasu gehiago bildu ditu Ertzaintzak, eta 2022an jada gainditu da aurreko urteetako kopurua. Arrasaten jazo dira gehienak; 35 eta 50 urte artekoak dira batez ere. Instituzioek eta feministek aldarriak egin dituzte

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da gaur, eta instituzioek eta zenbait gizarite mugimenduk helburutzat dute jarria indarkeria matxistaren hamaika forma azaleratzea. Emakumeen aurkako bortizkeriak ez baitu etenik. Urteek aurrera egin ahala gero eta gehiago dira larrialdi zerbitzuetan artatzen dituzten kasuak, eta izurriteko lehen urteez geroztik hazten doa kopurua. Are gehiago, bailaran ere goranzko joera berbera da.

Ertzaintzak eman ditu datuak, eta, haren arabera, 93 kasu artatu dituzte genero indarkeriarekin lotuta aurten Debagoiengan, indarkeria matxista osotasunean jasotzen duen daturik ez baitute, Andoni Larrañaga ertzainak jakinarazi duenez.

"Genero indarkeriaren datuak ematen ditugu, bikote harreman batean biktima andrazkoa denean eta erasotzailea gizona". Horrekin batera, etxeko indarkeriaren datuak ere ematen dituzte, eta azaldu du hor eremu horretako bortizkeria sartzen dutela, sexua zein harremana bat edo beste izan.

2022ko urriaren 31ra arteko datuak dira bildutakoak, eta kopuru hori ja "oso adierazgarria" dela nabarmendu du Larrañagak. "Aldi horretan jada gainditu dugu aurreko urteetako daturik txarrena, eta urtea bukatu ere

GENERO INDARKERIA EDO ETXEOA IZAN, HAMAR KASUTATIK ZORTZITAN BIKTIMA ANDRAZKOA DA

ez da egin". Izan ere, genero indarkeriari dagokionez, 88 kasu artatu zituzten iaz, eta 2020an 54 izan ziren. Hau da, urtebeteko epean, %62,96 kasu gehiago hauteman zituen Ertzaintzak.

Goranzko joera

Beraz, uste du goranzko joera argia dela, eta, hain justu, hori diote Eustat Euskal Estatistika Erakundeak bildutako datuek ere. Emakumea biktima den eta erasotzailea bikotekidea edo bikotekide ohia den, familia barrukoa den edo sexu indarkeria gauzatu duena izan den gogoan izanda, 2020an 80 kasu jaso ziren eta 2021ean 136 izan ziren; alegia, 56 gehiago.

Bada, Larrañagak uste du pandemiak eragin zuzena izan duela gorakadan: "Horren ondorio bat da. Batzuetan, lege aldaketaren bat-edo egin daiteke eta

kasuak artatzean aldaketak, baina orain ez da horrelakorik, aldaketa txikiren bat salbu".

Kasuen azterketa

Ertzaintzak berri emandako kasu horietako gehienak Arrasaten erregistratutakoak dira, eta ondoren, Bergaran. Halere, bailarako beste herrietako datuak xehetasunik gabe ematea "hobe" dela azaldu du Larrañagak, herriak txikiak izanik "seinalizazioarako arriskua" egon daitekeelako. Dena den, azpimarratu du genero indarkeria edo etxeko indarkeria izan, jasotako hamar kasuetatik zortzitan andrazkoak direla biktimak.

Haien adinari dagokionez, batez ere 35 eta 50 urte artekoak dira. "Hor abantaila izan daiteke pertsona ja heldua dela, baina desabantaila da umeak tartean egon daitezkeela; horrek asko zailtzen du guztia". Horrez gain, erantsi du gorantz doazela 18-25 urte artekoen kasuak ere. "Gero eta zabalagoa da kopurua adin tarte horretan, eta bortizkeria lantzeko modua ere ezberdina da, biziera ez delako berbera: sare sozialak, eduki pribatuak partekatzeak erraztasunak...".

Kasu horiek guztiak, ordea, jasota gelditzen dira, eta batzuetan, aurrera egiten da urruntze aginduak ere eskatuz. Alabaina, ez da jakinekua zehazki zenbat andrek eskatu duten urruntze agindua genero indarkeriarengatik, baina, Ertzaintzak emandako datuen arabera, ondorioztatu daiteke eskaera gehienak bideratzen direla.

Ordea, Larrañagak azpimarratu du datu horiek "agerikoak" diren arren badaudela "ezkutuan mantenduak, ezezagunak".

Aurka egin beharra

Datu horiek eta errealtate antizak gogoan, beraz, instituzioek bat egin dute indarkeria matxista desagerrarazteko aldarriarekin. Eusko Jaurlaritzako Berritasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, *Zer ez duzu ulertzen? Bai bakarrik baietz* kanpaina abiatu zuen, eta gizonnei zuzendu zaie, "emakumeen

ERTZAINZAK AZALDU DU "AGERIKOAK" DIREN DATUAK EGON ARREN BADAUDELA "EZKUTUKOAK" ERE

hitza errespetatu egin behar dela" gogorarazteko.

Gipuzkoako Diputazioak ere bat egin du kanpaina horrekin, bortizkeria horren aurka "buru-belarri" jarraitzeko konpromisoarekin bat. "Adierazi nahi dugu oraindik ere asko daukagula egiteko. Indarkeria matxista baita emakumeen giza eskubideen urraketa hedatuena, iraunkorra eta gogorra egungo munduan, baita gure gizartearen ere".

Eta baita Eudelek ere. Sei konpromiso proposatu ditu, eta bat *Berdinsarea* indartzea da, "berdintasunaren arloko eta indarkeria matxistaren aurkako ekimenei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutza trukatzeko errazteko" udalerrien sarea.

Feministen aldarria

Euskal Herriko Mugimendu Feministak ere mobilizazioak antolatu ditu, eta gizona zuzendu zaie: "Dagozkizuen ardura hartzeko exijitzen dizuegu. Utzi erasotzaile eta konplize izateari. Azaleko diskurtsoek ez dute balio, praktikan ezer ez bada aldatzen".

Herriz herri egingo dira ekintzak

Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna dela-eta, elkarretaratzeak egingo dituzte herrietan.

- **Antzuola:** Herriko Plazan, 19:30ean.
- **Aramaio:** Bizente Goikoetxea plazan, 18:00etan.
- **Aretxabaleta:** Herriko Plazan, 18:00etan.
- **Arrasate:** Seber Altube plazan, 19:00etan.
- **Bergara:** San Martin Agirre plazan, 19:00etan; eta 20:00etan, Itaiak.
- **Elgeta:** Mendizaleen plazan, 19:00etan.
- **Eskoriatza:** Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.
- **Oñati:** Olakuako urmalean, 12:00etan, Lagun Leku eta Pentsiodunak; eta 20:00etan, Foruen plazan.

EAJ, Mankomunitateko erabakiekin kritiko

Debagoieneko EAJko ordezkariak gogor salatu dute Zerbitzu Orokorretako teknikari lanpostu berrirako "EH Bilduko komisario politiko" bat izendatzeko asmoa. Kontu-hartzaile funtzioa duen teknikaria izango litzateke kargurako hautatua

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Euzko Alderdi Jeltzaleko Debagoieneko alkate eta zinegotzien esanetan, EH Bilduk duen gehien-goia baliatuz -Bergara, Oñati, Elgeta eta Antzuolako udaletan agintzen dute- eta giza baliabideak arrazionalizatzeko aitzakiaz, aukeraketa "nahieran eta nagusikeriaz" egingo luke EH Bilduk: "Hori larria da, baina are larriagoa da betidanik EH Bilduren ordezkari taldearen zeregin politikoa bideratu duen pertsona izendatzea postu horretarako eta, gainera, haren jatorrizko lanpostuari dagokiona baino soldata handiagoarekin", salatu dute aho batez.



Debagoieneko EAJko alkate eta zinegotziak, asteon, Mankomunitatean. H.L.

Zerbitzu Orokorretako teknikari karguak Mankomunitateko giza baliabideen kudeaketan ardurak izateaz gain, egungo hiru zerbitzuetako goi-koordinazioa eramango luke; hau da, Ingurumenekoa, Zerbitzu Orokorretakoa eta Garapen Agentziakoa: "De facto, aurrerantzean erakundearen nondik norakoa zuzentzen duen kargudun izendatu nahi dute, behin betiko izaeraz eta ikuspegi politiko jakin batekoa".

Horregatik, Mankomunitateko finantza teknikari postuan jarraitu beharko luke, EAJko herri ordezkarien ustez.

Gainera, Mankomunitateko langileen artean EH Bilduren erabakiak "ezinegona eta giro nahasia" sortu duela aipatu dute, eta "babesa eta begirunea" adierazi diete aferagatik kaltetuak izaten ari direnei.

Beraz, Mankomunitatearen gidaritzaren daramaten Maite Anton eta Garazi Larreari, Oñatiko eta Antzuolako udaletako zinegotzietan, "nagusikeriaz jokatzeari uzteko" eskatu diete, horrek "etorkizunerako ikusmolde politiko jakin bat" inposatuko lukeela iritzita.

Elikagaiak bilduko dituzte gaur eta bihar supermerkatuetan

Bilketa kanpaina egingo du Gipuzkoako elikagaien bankuak gaur eta bihar, eta oinarrizko elikagaiak zein laguntza bonuak jasoko dituzte Eroski, Super Amara, BM, Dia, Lidl eta Mercadona supermerkatuetan. Era horretan, "behar handiena duten pertsonen laguntza" da asmoa, eta, beraz, bilketan parte hartzea dei egin dute.

Zuberoako ikastolei laguntzeko otarreak jarri dituzte salgai

Zuberoako bi ikastolei laguntzeko, *Ikaskoli* kanpaina abiatu dute, eta hiru otarre eskuratzeko aukera dago www.ikaskoli.eus webgunean. Pettarra, Arbañla eta Basabürüa dira, eta azaroaren 27ra arte egongo da eskuratzeko aukera. Bi ikastoletako gurasoek eta guraso ohiek ekoiztutako produktuez osatuta daude: gazta, ezitia, pastelak...

Zer



duzu ulertu nahi?

Modu askotan esan daiteke EZ, baina modu bakarrean ulertu.

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak
25

Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 ☎
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



Basabürü, Arbañla, Pettarra



araba Álava
Bere jendakia aldarrikatu du



ETORKIZUNA OROKOR
ETORKIZUNA OROKOR



EKINTZAILAZA GARAIA



Garaiaiko ZTIM HUB jardunaldian, hezkuntza arloko ordezkariak batuta. GOIENA

Zientzian emakume ekintzaileen kopurua igotzeko lanean tinko

Garaia Teknologia Parkean ekintzailatza eta ZTIM bokazioak sustatzen jarraitzeko arrazoiak dauzkate

H.L. DEBAGOIENA

Ekosistema ekintzaile eta berri-zailea da PTGaraia, eta, joan den zapatuan Emakume Ekintzaileen Nazioarteko Eguna ospatu zenez gero, gaiari buruzko hausnarketa plazaratu dute bertako arduradunek.

Jakin badakitelako ekintzailatzaren arloan emakumeen papera txikiagoa dela gizonezkoena baino, nahiz eta EAEn kopurua handitzen doan urtetik urtera. "Esan dezakegu Euskadiko emakume ekintzaileen portzentajea -%26- Estatuko erkidegoen artean altuena dela -Madrilen %20an, Galizian %18an eta Estatuan batez bestekoa %17an dago-, Spain StartUp ikerketaren arabera", azaldu dute, eta datuak Europar Bata-sunekoekin alderatuta: "Azpitik goaz".

Izan ere, Global Entrepreneurship Monitor (GEM) ikerketak dio Europa mailan 2019an hamar gizonezko ekintzaileko bederatzi emakumezko ekintzaile zeudela: "Joera hori ez da askorik aldatu azken hiru urteotan". Eustat-en datuen aldean, EAEko pertsona autonomoetatik %34,2 dira emakumeak.

Gehienak hirugarren sektorean 2020an Euskal Autonomia Erkidegoan 47.900 emakume ekintzaile zeuden, emakume langileen %11. Hala, %65ek ez zuten beste langilerik euren kargura. Bestalde, emakume ekintzaileen batez besteko adina 40 urtekoa da, eta gehien azaleratzen diren ikasketak mailak Lehen eta Bi-

garren Hezkuntzakoak dira. Emakumeen artean ekintzaile izateko trabetan nabarmenena "porrotari beldurra" izango litzateke, "gizonezkoen kasuan baino ia %20 handiagoa da eta". Horri lotuta dago emakumeek euren burua "enpresak sortzeko gaitasun baxuagoarekin" sentitzen dutela.

Jarduera motari dagokionez, GEM txostenak dio emakumezkoen presentzia "askoz txikiagoa" dela ekintzailatza teknologikoan eta "nabarmen handiagoa" merkataritza eta ostalaritzan. Arrazoi Eustaten honako datu hauek egon daiteke: 2019-2020ko ikasturtean, Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika ikasketetan (ZTIM) emakumeen presentzia %27,7koa izan zen; Osasun Zientzietan, ordea, %76,8koa; Arte eta Humanitateetan, %62,7koa; eta Gizarte eta Lege Zientzietan, %59,1koa.

Egoera ikusita, Garaia Teknologia Parkeko langileek ekintzailatza eta ZTIM bokazioak sustatzen egiten duten lanean jarraitzeko arrazoiak ikusten dituzte berriz ere. "Zero kilometroko ekosistema honen onurek gizarte osoari eta, bereziki, emakumearen paperari, bultzada ematen lagunduko diote", ondorioztatu dute.

ZTIM IKASKETETAN %27 EMAKUMEZKOAK DIRA, OSASUN ZIENTZIEtan %76 ETA ARTE EDERRETAN %63

Hitzarmena bai, atxikimendua ez

Ulmak gura du korporazioari atxikitako kooperatiba talde izateari laga eta hitzarmen bidezko harremana sortzea. "Berrikuspen handia" litzatekeela dio Mondragonek

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Mondragon korporazioaren eta Ulma Taldearen arteko ezberdintasunak eta ika-mikak agerian geratu dira aste honetan. Auziaren gainean korporazioak kooperatibetara igorritako txostenak Oñatiko kooperatiba taldearen haserrea piztu du. Txosten horren bidez, Mondragoneko Batzorde Iraunkorrek eta Kontseilu Orokorrak gogoetak partekatu dituzte kooperatiba eta bazkideekin, Oronako eta Ulmako organoek irekitako barne prozesuei lotutako "zenbait alderdi argitzeko helburuarekin". Astelehenean kooperatibetara igorritako mezu horretan Mondragonek zioen Oronaren eta Ulmaren aldetik ez dutela "berri zuzenik" izan, "bi kooperatiba taldeek ireki duten prozesuen" gainean. Txostena, egunean bertan, hedabideetan zen -ez modu ofizialean zabaldua, kooperatibetatik filtratuta baizik-, eta Mondragonek, webgunean, *TU-lankide*-n, jarri zuen denen bistara martitzenean.

Informazioa, aurrenekoz

Ulma Taldea Mondragonetik atertzeko bazkideen artean batzarrak egiten hasiko zela hedabideetan zabaldu zenetik, urriaren 28tik, lehenengoz eman du gaiaren berri, modu ofizialean, Ulmak. Hedabideetara igorritako prentsa oharra, eta ez besterik, erabili du horretarako. Ohar hori martitzen arratsaldean zabaldu zuen Ulmak. Bertan taldeak konfirmatzen zuen abenduaren 16an egingo duela korporaziotik irten edo ez erabakitze bozketa, taldeko bederatzi kooperatibetako 2.789 bazkideen artean. Horretarako, taldeko kooperatibek ezohiko batzarra egingo dute, eta, aurretik, lantegiz lantegi, "38 informazio-saio baino gehiago".

Prentsa ohar hori zabaldu baino ordu batzuk lehenago, ordea, kooperatibekin partekatu zuen Ulmak bere haserrea. Mezu hori ere hedabide batzuetara filtratu zen, berehala argitaratu baitzen EITBren agerkari digitalean. Ulmaren aurkako "kanpaina oldarkorra" egitea eta "bazkide guztien borondatea" baldintzatzea leporatzen zion korporazioari Ulmak. "Ez dugu onartuko horrela egitea gure erabakitze ahalmenaren aurka" gehitzen zuen Ulmak barruko mezu hartan.

Harreman berezia

Ulma Taldearen eta Mondragon korporazioaren arteko harremana berezia izan da hasieratik. 1991n, MCC sortzearekin batera, Ulmak erabaki zuen ez izatea talde horretako kide. Urte batzuk geroago, 2012an, sartu zen korporazioan. 2013tik 2014ra bitartean "Mondragoneko organoe-

kiko konfiantza" arazoak izan zituen Ulmak, baina 2015ean berriro ere taldeko organoetan, modu normalean, parte hartze-ko erabakia hartu zuen. 2016an Kursoalean egin zuen kongresua mugarrria izan zen korporazioarentzako. 2013ko Fagor Etxetresnen erorketak sortutako krisiaren ostean, taldeak norabidea zuzendu eta *Etorbizuneko Mondragon* ponentzia onartu zuen orduan. Era berean, Iñigo Uzinek, gaur egungo presidentea, hartu zuen taldea gidatzeko ardura, Javier Sotilen ordez.

'Etorbizuneko Mondragon'

Azkeneko urteotan, ordea, Etorbizuneko Mondragon proiektuaren gaineko funtzionamenduak taldearen espektatibekin bat ez datozela argudiatu du Ulmak. Hori horrela, proposamen bat egin zuten aurtengo ekainean, bai Ulmak eta baita Oronak ere, duela 10 egun egin zen kongresura begira, baina ez zen onartua izan korporazioko organo nagusiaren aldetik, gaur egun Mondragon den horretan "aldaketa sakona" dakarrela argudiatuta. Proposamen horrek, "lan eta hausnarketa prozesu lasaia, sakona eta parte hartzailea" behar-



Ulma Taldearen egoitza nagusia, Oñatin. ULMA TALDEA



Azaroaren 15eko Mondragonen Kongresuaren irudi bat. MONDRAGON KORPORAZIOA

ko luke, korporazioaren esanetan. Ezezko haren ostean erabaki zuen Ulma Taldeak beren kooperatibetan hasia zen bazkideekin.

"Interes gatazkak"

Oraingoan Ulmaren eta korporazioaren arteko desadostasunak eragin dituen arrazoia da, Ulmaren esanetan, korporazioak Laboral Kutxari eman dion protagonismoa. Ulmari ez zaio gustatu Laboral Kutxaren premiei erantzuteko aurtengo kongresuan

aurkeztutako ponentzia talde osoarendako ona dela berez onartzeak, zalantzan jarri barik sor litezkeen "interes gatazkak", eta uste du gai horrek eskatzen zuela alde aurreko "azterketa juridiko independentea". Prozesu hori korporazioak gidatu beharrean Laboral Kutxak gidatu izana eta Laboral Kutxaren proposamena korporazioak bere egin izana ere ez zaio gustatu Ulmari. Horrek sortu du "deserosotasuna" Oñatiko kooperatiba taldean. Hala, Ulmak dio nagusi den ikuspuntua ez dela

"kontsentsuz" osatzen korporazioan, "atxikimenduz" baizik. Eta gogorarazi du iraganean ere kaltetua izan dela "Mondragon efektuagatik" eta "inbertsioengatik".

Ezadostasuna sortu duen beste arrazoi bat da Industria Kontseilua indartzen ari dela korporazioa, alor estrategiko eta operatiboan eragin handiagoa izan dezan. Horrek talka egiten du Ulmaren ideiarekin, non negozio unitate bakoitzaren autonomia oinarritzkoa den, Ulmaren ustez. Bestetik, Ulmak ikusten du 2016ko kongresuko kontsentsuak aldatu egin direla eta korporazioaren ideiak indarra hartu duela, asoziazioaren ideien gainera. Horren guztiaren aurrean, Ulmak dio ez duela beste irtenbiderik "Mondragoneko atxikimenduzko kooperatiba izateari utzi" eta Ulma eta Mon-

MONDRAGONEKIN HITZARMEN BIDEZKO HARREMANA SORTZEA ESKATU GURA DU ULMAK

dragonen arteko "elkarlan eredu berria" bilatzea baino.

Hitzarmen bidezko harremanak

Ulmak, horrenbestez, beste eredu bat proposatzen du: korporazioari atxikitako kooperatiba talde izateari laga eta hitzarmen bidezko harremana sortzea. Modu horretan, kooperatiba bakoitzaren betebeharrak uko egin barik eta izaera kooperatiboari eutsiz, kooperatiba bakoitzari ahalbidetuz korporazioarekin harreman iraunkorrak izatea.

Elkarrizketarako gertu

Korporazioak, berriz, dio arazoari modu eraikitzailean heltzeko modu bakarra dagoela: elkarrizketa. "Elkarrizketarako prest gaude, inolako erreserbarik gabe eta etengabe". Haren ustez, Ulmaren proposamena bere horretan onartzeak ekarriko luke "kongresua eratu zenetik egin den berrikuspenik handiena". Eta amaitu du esanez Kontseilu Orokorreko eta Batzorde Iraunkorreko lehendakariak formalki eskatu dituztela bilerak Ulmako organo sozialekin, baina orain arte ez direla batu.

'Ikastetxe-klik' proiektua abiatuko dute eskoletan

Debagoiena 2030 ekimena da sustatzailea, eta bailarako hamar ikastetxetan jarriko dute martxan. Energia eta ur kontsumoa murriztea izango da ezarritako lehen asmoa, eta, horretarako, neurriak hartuko dituzte; adibidez, energia taldeak osatuko dituzte. Asteon aurkeztu dute ekimena, Aretxabaletan, *Energia garbia eta merkeena, kontsumitzen ez dena!* lelopean. Ibarreko udalek lagunduta abiatu da ekimena.

Eskoletako langileek, gurasoek eta ikasleek energia taldeak osatuko dituzte, eta murrizketak izango dituzte helburu. Nolanahi ere, horretarako, eskola komunitatearen kontzientzian eragin beharko dute.

Ikasturtean, beraz, batez ere, ohitura aldaketak landuko dira, eta urte bukaeran, gainera, lortutako aurrezpenen erdia bueltatuko diete eskolei; hala, energia taldeek erabakiko dute diru hori zertan inbertitu. Debagoieneko hamar eskolak hartuko dute parte ekimenean.

 **Neinor** HOMES

Terraza, jolas eta afari egunak
OSO GERTU DAUDE

Etxebizitza estilo berri bat
iritsi da San Andredera

Terrazak | Haurrentzako jolastokia
Garaje eta trastelekua | Gimnasioa

NEINOR STORE: Maalako Errabala, 33

SAN ANDRES HOMES • ARRASATE



900 11 00 22 • **neinorhomes.com**



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

Kirol-lanbideetan jarduteko legea

Hamaika urte behar izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan 8/2022 Legea onartzeko. Denbora larregi, baina, azkenean, badugu lege bat, non arautzen den jardueraren fisikoa eta kirol arloan profesional gisa jarduteko zeintzuk diren bete beharreko gutxieneko baldintzak; bai hezkuntzan, aisialdian, lehiaketetan, bai eta zuzendaritzan ere.

Ulergaitza da kirol-lanbidearen arlo askotan orain arte zehaztuta ez egotea zein prestakuntza izan behar duen entrenatzaile, monitore edota arduradunak, kontuan izanik gure haur, gazte, heldu eta adindun pertsonekin igarotzen dituzten orduak eta pertsonengan izan ahal duten eragina.

Lau lanbide bereizten ditu legeak: soin hezkuntzako irakaslea, monitorea, entrenatzailea eta zuzendaria.

Erronka garrantzitsua izango da, moldatzeko epe luzea emanda, 2026. urtean indarrean sartuko den legea. Kirol elkarteetan, gimnasioetan, udal kiroldegietan eta abarretan zerbitzu profesionalak kontratatzeko baldibideak jarri beharko dira; eta

hainbat kasutan ez da erraza izango, kirol elkarte batzuentzat aldaketa handia izango da eta.

Formazioa duten profesionalak eskatuko dira, eta, horrela, kalitatea bermatu nahi da, eta formazioa edo zerbitzu egokia eskaini: metodologia egokia, eduki proposak lantzea, hizkuntza zaintzea, genero ikuspegia kontuan hartzea...

Nire lagun batek askotan esan dit: "Balio duena baino gehiago kostatzen da kirola". Baina, kasu askotan, balio duena baino askoz gutxiago ordaintzen dugu eta, horren ondorioz, lanean aritzen diren monitore eta entrenatzaileek gutxi kobratzen dute.

Denbora honetan moldatzen joan beharko dugu, eta jasotzen diren kirol zerbitzuengatik gehiago ordainduz, gehienbat, kirol elkarteetan, gure bizitzako beste arlo askotan ordaintzen dugunaren pare, ea lan-baldintza duinak eskaini ahal diren, proiektuak eramangarri bihurtu eta kalitatekoak izan.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Prekarietatea ere indarkeria da

ITZIAR USANDIZAGA

DUINTASUNA ELKARTEAREN IZENEAN DEBAGOIENA

Azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da.

Izan ere, indarkeria matxistak ertz asko ditu; horietako bat prekarietatea da, baina, emakume nagusien kasuan, prekarietatea egoera zehatz batzuek eraginda etorri da.

Egoera prekarioaren sorreraren atzean arrazoi unibertsalak daude; besteak beste, krisi sistematikoa eta, oro har, krisiak.

Krisi sasoi bakoitzak herritarrentzat atzerapausoa dakar; artean, izan ditugun eskubide batzuk galtzea dakar. Gainera, zenbat eta eskubide gutxiago izan, orduan eta galtzaileago ateratzen da, eta multzo honetan gaude emakumeak.

Gaur egun, emakume nagusi askok bizitzeko baldintza eskasak dituzte. Datuak begiratzea baino ez dago. Pentsio baxuak dituztenak asko dira Euskal Herrian.

Egoera hauek gaztetatik helduarora eta nagusi egin arteko bizitzak sortu dizkie.

Hain zuzen ere, prestigio gutxiko lanak egitea, enplegu prekarioak izatea, soldata kaxkarrak eta abar, eta abar.

Horrenbestez, bidegabekeria handi horrek ordaina eskatzen du: pentsio propioa jasotzea.

Prekarietateak egonezina, antsietatea eta etorkizunarekiko beldurra ere sortzen ditu.

Edozelan ere, prekarietate egoera larri honek borrokan jarraitzeko grina sortu behar digu.

Egoera eraldatzeko kalean jarraituko dugu, irmotasunez ikusarazteko.

Ez diogu interpelatzeari utziko, askotariko eragile, talde eta kolektiboek amankomunean ditugun kezak eta arazoak hartuta konfuziari jo arte; ez dugu etsiko.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE
Leintz bailarako 600 familiaren energia beharrak aseko dituen eguzki parkea jarriko dute Arrasateko Udalaren jabetzakoa den lurretan, Krean parean. Zehatz, 600 etxebizitzaren elektrizitate beharrak aseko ditu. Urtarrilean hasiko dira lanak eta ekainerako martxan egotea da asmoa. Bertan sortzen den energia elektrikoaren onuradun izango dira Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiban izena ematen duten herritarrak. Debagoiena 2030 ekimena da proiektuaren babesleeta bat.

Badabil Ekiola bere bidea egiten. Zein da haren baliorik handiena? Batetik, eredu kooperatiboa dela, 600 bat familia batuko dituen eredu kooperatibo bat; eta, bestetik, erreminta bat ere badela, dauzkagun behar energetikoei erantzuna emateko. Orain, hasiera batean, behar energetiko elektrikoari, baina etorkizunean herritarrek izan ditzaketen beharrei erantzuna emateko gai den eredu kooperatibo bat izango da. Gure ustez, proiektuak baino balio handiagoa du kooperatibaren sorkuntzak berak, aurrerago etor daitezkeen beste erronkei begira badagoelako antolakuntza bat.

Etorkizunean beste erabaki batzuk hartzeko ahalmena izango du, beraz.

Proiektuak kooperatibaren bideragarritasun ekonomiko eta tekniko bermatua du Ekiolak egindako aurrean guztiari esker. Baina hemendik aurrera kooperatiba burujabea da. Hori da duen balio handienetako bat. Esaterako, etorkizunean kooperatibak erabaki dezake aeroterma sistema implementatzea berogailurako, kooperatibako familiek interes duten etxebizitzetan. Horregatik diogu erreminta bat dela, erreminta bizi bat.

Zenbat sortzeko gaitasuna izango du?

Gutxi gorabehera, 600 etxebizitzaren kontsumo elektrikoaren %100 sortzeko gaitasuna izango du. Guretzat

"600 familia batuko dituen eredu kooperatibo bat da Ekiola, burujabea izango den kooperatiba"

HODEI ARZAK KREAN-EKO INGENIARIA ETA EKIOLAKO ZUZENDARIA

600 familiaren beharrak aseko ditu Leintz Bailarako Ekiola eguzki parkeak. Kreanen eta Energiaren Euskal Erakundearen lankidetzaren emaitza da proiektua.



Arzak, Ekiolaren Arrasateko aurkezpenean. GOIENA

hori bai zen marra gorri bat; alegia, kontsumo elektrikoaren %100 sortzearena. Beste eredu batzuetan ez da hori bermatzen eta horrek guretzat garrantzia handia zuen.

Leitz bailarako udalak, Krean, Energiaren Euskal Erakundea, D2030... Erakunde horien babeserak izateak zer ematen dio proiektuari?

Azkenean, inizatiba atzean dauden erakunde eta

kooperatibok esperientzia dugu sektore honetan eta horrek berme bat ematen dio proiektuari. Azterketa juridiko, finantzario, tekniko eta ekonomiko guztiak eginak ditugu. Bideragarritasun analisi guztiak eginak ditugu, eta hori askotan da barrera horrelako komunitate energetikoei lehen pausoak emateko. Guk laguntzen duguna da hasierako barrera guztiak gaintzen, eta, behin bideragarri denean eta proiektua martxan dagoenean, kooperatibak erraz izango du aurrera egitea.

Zein da hemendik jasoko duen onura?

Kontsumo elektrikoaren %100 norbere jabetzakoa den proiektu batek sortuko duela eta, gainera, berriztagarria eta gertuko dela. Horrez gain, sortzen den prezioan ordainduko du erabiltzaileak energia, inoiz ez gehiago. Eta beti izango da merkeagoa. Herritarrak egin behar duen gauza bakarra merkaturatzailea aldatzea izango da, merkaturatzaile propioa sortu baitugu sistema hau dena fakturara aldatzeko. **Zein puntutan dago proiektua? Zuen ustez, noizko jarriko da martxan?**

Orain bertan martxan dago harpidetza kanpaina, eta lehen harpidedunak ekarpenak egiten ari dira. Herritarrak bere informe pertsonalizatua egin dezake ekiola.eus web gunean eta hor txosten

pertsonalizatu bat jasoko du azken hilabetetan izan duen kontsumoarekin, haren kontsumoaren arabera dagozkion panel kopuruarekin eta kooperatibara egin beharreko ekarpen ekonomikoaren zenbatekoarekin. Ekainerako parkea martxan egotea da asmoa. Datorren urte hasieran hasiko gara obrarekin eta bost hilabete iraungo du; beraz, ekainerako martxan egon beharko luke.

Energiaren sorkuntzaren gaia tokia egiten ari da gizartean eta piztu da ereduaren gaineko eztabaida ere. Zein iritzi duzu?

Kontsumitzaile mota desberdinak daude, eta, beraz, hartu behar diren neurriek eta sorkuntza proiektuek ere desberdinak izan behar dute.

Herritarrendako zentzu guztia du komunitate energetikoak sortzeak, baina ezin dugu beste alde batera begiratu, industriak gehiago behar duela jakinda. Hor bi aukera ditugu: orain arte bezala beste alde batera begiratu eta gure beharrak beste toki baten sortzen jarraitzea edo pausoak ematen eta arduraz jokatzen hastea. Eta arduraz jokatzea da ditugun beharren aurrean proiektu desberdinak proposatzea. Noski, beti izan behar dute bideragarri bai ingurumenari dagokionez, bai sozialki, eta ekonomikoki ere bai. Alegia, ez edozein eredutan. Kreanetik proiektu desberdinak planteatu ditugunean beti da inguruko beharrak asetzeko adina, eta inoiz ez gehiago.

"KONTSUMO ELEKTRIKOAREN %100 JABETZAKO DEN PROIEKTU BATEK SORTUKO DU"

"PLANTEATZEN DITUGUN PROIEKTUEK IZAN BEHAR DUTE BIDERAGARRIAK ZENTZU GUZTIETAN"

"Biktima zarenean, beti behar duzu aitortza bat"

IZAR ETXABE ARREGI TRIPLE A TALDEAK ERAIL ZUEN AGURTZANE ARREGIREN ALABA 1978an, Triple A taldeak Agurtzane Arregi Letamendi arrasatearra erail zuen. 44 urte geroago, Memoriaren Egunean, Arrasateko Udalaren aitortza jaso zuten haren senideek

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Amaren eraiketak, minaz eta aitortzaz aritu da GOIENAREkin Izar Etxabe Arregi (Baiona, 1964), Agurtzane Arregiren alaba. **Hunkituta egin zenuen berba Arrasateko aitortza ekitaldian.**

Egunean bertan oso ondo sentitu nintzen. Zailagoak izan ziren aurreko egun eta orduak, gauza asko mugitu zitzaizkidalako. Askotan, negarrez esnatzen nintzen gauetan, eta buruari bueltak ematen hasten nintzen, ekitaldian zer esango ote nuen pentsatzen. Hala ere, esan behar nuena esan nuenean, oso lasai gelditu nintzen, gustura.

Inportantea zen Arrasaten izatea? Noski. Gure ama arrasatearra zen, oso arrasatearra. Ahal zuen guztietan ahizpengana itzultzen zen. Beraz, bai, aitortza Arrasaten izatea oso garrantzitsua zen. Asko poztu nintzen familia osoa eta lagunak ikusteko aukera izan nuelako. Jendeak esan zidan zaila izango zela horien guztien aurrean hitz egitea, baina, egia esan, oso babestuta sentitu nintzen. Oso positiboa izan zen guztia niretzat.

Berandu bada ere, iritsi da aitortza. Nola hartu duzue?

Bazen garaia. Guk beti pentsatu izan dugu gatazka honetan guztiok garelako biktimak edo inor



Izar Etxabe Arregi, Arrasateko udaletxeko arkupeetan. E.A.B.

ez, eta ez zaigu normala iruditzen alde batekoak onartzea eta beste aldekoak ez. Horrek min handia egin izan digu orain arte.

Aitortza funtsezkoa da.

Zalantza barik. Biktima zarenean eta kaltegarria den zerbait egiten dizutenean, beti behar duzu aitortza bat, norbaitek esatea gertatutakoa gaizki egon zela. **Esan daiteke nolabaiteko pisu bat kendu duzula gainetik?**

Bai. Gertatutakoa ez dugu inoiz ahaztuko, ezta barkatuko ere, baina oso urte berezia izan da guretzat, aitortza izan dugulako,

bai Eusko Jaurlaritzatik eta baita Arrasateko Udaletik. Halaber, familiaren jatetxea erre egin zen, dagoeneko ez da ezertxo ere gelditzen, eta hori keinu bat bezala hartu genuen orrialdea pasa eta aurrera egiteko.

Zertarako balio izan digu Arrasateko Udalaren aitortzak?

Bukaera izan da. Jatetxea erre zenean, pentsatzen nuen hura izango zela bukaera, baina gero aitortzarena etorri zen. Zalantzan egon ginen Arrasatera etorri edo ez, berriro zauria zabaltzea zelako. Edozelan ere, ni, behin-

tzat, ohartu naiz behar nuela gauza batzuk esan, oso pozik esan nituela eta askoz hobeto geratu naizela horiek esanda.

Esan zenuen, adibidez, aitortzak balioko dizuela amaren izaeraz gogoratzeko, eta ez haren heriotzaz.

Bai, hala da. Azken batean, gu oso gazteak ginen ama hil zenean. Aitarekin hemezortzi urte gehiago izan genituen eta hari buruz askoz ere gauza gehiago dakizkigu. Horregatik, omenaldi hau aitzakia ona izan da amari buruzko anekdota pila bat jasotzeko eta berriz ere amaren bizitzaz hitz egiteko, haren izaeraz, ez beraren heriotzaz.

Nola gogoratu duzu ama?

Oroitzapen gutxi ditut. Lan asko egiten zuen, beti zegoen lanean. Aukera gutxi izan zituen gaixoak, beti miseria gorrian bizi izan zen: lehenik, Arrasaten; eta gero, Iparraldean. Jatetxe batek orduetegi berezia du, eta gauetan zein asteburuetan ez zen inoiz egoten etxean. Guk asko sumatu izan dugu haren falta, eta zaila izan da guretzat.

Esan duzun moduan, oso gazteak zineten 1978an.

Bai. Ni hiruretan zaharrena nintzen, 13 urterekin. Ahizpak 11 zituen eta anaiak, 9.

Hura ere oso gaztea zen, 38 urte besterik ez baitzuen.

Bai, eta pena handia ematen dit. Hil zutenean hark zuen adina baino 20 urte zaharragoa naiz orain. Nire semeak adin berdintsua du orain eta hura ikusten dudun moduan ikusten dut ama

"AITORTZAK BALIO IZAN DIGU AMAREN BIZITZAZ HITZ EGITEKO, HAREN IZAERAZ, EZ BERAREN HERIOTZAZ"

ere, oso gazte. Bizitza osoa aurretik zeukan eta gauzak geroz eta hobeto zihoazkion, bizitzaz gehiago aprobetxatzeko. Beraz, galera handia izan da guretzat, baina, batez ere, harentzat. Azken finean, guri ama kendu ziguten, baina hari, bizitza.

Aita eta ama. Biak erail gura zituzten. Min ematera joan ziren.

Nahita joan ziren biengana. Aukera izan zuten aita bakarrik harrapatzeko, amari itxaroten egon zelako autoan, baina itxaron egin zuten amak jatetxea itxi eta autoan sartu arte. Gauza bera gertatu zen Iñaki Etxaberekin ere. Zoritxarrez, helburua lortu dute, min handia egin baitigitute.

Nola egin zenioten aurre horri?

Oso gogorra izan zen ama galtzea eta baita ama gabe bizitzen ikastea ere. Haren falta egunero nabaritzen dugu. Eguneroko babesa falta izan zaigu urte hauetan guztietan.

Aitortzaren zati bat iritsi da, baina beste bat falta da.

Espainiaren aldetik ez dut ezer espero. Pentsa, normalean, 50 urte igaro eta gero, dosierak zabaldu egiten dituzte eta gerra zikin horretan gertatutakoak nola gorde pentsatzen ari dira orain. Haiek badute euren *estatu arrazoia* deritzona.

Egian, aitortzan, erreparazioan... aurrera goaz?

Uste dut baietz. Hala ere, beti pentsatu izan dut nire aita guardia zibila izan balitz berehala ekarriko zizkigutela paperak sinatzeko eta biktima gisa onartuko gintuztela segidan. Aldiz, 44 urte itxaron behar izan dugu. Ez gara askorik borrokatu; alde horretatik, ez gara abokatuekin ibili, baina jendeak borrokatu egin behar izan du Estatuak onar zezan egin zieten.

Arrasateko Haurren Kontseiluak abiatu du ikasturtea

Uarkapen egindako lehen saioan, taldeko kideek elkar ezagutu dute eta kontseiluaren funtzionamendua azaldu diete hezitzaileek. Arimazubi, Gazteluondo, Herri Eskola eta Santa Teresa ikastetxeetako Umeen Elkarguneko kide diren 19 haur izango dira Haurren Kontseiluaren parte ikasturte honetan eta berderatzi saio egingo dituzte.

Ikasturte honetarako gaiak eta edukiak, ohiko eran, kontseilukideekin erabaki eta landuko dituzte. "Izan ere, kontseiluaren helburua da haurren partaidetza sustatzea herrian eta beren interesetatik sortzen diren proposamenak garatzea; betiere, Udalarekin harremanetan eta fokua herrian jarrita", azaldu dute Udal Gobernutik.

Maria Ubarretxena alkateak dio funtsezkoa dela haurren ahotsa entzutea eta udal proiektuetan presente izatea.

"Drogen kontsumoei lotutako arriskuak lantzeko" ikastaroa

Nerabe eta gazteekin lan egiten duten langile eta boluntarioei zuzendutako ikastaroa antolatu du Arrasateko Udalak, "drogen kontsumoei lotutako arrisku murrizketak lantzeko". Abenduaren 12an eta 13an egingo dituzte saioak, Kulturateko Biteri gelan, 14:00 17:00etara, eta azaroaren 30era arte eman ahal da izena, Arrasate.eus-en.

Ikastaroaren helburua gazteen artean "jokabide osasuntsuak" sustatzea da, eta, esan moduan, nerabe eta gazteekin lan egiten duten langile eta boluntarioei zuzenduta dago –hezitzaileak, begiraleak, entrenatzaileak eta abar-. "Izan ere, haiek nerabeekin duten harreman eta hurbiltasunak aukera ematen die eguneroko harreman naturalaren bitartez nerabeei informazioa helarazi eta euren artean ohitura osasuntsuak bultzatzeko", azaldu dute Udal Gobernutik.

Indarkeria matxista salatuko dute gaurko elkarretaratzean

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Eguna da gaur, eta, Arrasateko Mugimendu Feministak deituta, elkarretaratzea egingo dute Seber Altube plazan, 19:00etan, *Beldurra eta kontrolaren aurrean justizia feminista* lelopean. Halaber, komunikatua ere irakurriko dute, indarkeria instituzionalean zentratuz (Ikus 2.orria).



Aituna lurrindegian bezero bati txokolate-kakahuete poltsa banatzen. 60 komertziok egin dute ekimenarekin bat. E.A.B.

Herrian kontsumitzearen garrantziaz konturatzeko

'Black Friday'-ri aurre egin eta tokiko merkataritzan kontsumitzeko kontzientzia osoa sustatzeko asmoz, Ibai-arte estabiezimenduak txokolate-kakahuete poltsak banatzen ari dira egunotan, Harreman gobernu kanpoko erakundearekin elkarlanean

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Ibai-arte merkatarien elkarteak hirugarrenez antolatu du *Black Arrasate* ekimena; aurreko bi edizioetan txokolate-tabletak banatu zituzten eta aurten txokolate-kakahuete poltsak banatzen ari dira aste osoan: 3.500 poltsa, zehazki. "Hasiera batean, 3.000 ziren, baina eskaera asko izan ditugu", adierazi du Jon Apraizek, Ibai-arte kideak. Ekimenaren helburua da herritarrek tokiko merkataritzaren aldeko hautua egitea eta bidezko merkataritzaren aldeko kontzientzia piztea.

Tokiko dendetan erosketak egiteak zergak herrian geratzea dakarrela dio Apraizek, eta, horrenbestez, eskualdeko ekonomia indartu eta udalerrian enplegu gehiago sortzen direla. "Erosketa-esperientzia bi aldiz hobea da herriko komertzioetan kontsumituta, ez bakarrik arreta pertsonalizatuagoa izango delako; bi aldeek lortutako onura guztiak etxean geratzen di-

relako ere bai. Gainera, klima-aldaketaren aurka ere egiten da modu horretan, herrian bertan erostea iraunkorragoa baita, karbono-aztarna txikiagoa delako", nabarmendu du.

Bidezko merkataritzaren alde Banatzen ari diren txokolate-kakahuete horiek bidezko merkataritzakoak dira. Izan ere, Ibai-arte Harreman gobernu kanpoko erakundearekin elkarlanean dihardu, bidezko merkataritzan sentsibilizatzeko. Hori dela eta, eskertuta azaldu dira Harremaneko kideak: "Izugarri eskertzen dugu Ibai-arte ematen digun laguntza keinu horren bidez, produktuen jatorria ikusarazten eta hornitzaileari onura justua

IBAI-ARTEKO 60 BAT KOMERTZIOK 3.500 POLTSA BANATUKO DIZKIETE BEZEROEI EGUN HAUTAN

goa eta bidezkoagoa bermatzen laguntzen baitie".

'Black Friday', etsai nagusia

Apraizen esanetan, komertzio txikiek izan dezaketzen "gauzarik okerrera" da *Black Friday*, etsai nagusia: "Justu, gure kontrako norabidean doa, etxetik kontsumitzera bideratzen dituelako herritarrek. Gure apustua, hain justu, bertan erostearen aldekoa da; lasai erosi, eroso erosi, eta kaleak bizirik mantendu".

Kultura, erreminta gisa

Black Friday-ren aurkako bide hori lantzeko kultura ere erabili ohi du Ibai-arte, eta aurten ere hala izango da. Bihar, zapatua, Arrasateko eta Gasteizko big banden jaialdian ere banatuko dituzte poltsak eta, era berean, herritarrei borondatea eskatuko diete, Mugarik Gabeko Musikariak gobernu kanpoko erakundearekin laguntzeko (Kontzertuari buruzko informazioa, 12. orrian).



NIRE USTEZ

AITZOL ILLARRAMENDI

Pitagoras eta euskara

Afaloste batean, AEDko lagunekin berbetan, halaxe bota zuen batek: "Eskeletan ez lukete Pitagoras Teorema erakutsi behar, badaude gauza garrantzitsuagoak". Entzutean jo eta ma geratu nintzen. Ulertzea hainbeste kostatuko hura alferrikakoa ote zen? Hasierako harridura argitzeko, lagun eta lankide artean zabaldu nuen galdera: beharrezkoa al da gaur egun Pitagoras Teorema jakitea? Erantzunak oso muturrekoak izan ziren. Batzuek, ez dela garrantzitsua, ez zutela inoiz erabili. Besteek ezinbestekotzat dute, oinarrizko jakintza delako egunerokoan beraien lanetan darabiltena ulertzeko.

Gakoa non dagoen argi geratu zitzaidan: erabileran. Ibiltzen duenak garrantzia ematen dio, balioa. Besteentzat ikusezina da edo, are okerrago, traban dagoen zerbait. Euskararekin ere berdintsu, ez da hala?

Konturatu behar dugu erabiltzea dela euskararen alde egin dezakegun onena. Erabiltzen dugulako dela garrantzitsua euskara, eta ez alderantziz. Euskaraldia gainean daukagun honetan, gogoratu orain dela hitzez ekiteko garaia.

Jose Luis Etxebarria 'Porru' udaltzainburu ohia hil da

Urte luze -1982tik 2012ra- Arrasateko udaltzainburu izandako Jose Luis Etxebarria *Porru* hil da, 65 urterekin. Aretxabaletarra zen sortzez, baina Arrasaten egin zuen ia bizitza osoa.

1980an sartu zen Udaltzaingoan eta 1982ko ekainaren 6tik 2012ko martxoaren 20ra arte izan zen udaltzainburu. Ondoren, 2012tik 2019ra, babes zibileko teknikari buru izan zen, erretiroa hartu aurretik, eta liztor asiarrari aurre egiteko lanean aritu zen.

Halaber, Mondrako presidentere ere izan zen, eta 1989an hartu zuen kargu hori. Orduko hartan, 800 bazkide zituen klubak eta egoera zaila bizitzen ari zen ekonomikoki.

OHARRAK

Gaztaina erre festa

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak egingo du gaur, Biterin, 17:00etan.

Dantzaldia Kulturolan

Portaloik antolatuta, gaur, 18:30ean, bigarren solairuan, gura duen edonorentzat.

Familien meza etzi

Domekan, 11:00etan, San Juan Bataiatzailea parrokiaren egingo dute, familia katekesia hartzen dutenendako.

Hitzaldia: jostailuak

Itsaso Pagoagak *Nola aukeratu jostailu egokia?* hitzaldia egingo du martitzenean Kulturateko areto nagusian, 18:00etan.



Abenduaren 1ean isiotuko dituzte argiak

Arrasateko Udalak eta Ibai-artek egitarau zabala prestatu dute abendurako. 50 urteotan herriaren alde egindako lanagatik ARTko eta Arrasateko Musikaleko ordezkariak omenduko dituzte; euren ardura izango da herriko kaleak argitzea

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Abenduaren 1ean isiotuko dituzte Gabonetako argiak aurten; Arrasate Musikaleko eta Arrasate Rugby Taldeak izango dute argia pizteko ardura. Maria Ubarretxena alkatea: "Bi elkar-teen 50 urte daramatzate herrian lanean, kulturaren eta kirolaren alde. Nabarmendu behar da, gainera, bi elkar-teen dituztela inklusio taldeak".

Orduak murriztu dituzte

Aurten argiak iaz baino bi ordu gutxiago egongo dira isiotuta egunean zehar: 18:00etatik 20:00etara isiotuko dituzte. "Iaz 600 euroko faktura ordaindu genuen argiterian eta uste dugu aurten faktura txikiagoa izango dela", esan du prentsaurrekoan Maria Ubarretxena alkatea. Berrikuntza izango da ez dutela plazan pinurik jarriko eta auzoetako pinu naturalak apainduko dituztela: Zigarrolan, Munarren, Matzenan, San Andresen...

Elkarlanaren fruitua

Ibai-artek eta Udalak elkarlanean antolatu dute Gabonetako egitaraua. "Iaz, lehenengoz egin genuen lankidetzaz hitzarmena Ibai-arterekin; eta aurten, berriro ere egin dugu. Udalak 20.000 euro bideratu du egitaraua osa-



ARTko, Udaleko, Ibai-arteko eta Arrasate Musikaleko ordezkariak. A.E.G.

tzera", azaldu du alkatea. Ibai-arte merkatarien elkarteko presidente Jon Apraizek azaldu du Txatxilipurdik ere egitarauan parte hartu duela. "Gazte eta umeei zuzendutako egitaraua antolatu dugu, familiei eman diegu garrantzia", gaineratu du Apraizek. Abenduko zubian egingo duten *scape room* saioarekin jaegunetan herrian gertzen direnak saritu nahi dituztela dio. Horrez gain, abenduaren 26tik urtarrilaren 5era ginkana berezi bat egingo dute herriko erakuslehoetan.

Erakuslehoi lehiaketa

Erakuslehoi lehiaketa, berriz, berritasunekin dator: 1.000 euroko saria jasoko du erakuslehoi onenak. Beste hiru sari ere egongo dira: 700, 600 eta 500 eurokoak. Horrez gain, herritarren saria ere egongo da, gazteena eta nagusiena. Erakuslehoi lehiaketan botoa emango duten herritarren artean erosketa-bonuak zozkatuko dituzte: gaztetxoendako 50 euroko bost bonu eta nagusien-dako 120 euroko bost bonu. Den-dariak animatu nahi dituzte lehiaketan parte hartzera.

Egitaraua

Gabonetarako antolatutako ekitaldiak.

ABENDUAK 1

- 17:00-18:30 Jostailu bilketa, Herriko Plazan.
- 18:30 Disko festa familiarra Xaiborrekin, Herriko Plazan.
- 19:00 Argi piztea, Herriko Plazan.

ABENDUAK 2

- 17:00-18:30 Jostailu bilketa, Biteri plazan.

ABENDUAK 3

- 12:00 Jostailu bilketa, Biteri plazan.
- 11:30-14:00 eta 16:30-20:00 Haur eta gaztetxoendako jolasak, Biteri plazan.

ABENDUAK 8, 9, 10

- 9:30-23:30 *Scape room*-a, Biteri plazan.
- 11:30-14:00 eta 16:30-20:00 Haur eta gaztetxoendako jolasak, Biteri plazan.

ABENDUAK 11

- 9:30-21:30 *Scape room*-a, Biteri plazan.

ABENDUAK 16

- 18:00 Tiritirantes Circo Teatroren *Ulterior el viaje*, Biteri plazan.
- 19:00-21:00 Disko festa: *Dantzatzeko prest*, Herriko Plazan.
- 20:00 Gabonetako otzaren banaketa, Herriko Plazan.

ABENDUAK 17

- 11:30-13:30 Jostailu truke merkatua, Biteri plazan.
- 11:30 Ingeleseko antzerkia, Kulturaten.
- 11:30-14:00 eta 16:30-20:00 Haur eta gaztetxoendako jolasak, Biteri plazan.

ABENDUAK 28, 29, 30

- 11:30-14:00 eta 16:30-20:00 Haur eta gaztetxoendako jolasak, Biteri plazan.

Oharra: abenduaren 26tik urtarrilaren 5era ginkana egongo da.



Ohitura osasuntsuekin amaituko dute bibotedunen hilabetea

Mondravember taldeak balorazio oso positiboa egin du: jasotako dirua Derioko CIC bioGUNEra bideratuko dute

A.E.G. ARRASATE

Azaroak orain arte emandakoarekin oso pozik daude Mondravember taldeko kideak. "Oso berezia izan da, zentzu guztietan. Lan polita eta aberasgarria egin dugula uste dut", azaldu du Mon-

dravember taldeko kide Iban Arroiabek.

Astean zehar Garagunen izan dira, Movember mugimendua zer den azaltzen. Esperientzia "oso aberasgarria, hunkigarria eta polita" izan zela azaldu du

Arroiabek. Hilabetea aurrera doa, baina oraindik ez dituzte ekintza guztiak egin. Gaur, esaterako, CIC bioGUNEko ikertzaile Arkaitz Carracedo Aretxabaleto Lanbide Heziketan izango da hitzaldia egiten, 09:00etan.

Aste bukaeran beste bi ekintza izango dituzte: zapatuan, 09:00etan, Zaldibarren elkartuko dira mendi ibilaldia egiteko eta ohitura osasuntsuak hartzeko; eta 13:00etan, familia-argazkia aterako dute Herriko Plazan, "bibotedunekin eta ez-bibotedu-

nekin". Ondoren, bazkaria egingo dute elkarte batean.

Oraindik ez dute zenbatu zenbat diru jaso duten aurtengo ekimenean. Hala ere, oso pozik daude zortzi urteko ibilbideak ematen duen esperientziarekin: "Dagoeneko herriak asko eza-gutzen gaitu. Hasierako ezjakintasunak alde batera utzi ditugu orain arte egin dugun lanarekin". Batutako dirua CIC bioGUNEko ikertzaile Arkaitz Carracedoren taldera bideratuko dute.

Txatxilipurdik hezitzaileak behar ditu Txikilandiarako

Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an egingo duten Txikilandia ekimenean hezitzaile lan egiteko deialdia zabaldu du Txatxilipurdi Elkarteak. Horretarako, curriculumak bidali beharko dira, azaroaren 30a baino lehen, i.garai@txatxilipurdi.eus helbidera. Aipatutako egunetan 10:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara izango dira ekintzak.

Haurtzaroan gorputza trebatu, eta lehiara gero

Arrasate Judo Elkarteak ikasle zaharrenek 12 urte dauzkate. Guztira, 50 bat neska-mutil aritzen dira Musakolako kiroldegian, martitzen eta ostegunetan. Asteburuetan topaketak egin eta nagusienek lehiaketetan hartzen dute esku



Legazpiko topaketako talde argazkia, duela bi aste. ARRASATE JUDO ELKARTEA

Hasier Larrea ARRASATE

Tradizio handiko kluba da Arrasate Judo Elkarteak, 1978an sortu baitzen. Baina, gaur egun, entrenamendu bati erreparatuz gero, borrokalari gehienak 12 urtez azpikoak dira. Elkarteko ordezkari Gaizki Aranegiri gustatuko litzaioke goragoko kategorietan ere ordezkari izatea, baina "konforme" dago, oraingoz, daukaten bloke gaztea mantenduz gero horietatik izango direlako kadete, gazte eta senior mailetako judokak.

Gainera, neska-mutilek maila ona daukate: joan den ikasturtean, Gipuzkoako txapelketako zortzi urrezko domina poltsikoratu zituzten benjamin mailan, eta, aurreko asteburuan, nesken infantil mailako taldekoek haien lehen lehiaketan parte hartu eta brontzea eskuratu zuten.

"Kirol proposena"

Baina jakina da adin horietan gutxienezkoa dela garaikurrak lortzea, kirolaren onurak barneratzea garrantzitsuagoa da eta. Judoa helburu horiek lortzeko egokia dela azaldu du Aranegiri: "Unescok umeendako kirol proposena bezala deskribatzen du borroka arte hau, psikomotrizitatea, autokonfiantza, diziplina eta autokontrola

lantzeko balio baitu. Psikologoek ere gomendatzen dute, ume biziak lasaitzeko eta lasaienak biziagotzeko gaitasuna baitauka".

Hori ez ezik, beste kirol batzuekin guztiz bateragarria dela dio: "Nire seme-alabek igeriketarekin, atletismoarekin eta futbolarekin uztartzen dute judoa".

Neska dezente

Taldeko 50 judoketatik gazteenak Haur Hezkuntzakoak dira, eta gehienak Lehen Hezkuntzakoak. Eskola Kiroltik bideratuta ematen dute izena askok: "Bereziki, neskek". Aranegiren esanetan, beste herri batzuetako klubetan baino neska gehiago daude Arrasatekoan proportzioz, "%60 mutilak eta %40 neskek" baitira: "Hein batean, batek probatu eta gustatzen zaionean haren lagunak datozelako atzetik".

Topaketak ingurukoekin

Astearte eta ostegunetan ikasitako psikomotrizitate-eraketak eta borroka-moldeak asteburuetan jartzen dituzte praktikan, beste herri batzuetako klubekin topaketak eginda: "Asteburu honetan, esaterako, Azkoitikoak eta Legazpikoak etorriko dira gurera; dinamika honi ikasle batzuekin eman genion hasiera, eta mordoxka batzen gara orain".

Santamas torneoak martxan, parte hartze paregabearekin

Harrera beroa izan dute tenis, squash eta padel zaleen artean AKEk antolatutako hiru modalitate horietako txapelketek. Duela bi asteburu hasi ziren Musakolako kiroldegian erraketak astintzen, eta abenduaren 18an jokatuko dira finalak. Guztira, padelean 64 lagunek eman dute izena -32 bikote-; tenisean, 24k; eta squashean, hamarrek.

Errugbi jokalariek atseden hartuko dute asteburu honetan

Arrasate Rugby Taldeko gizonen senior mailako taldeak datorren asteburuan jasoko du etxean Elorrioko Betsaide; denboraldiko lehen garaipena eskuratzen saiatuko dira Julen Barrutiaren mutilak. Eibarrekin batera ari diren emakumezkoak abenduaren 18an itzuliko dira Mojategara: Bilboko Unibertsitarioren aurka lehiatuko dira.

BLACK ARRASATE AZAROAK 25

Gozotu zure erasketak!

Fair Saturday Festival
AZAROAK 26
12:30 HERRIKO PLAZAN

CASTELLIZ BIG BAND + **arrasate musikal**

Establezimenduren bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu deitu 686 73 41 49 telefonora

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

ibai-arte

Estreñadi, argalana, herri komia

Iaz Kulturaten, aurten gaztetxean; beti kalean

Ez Donk Amaitu kolektiboak kontzertu formako topaketa antolatu du bihar gauerako, hilak 26. Punk-rockaren bueltan aritzen diren lau talde igoko dira gaztetxeko oholtzara, 22:00etan hasita: Kañeria 13, Perlata eta Perlitak, 112 eta Pubic Enemy

Hasier Larrea ARRASATE

80ko hamarkadak Arrasaten utzitako arrasto sozial eta kulturala azaleratu zuen iaz Ez Donk Amaitu talde sortu berriak Kulturateko klaustroan, kontzertu batzuk antolatu zituzten gaztetxean eta Biona taberna aldi baterako zabaltzea lortu zuten, iraganeko oroitzapenak gogora ekartzeko.

Taldearen izenak dioen moduan, egitasmoak ez du iraungipen datarik. Aurten bi urtetik behin RIP taldearen eta belaualdi hartatik galdutako lagunen omenezko topaketa egitea tokatzen zitzaien RIPen lagunei, eta Ez Donk Amaituk hartuko du ardura hori. Hala, kontzertua antolatu dute zaturako, rock eta punketik edaten duten lau talde gonbidatuta. Horietatik hiru aski ezagunak dira herrian: Kañeria 13k, azken urteetan publiko aurrean noizbehinka agertu arren, betiko jarrera lotsagabea mantentzen du; Perlatak herriko hamaika tokitan jo izan du, eta kontzerturako kolaborazioen bat prestatu dute la argi uzten dute karteletako tituluan; WC bandaren errautsetatik sortu da 112, eta Danbakan, esaterako, estreinatu dira jada; eta Madrildik dator, azkenik, ginga jartzera, Pubic Enemy.



Ez Donk Amaituko kideak, gaztetxeko sarreran, panel eta karteletan. EZ DONK AMAITU

IAZKO ERAKUSKETAKO PANELAK KALEAN ETA 'ARRASATE.EUS' ATARIAN DAUDE IKUSGAI

Eragileekin elkarlanean

Ez Donk Amaitukoak esker oneko agertu dira gaztetxeko AGAKO asanbladarekin eta parte hartuko duten musika taldeekin, baina baita dendarekin, Udako Tokiko Garapenekoekin

eta bibliotekarekin ere. Azken horiek publiko egin baitute iazko erakusketarako sortutako material guztia *arrasate.eus* atarian.

Bestalde, komertzio arloko eragileen laguntzarekin jarri dituzte ekimen horretarako diseinatutako panelak erdiguneko bost erakuslehotan. Hala, itxi behar izan dituzten negozioak ere "80ko hamarkadako Arrasateren parte" direla ikusaraziko dute, eta "herrian gero eta lokal gehiago itxita" egotearekin lotutako hausnarketa bultzatu.

Big Bandak ere egingo dio aste berezi honi ekarpentxo

Arrasate Musikaleko taldeak Gasteizko Big Bandari erronka botako dio zapatu eguerdian Herriko Plazan

H.L. ARRASATE

Herriko musikari eta kantariak Santa Zezilia omentzen ari dira egunotan; martitzenean abesbatzek egin moduan, kalejiran ibiliko dira gaur arratsaldean zehar banda gaztea eta gaiteroak. Domekan, ostera, San Frantzisko elizan joko du bandak, 12:30ean hasita.

Ordu berean, baina bezperan, eta Black Arrasate egitasmoaren baitan, Arrasate Musikalen Big Banda Herriko Plazan arituko da. Ez edozein modutan, duela antzeko bat egingo baitute Gasteizko Big Bandeko musikariekin. Guztira, 45 lagunek funk, jazz eta swing estiloetako kantua interpretatuko dituzte musika tresnekin: "Gasteizkoak maila handiko musikariak dira, eta gu saiatuko gara euren parean jartzen; bailarako 25 musikari batzea lortu dugu ema-



Big Bandekoak Monterronen. GOIENA

naldirako, eta entseguak oso emankorrak izan dira", azaldu du Arrasateko Big Bandaren zuzendari Zigor Martinezek.

Bi taldeen artean joko bat proposatuko dute, lehendabizi nork bere aldetik eta gero guztiek batera, entzuleen gozamenarako.

Etzi, neska-mutil migratzaileak entzuteko antzerkia

Etzi, hilak 27, *Solo crios* antzezlan ikusteko aukera egongo da Amaia antzokian, 19:30ean hasita. *Antzerkigintza berriak* egitasmotik sortutako ekoizpena da, Arriaga, Victoria Eugenia, Printzipal eta Zanguango antzokiek koprodukzioan sortuan, eta Paco Gamezek eta Miguel Muñozek ondua. Obrak ahotsa ematen die inoren kargura dau-

den adingabe atzeritarrei. Protagonistak euri buruz "albis-teetan, mitin politikoetan eta sare sozialetan" hitz egiten denaz harago joango dira kontaktetan, "dibertzioan, umorean, errealtatean eta askapenean" oinarritutako antzezlan-dokumentua taularatuta. Jatorri askotariko nerabeek bizi izandakoak kontatuko dituzte, antzerkia egitera jolastuz, ezarritako roletatik ihes eginez, "haiek bakarrik, bizitza bat bilatzeko beren grina eta zailtasunekin".

Denen begi-bistan

80ko hamarkadako Arrasateko musika taldeen, albisteen, bitxikerien eta mugarren gaineko informazio grafikoa honako bost komertzio hauetako erakuslehoetan egongo da ikusgai datozen asteetan: Aranzabalen –Iturriotz kalea 15–, Lanas Stopen –Okendo 5–, Koron –Otalora 1–, Zubizarreta Galerian –Zerkaosteta 6– eta Mabelen –Olarre 2–.



Musika taldeei buruzko panelari begira. EZ DONK AMAITU

La Furiaren kontzertua gaur Irati Topalekuan

Gaur gauean, 23:00etan hasita, La Furia rap kantari feministak mezu zuzenez jositako kantuak abestuko ditu Irati Topalekuan. Cascanteko artistak udazken bete-betea darama, Euskal Herriko txoko ugaritan ari baita haren jarrera inkonformista lau haizeetara zabaltzen, eta abenduko Hatortxu Rock jaialdian ere egingo du zuzeneko.

Koolturen abenduko egitaraua Eddi Circa artistak irekiko du

Hiru emanaldi antolatuko ditu Kooltur Ekintzak urteko azken hilabeterako. Datorren egunean, hilak 1, Eddi Circa Madrillgo kantautoreak goxatuko ditu 22:00etan gaztetxera bertaraten direnen zentzumenak. Ahizparekin batera gitarra, pianoa eta ahotsa uztartzen ditu ikuspuntu samur eta kritikoz blai dauden kantuetan.

AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

2019-2023ko agintaldia bukatzeaz dutela, balorazioa eskatu diogu alkateari. Udalean egindako ibilbidea bukatutzat emango du modu honetan Altunak.

Nola baloratzen duzu agintaldia?

Lau urtetik bi pandemiak jan digu, edo, behintzat, asko baldintzatu gaitu. Talde berria martxa hartzen ari zela, 2020ko martxoan dena moztu zitzaigun, eta bi urtean hortxe izan dugu pandemia, gauza bat edo beste; alde horretatik, gogorra izan da, oso gogorra izan da. Pandemia ondoren etorri da dena egiteko gogo, beharra, estresa... Ez da agintaldi normala izan.

Jarritako helburuak bete dira?

Gauza batzuk egin dira eta beste batzuk ez. Beste helburu bat bihurtu da pandemiaren kudeaketa bera, ifrentzu asko sortu duena eta tripako min asko eragin duena. Ekainera arte gauzak borobiltzen jarraitzeko asmoa dugu.

Zertan asmatu duzue?

Ur sistema hobetzen, adibidez. Ur sare oso zabala eta zaharkitua dugu, auzoetatik Udalera pasa zena bere garaian, horrek dakarren zailtasunekin. Uste dut pandemiarekin ere asmatu dugula; oso gogorra izan da, baina asmatu dugu herriko oreka mantentzen, ezjakintasun eta beldur handiarekin. Herrigintza bera ere nahiko ondo berpiztu da pandemiaren ostean. Uste dut Udalak horretan lagundu duela. Komunikazioa ere hobetu dugu; urteetan goaz horrekin lanean, eta asmatu dugu.

Kiroldegiko obra ze puntutan dago?

Kontratua sinatuta eta hastear dago. Kiroldegiak baditu urte batzuk, eta arazoak ematen ari da azkenaldian. Konponketa batzuk egin diren arren, teilatu berria jartzea ezinbestekoa da, eta kanpoko pilotalekua estaliz gero aukera gehiago ematen diegu herritarrei frontoia erabiltzeko. Rokodromoa ere hobetuko dugu lanekin. Beste fase batean ea eraikin publikoetarako autokontsumoa lortzen dugun.

Baso-pisten konponketa nola kudeatu duzue?

Hori ere ondo egin dugu. Orain dela urtebete apurtu ziren pistak; 40 bat, guztira. Lan handia egin du Mendietako zinegotziak eta uste dut pistak nahiko txukun utziko ditugula. Arazoa da ho-

"Pandemiak asko baldintzatu digu azken agintaldia"

LIERNI ALTUNA UGARTE ARAMAIOKO ALKATEA

Pandemiaren eraginez ez dela "agintaldi normala" izan dio; pandemiaren kudeaketan asmatu egin dutela dio, eta herriko ur-sistema eta baso pistak hobetu egin dituztela



Aramaioko alkatea, osoko bilkuren aretoan. A.E.G.

rrelako lanak egiten dituztenak gutxi direla eta lanpetuta egoten direla, gainera. Beste bost-sei konponketa aginduko ditugu eta horrekin bukatutzat emango dugu mendi pistena, aurtengoz. **Ipurtotzeko lur-jausia zen larriena. Ze egoeratan dago?**

Ipurtotzeko geratuko litzateke, bai; kontuz ibili behar dugu, goiko zelaia jaustear dagoela ematen du eta; horregatik debekatu da beheko pistetan ibiltzea. Ura agentziak esan du Ipurtotz azpian presa moduko bat egingo duela, gerta daitekeen lur-jausia geratzeko edo, behintzat, abiadura moteltzeko. Txosten geologikoak beste zerbait eskatzen du. Haiek egingo dute hor geratu diren enborrekin presa; behintzat, zerbait egingo dute. Gantzagan bertan erreka mugituta dago eta jarraipena egingo diote drone bidez. Itxura batera, Gantzagakoak ez du horrenbeste arriskurik.

Nerabeen aisialdian ze urrats egin dituzue?

Euskara eta Hezkuntza batzordetik hausnarketa bat egin zen

"PLAN FORALEAN ESKATZEN DITUGUN DIRULAGUNTZEK BALDINTZATZEN DUTE AURREKONTUA"

eta hortik abiatuta herriko gazte batzuk Tximista elkarte sortu zuten. Txirritola ere tartean dago; ea aurrera egiteko bideak sortzen ditugun. Lehenengo pausoak eman dira, eta ea lortzen dugun pixka bat egonkortzea, denen onerako.

Geratu da proiekturik egiteke?

Besteak beste, aparkalekuen arazoari ez diogu heldu. Hori utzi dugu egiteke. Autokontsumoaren gaia, bestalde, espero dut bideratuta uztea. Kiroldegian jarriko diren plakekin udal eraikinak hornitzea da asmoa.

Azken hilabeteetan zarata handia sortu du eoliko kontuak. Nola baloratzen duzue bilera eta ze iturra hartzen diozue proiektuari?

Hauteskunde urtea da eta komunikabideak gainean ditugu. Aramaioko Udalaren iritziazen bila dabilta, eta uste dugu hori oso tranposoa dela. Udalean erabaki dugu esku artean dugun informazio partekatzea; izan ere, gure artean ere iritzi ezberdinak daude, eta herri moduan iritzi bat garatu nahi dugu. Horretarako eskatu genuen bilera. Kultura etxean berba egin zuten denek kontra egin zuten, baina han zeuden denek ez zuten egin berba. Ez dakit... Uste dut oraindik gauza asko daudela definitzeko. Proiektuari buruzko informazio askorik ez zuten eman. Komunitate energetikoari buruz ere ez zuten ezer sakondu. Uste dut bidea egiten den heinean joango dela definitzen. Beste kontu bat da: zilegi da zortzi eoliko jartzea hor?

2023ko aurrekontuei begira jarrita, zeri emango diozue garrantzia?

Eskatzen ditugun dirulaguntzek asko baldintzatzen dute aurrekontua. Plan Foralean eskatu genituen Barajuen eta Suña berritzeko dirulaguntzak. Eskatu ditugun proiektuetara bideratuko da dirua lehenengo. Eta soberan dagoena batzordeetan banatuko dugu; ez da asko izaten. Egia esan, argindarrean eta gasean igoera handia izan dugu: 30.000 euro gehiago beharko ditugu urtea bukatzeko.

Ezer gehitu nahi duzu?

Zuntz optikoa dela eta kexa dugu. Zabolana dago gizonetako bat teletaguntza gabe. Telefonicak dauka hori egiteko esleipena: kobrea kendu dute, baina ez dute zuntza jarri. Lotsagarria da guzti honen kudeaketa.

Bolada gorabeheratsuari eutsi nahian dabilta herriko merkatariak

Azken urtean gutxienez hiru dendak ateak itxi dituzte eta laugarrena ixtear dago, askotariko arrazoiak tarteko; kontrara, bakarrak zabaldu ditu ateak

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Mugimendua egon da herriko merkataritzan azken urtean. Hainbatek itxi egin dituzte ateak; adibidez, Martin erloju-dendak, Titare Shopek eta, urri amaieran, Anduaga mertzeriak. Hiru horiei batuko zaie Haurrak umeenda-ko arropa-denda; izan ere, urtea bukatzearekin batera agur esango dio jardunari Silvia Alvarezek. Arrazoiak askotarikoak dira: erretiroa hartzea, prezioen igoera, bolada txarrari ezin buelta eman izana eta ilusioa galtzea besteak beste, baina itxitako horiek oraingoz, behintzat, ez dute erreleborik izango.

Beste bi zerbitzutako ugazabak ere erretiratu egin dira, baina haien lekukoa hartu duenik izan da; Errekabarren fruta-denda eta Leibar arrandegia dira bi horiek. Eta azkenik, ateak ireki dituen bakar bat ere badago:

Loramendi kaleko Zariaia fruta-denda. Itxi edo zabaldu, merkatariak bat datoz egoera ez dela "baterre samurra" esatean.

Udalak hainbat laguntza

Merkatari txikiak "bolada gogorra" pasatzen dabilzala jakitun da Udala. Honela dio Ainhoa Cabero zinegotziak: "Argi dago gaur egungo egoera ez dela samurra haientzat. Erosketak egiteko ohiturak eta eskaerak aldatzen joan dira, eta egia da merkatari txiki batek ez duela enpresa handien eskaintzak berdintzeko inongo aukerarik. Pandemiak ere min handia egin du arlo askotan, baina, bereziki, enpresari txikiengan". Horregatik hainbat laguntza bideratu zituen Udalak garai hartan: *Hemen gaz* ekimena, bonuak eta dirulaguntzak ostalariei, besteak beste.

Herriak "bizitza" izan dezan bertako komertzioak eta zerbitzuak oso garrantzitsuak direla gaineratu du: "Tokiko ekonomia motorra dira, eta, horregatik, martxan jarri dira hainbat proposamen bertako kontsumoa sustatzeko".

Merkatarien elkartearekin bi hitzarmen ditu sinatuta Udalak: urteko ekintzak finantzatzeko dirulaguntza jasotzeko eta Aretxarteko dendetan erabiltzeko bonuak finantzatzeko. Horrez gain, Gabonetako kanpaina bere gain hartzen du -bonuak, iragarkia, erakusleho lehiaketa eta neguko azoka-. Eta ekintzailendako laguntzak eta eskualdaketak ere bideratzen ditu. Gainera, enpresa ekimen berriei zuzendutako dirulaguntzak eta negozioren jarraipenerakoak ere baditu eta kontratazio berriei zuzendutakoak ere bai.



Mitarte kalean denda bat itxita eta beste bat zabalik. M.A.

Aretxarte, lanean

Aretxartek herriko merkatari gehienak eta ostalari asko batzen ditu. 2000. urtean sortu zen elkarrekin eta gaur egun 55 kide inguru dira; horietatik, 35 askotariko merkataritzak zerbitzuak eta 20 ostalaritzakoak. Aurten, otsail inguruan, zuzendaritza batzorde aldaketa izan zen eta presidente izendatu zuten Kilo-ka dendako Kris Hernandez *Pitu*. Harekin batera daude Sonia Morales (Gertu), Silvia Alvarez (Haurrak), Nerea Maskariano (Ogiberri) eta boluntario gisa

Igor Eskibel (Orly) eta Nerian Perez (Dagda) eta Nerea Etxeandia (Gemes).

Joan den eguaztenean, bilera egin zuten hainbat gai eztabaidatzeko, eta presidentea pozik agertu zen bukaeran: "Kide asko elkartu gara eta bakoitzak bere iritzia emateko aukera izan du. Ideia berriekin eta laguntzeko gertu dago jendea". Azken sasoi-ko egoera hizpide izan dute udal ordezkariak: "Herria triste ikusten dugula esan genien. Izan ere, pandemia lehenengo, Ukrainako gerraren ondorioak gero...


Gabonetako iragarkia

Aretxartek, Udalaren laguntzarekin, Gabonetako bideo-iragarkia egingo du aurten ere. Kepa Errasti aktoreak eta AZ Gaubelakek izango dute grabaketaren ardura, beste behin, eta herritarrei eta eragileei dei egin diete domekan, azaroaren 27an, Herriko Plazako eskaileretan ager daitezen -elegante jantzita-, 18:30ean, bideo horren zati bat grabatzeko. "Herria dantzan jarri gura dugu komertzio txikiaren alde. Ahalik eta jende gehien agertzea gurako genuke, jai giroa erakusteko".

"Otsailetik hona beherakada handia igarri dut"

SILVIA ALVAREZ
HAURRAK DENDA

2021eko otsailean egin zen Haurrak ume dendaren kargu eta, bi urte bete aurretik, urte amaieran itxi egingo du. **Zergatik erabaki duzu ixtea?** Ukrainako gerra hasi zenetik izugarriko beherakada igarri dut, otsail ingurutik; ez dakit jendea aurrezten hasi den... Aurrera egiteko inbertsioetan sartu beharko nuke, eta ez dut asmorik, ziurgabetasun egoera hau dela eta.



M.A.


Zaila izan da aurrera egitea?

Zabaldu nuenean, herria perimetralki itxita zegoen, eta orduan, oso ondo hasi nintzen. Baina, urtebete geroago, erabat aldatu da egoera eta uste dut okerrera egingo duela. **Jendearen ohiturak aldatu egin dira?** Bai. Internet bidez erositateko produktuak jasotzeko *pack* puntu bat da nire denda eta ikusi dut izugarri erosten dela.

"Pozik hartu gaituzte auzoko bizilagunek"

YOUSSEF TAJ
ZARIAIA FRUTA-DENDA

Santa Kurtz fruta-dendaren ardura duten Marokoko anaiek uztailen bigarren denda zabaldu zuten Loramendi kalean. **Zelako harrera egin dizuete bizilagunek?** Oso jende jatorra dago eta pozik hartu gaituzte. Herria txikia izatera, bazuten gure berri, eta lehenengo egunetik etorri zaizkigu. **Pandemia osteko egoerak ez zintuzten beldurtu?**



M.A.

Egia esan, herritarrek jatekoan aurretik baino gehiago gastatu dutela esango nuke.

Eta Ukrainako gerraren ondorioak igarri duzue?

Bai; prezioek gora egin dute. Horrek bezeroari zer pentsatua eman dio, baina ez dugu igarri beherakada handirik. Gure lana ondo egiten ahalegintzen gara: zerbitzu ona eskaintzen, garbi izaten guztia eta preziorik ahalik eta onenak izaten; gainerakoa ez dago gure eskuetan.



Aretxarte merkatarien elkarteko hainbat kide, eguazteneko bilerara sartzeaz. MIRARI ALTUBE

Kate bat izan da eta horrek itxie-
ra batzuk ekarri ditu, baina gehiago ere izan daitezke".

Laguntzei dagokionez, Udala-
rekin pozik agertu da, "beti en-
tzun" dituztela iritzita. Jaurla-
ritzaren kasuan, balorazioa

gazi-goza da: "Bonuen kanpai-
nak oso ondo daude, baina eli-
kagaien sektoreak ez du inolako
laguntzarik urte osoan".

Gabonak ate-joka daude, eta,
merkatarien elkarteak hainbat
ekintza antolatuko ditu, urtero

legez: "Bolada gogorra pasatzen
ari gara, prezioak gora eta gora
doaz, gastu asko daude eta lan
handia egin behar da aurrera
egiteko. Baina Gabonak oso onak
izatea gurako genuke eta datorren
urteari indartsu ekin".

"Fernandoren aholkuei kasu eginda nire ukitua eman diot arrandegiari"

AITZIBER GAUNA AREDER ARRANDEGIA

Leibar izatetik Aredet izatera pasatu zen Mitarte kaleko arrandegia urtaril hasieran, hain zuzen ere, Aitziber Gauna bergararrak Fernando Leibarren lekukoa hartu zuenean.

Nolatan animatu zinen?

Amak arrandegia dauka Bergaran eta hamar bat urte egin ditut harekin. Fernandoren erretiroaren berri izan nuenean, saltoa emateko unea iritsi zitzaidala pentsatuta jarri nintzen harekin harremanetan. Hark ez zuen edonoren eskuetan utzi gura, bezeroak zaindu gura zituen, eta



KOLDO ZUBIA

esperientzia nuela jakiteak lagundu egin zuen.

Zelako harrera egin dizute aretxabaletarrek?

Ona, oso pozik nago; uste dut haiek ere gustura daudela. Ni,

behintzat, saiatzen naiz jenero ona ekartzen eta prezio onean.

Aholkurik eman dizu Fernandok?

Bai, noski; luzaroan egon da gainean. Bezeroen gustuak jakinarazi dizkit eta hornitzaileen berri eman ere bai. Haren aholkuei kasu eginda nire ukitua eman diot arrandegiari.

Hamaika hilabetean gorabehera asko izan dira; igarri duzu?

Bai; ontziak ezin itsasoratu egon dira, garraiolariak gelditu ere bai, baina, batez ere, igarri duguna da azken boladako zergen igoera, argindarrarena eta gasolioarena. Arrainaren prezioak beti izan ditu gorabeherak, baina ez da askorik igo; horren inguruko guztia, oster, bai, eta horrek eragin handia dauka.

Elkarretaratzea eta sinadura bilketa gaur, feministek deituta

Udalak bat egin du horrekin eta indarkeria matxista bistaratzeko egindako ekitaldiei bukaera emango diete

M.A. ARETXABALETA

Elkarretaratzea deitu du Aretxabaletako Mugimendu Feministak azaroaren 25erako; 18:00etan izango da, Herriko Plazan, eta *Instituzioek ere emakumeok kolpatzen gaituzte* leloaren bueltan elkartuko dira. Aurretik, 17:00etan, migratzaileen erregularizazioaren aldeko sinadura bilketa egingo dute.

Adierazpen instituzionala

Udalak adierazpen instituzionala adostu du, eta hor jaso gaitzesten dituela emakumeen aurkako

indarkeria, eraso eta jarrera sexista guztiak. Era berean, konpromisoa hartu du horrelako indarkeriarik gabeko jendarte baterantz lanean jarraitzeko: "Politika publikoen eta administrazioen betebeharrak baita emakumeekiko indarkeriaren aurkako mekanismoak eta estrategiak abian jartzea". Gaitz hau pairatzen duten edo pairatu izan duten emakumei elkartasuna adierazi die eta zera gogorarazi du: "Gutako bakoitzari dagokigu egoera hau aldatzea, eguneroko zereginetatik hasiz".

GORA ETA BEHERA



Kaxak espaloian Lausitta inguruan



Lausitta kaleko bizilagun bat kexu agertu da sarritan agertzen direlako fruta-kaxak espaloian alboan: "Ez dakit nork uzten dituen eta zergatik, baina inork ez ditu jasotzen. Botatzeko baldin badira, edukiontzira eramanez ditzala".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



RPS: 83/19



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Ahots zorrotza eta organoa batera bihar

Zapatuan, Jose Luis Franzesena organo-jotzailearen eta Mariatxen Urkia sopranoaren organo kontzertua izango da Aretxabaletako parrokiaren, 20:00etan. Interesdun guztientzat irekita izango dira ateak, entzungai izango diren piezez gozatzeko

Imanol Beloki ARETXABALETAKO

Jose Luis Franzesena organo-jotzailearen eta Mariatxen Urkia sopranoaren emanaldia izango da zapatu honetan Aretxabaletako parrokiaren. Saioa 20:00etan hasiko da eta ikus-entzuleentzako pantaila jarriko dute aldarean, berezitasun moduan, protagonistek egiten dutena xehetasun guztiekin jarraitu dezaten emandaldi osoan.

Organoa mantentzeko asmoz

Sopranoaren ahots erregistro altuak eta organoaren soinuak uztartutako emanaldia izango da entzungai zapatu iluntzeko hitzorduan. Elizetako organoak aktibo mantentzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen laguntzaren esker antolatutako saioa da, eta urtero Gipuzkoako herri batean egiten den saioa aurten Aretxabaletan izango da. "Emanaldi hau iaz Idiazabalen izan zen, duela bi urte Loiolan eta aurten Aretxabaletan antolatu dugu. Organoak mantentzeko helburua du egitasmoak; daukagun altxor hori ez galtzeko asmoz", adierazi du Mariatxen Urkia sopranoak.

Erraz entzuteko emanaldia

Musika gustuko duen edozeinentzat zuzendutako emanaldia izango dela adierazi dute Aretxabaletako parrokiako aldare gainera igoko diren musikariek. Hala ere, jendea erakartzea ez dela erraza izaten gaineratu du Urkiak: "Organoarekin soilik zenbait pieza izango dira entzungai, eta, ondoren, beste zenbait pieza abestuko ditut organoak lagunduta. Erreperitorioari dagokionez, abestuko titudan kantuek ezagunak dira; organoarenak izango diren pieza instrumentalak, berriz, ez hain ezagunak. Hala ere, erraz entzuteko kontzertua izango da", adierazi du Mariatxen Urkia sopranoak. Gaineratu du



Mariatxen Urkia sopranoa, aste honetan, entseatzen. MIRARI ALTUBE

PANTAILA BAT JARRIKO DUTE ALDAREAN, SAIOA ATSEGINAGOA EGITEKO

aurten berritasuna izango dutela Aretxabaletako parrokiaren emanaldian. "Pantaila bat jarriko dugu aldarean, publikoak ikusi dezan koruan gertatzen dena; organoa nola jotzen den, nik nola kantatzen dudana... Entzuteko soilik emandaldi zaila da mota honetako kontzertua, eta, era honetan, pantailarekin, ikusgarriagoa izango da, atseginagoa. Organoa oso instrumentu bitxia da: hantekin jotzen da, bi teklaturekin, erregistroak... Mereziko du emandaldira etortzea".

Urte asko elkarlanean

Jose Luis Franzesena organo-jotzaileak eta Mariatxen Urkia sopranoak ia urtero antolatzen duten emanaldia da organo kontzertua, eta hitzordu hau antolatzen hasi aurretiko garaia ekarri ditu gogora Mariatxen Urkiak: "ikas-

le moduan kontserbatorioan nengoela ikasketak egiten, Jose Luis ere organo ikasketak egiten ari zen. Ikasgai batzuk batera egiten genituen, gainera. Jose Luis, Julian Barrenetxea, Azpeitiko abesbatzako eta bandako zuzendaria zen, eta, hortik abiatuz, abesbatzetan, zarzuelak... proiektu batzuk elkarrekin hasi ginen. Hori horrela, urte asko dira elkarrekin lanean ari garela".

Organoaren berezitasunak

Euskal Herrian Cavaille-Coll organo garrantzitsuak daude: Donostiako Santa Maria, San Vicente, Azkoitiko, Loiolakoa... Aretxabaletakoa, berriz, ez da Cavaille-Coll organoa, baina Cavaille-Collen ikasle baten organoa da. "Prince da organoaren egilea, eta haren organoa izango balitz moduan sinatu zuen bakarra da. Oso berezia dela diote, eta, instrumentu txikia izan arren, aukera asko ditu askotariko soinuak ateratzeko...".

Horrez gain, Leizarra musika eskolako ikasleek eta Aretxabaletako abesbatzako kideek abenduaren 30ean kontzertua izango dutela aurreratu du Urkiak.

Itsaso Pagoagaren hitzaldia astelehenean Kuku Mikun

Olgetako Itsaso Pagoagaren eskutik Aretxabaletan eta Arrasaten izango dira hitzaldiak, hurrenez hurren. Aurrenekoa azaroaren 28an izango da, 18:00etan, Kukumiku elkartearen egoitzan. Bigarren hitzaldia, aldiz, azaroaren 29an izango da, Arrasateko Kulturateko areto nagusian, ordu berean. Sarrerak doan izango dira.

Aretxabaletako hitzaldia Kukumiku elkarteak antolatu du eta elkartearen egoitzan izango da. Hain zuzen ere, 0 eta 10 urte arteko haurren garapen etapak eta jolas beharrak zeintzuk diren azalduko du Itsaso Pagoagak. Jarraian, jolaserako materialak erosteko orduan kontuan hartu beharreko irizpideak komentatu ditu, eta, amaitzeko, jostailuen eta generoaren arteko harremanaren gaineko azalpen batzuk emango ditu, besteak beste.

Hitez ekiteko garaian, proposamen ugari prestatu dituzte

Aretxabaletako Euskaraldia Batzordea zenbait ekintza egiten ari da ariketa soziala hasi zenetik. Hori horrela, honako hauek dira egunotarako proposatu dituzten ekintzak: gaur, egubakoitza, 16:30ean, mural margotzea egiteko batuko dira, Gernika plazan. Domekan, berriz, *Sorginak eta sorginkeriak* kontzertua izango da, Zariaia

aretoan, 19:00etan, eta, bertan, Toti Martinez de Lezea idazlearen testuak Gorra Hermosak akordeoiarekin konposatutako musikarekin musikatuko dituzte, Edurne Zabaloren klarinete-doinuekin batera. Saio horrek ordu bete pasa iraugo du eta sarrera bost euro da.

Datorren astean, berriz, martitzenean, hilaren 29an, *Mikrotik...* bakarrizketa umoretsua izango da, 18:00etan, Zariaia aretoan, Garazi San Martin antzezlearen eskutik.

Egunotako zinema: 'DC Supermaskoten liga' eta 'El vasco'

Egunotan zinemaz gozatzeko bi proposamen izango dira Arkupen: batetik, zapatuan, *DC Supermaskoten liga* filma proiektatuko dute, 17:00etan, eta sarrera hiru euro ordaindu behar da; bestetik, gaur -22:00-, bihar -19:30- eta etzi -16:00-, *El vasco* filma proiektatuko dute; gaur eta bihar bost eurotan eta astelehenean hiru eurotan.

Elkartasun festa Lapurdiko Ametza ikastolaren alde

Arizmendi ikastolak Ametza ikastolaren aldeko elkartasun festa antolatu du gaurko, egubakoitza. *Herriak berotuko du Ametza* izenpean, gaztaina erreen salmenta eta ikasleek sortutako hostoen salmenta egingo dute. Aretxabaletan, Durana kalean izango da, 17:30ean; eta Eskoriatzan, berriz, 17:30ean, Fernando Eskoriatza plazan.

Agirresaroberen ipuin kontaketa eguaztenean

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalari usurbildarrak *Udazkeneko zopa* izeneko ipuinaren kontaketa egingo du azaroaren 30ean, eguaztenean, arratsaldeko seietan, haur liburutegiko txiki txokoan. 5 eta 8 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako kontaketa izango da eta, gutxi gorabehera, ordu bete inguru iraugo du saioak.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO



Dorleta auzoko haur parkean jolas berriak jarri dituzte. IMANOL BELOKI

Diskriminaziorik eza eta irisgarritasuna oinarri

Hasi dituzte Dorleta auzoko haur parke berriko lanak. Bertan jarriko dituzten jolasak herriko ikastetxeetako haurren ekarpenekin osatuko dituzte, eta, aurreikuspenen arabera, Gabonetarako amaituta izango dira egin beharreko lan guztiak

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Joan den astean hasi ziren Eskoriatzako Dorleta auzoko haur parke berria egiten. Zortzi aste iraungo dute lanek, eta, aurreikuspenen arabera, Gabonetarako amaituta izango dituzte bertako jolasak, haurren gozamenarako. Herriko haurren ekarpenarekin ahalik eta parke inklusiboenaren aldeko apustua egin dute, aniztasun funtzionala duten erabiltzaileentzako egokitua izango dena.

Haurrekin elkarlanean

Hiru proposamen aurkeztu ziren eta aukeraketa egiteko partaidetza prozesua jarri zen martxan, herriko ikastetxeekin elkarlanean. Hori horrela, aurkeztutako proposamenetako bat izan zen hautatutakoa, baina moldaketak egin zizkioten, Eskoriatzako ikastetxeetako haurrei galdetuta. Hala, haien ekarpenak kontuan hartuta ezarriko dituzte bertan, zenbait jolas. "Dorletako parke berria egiteko, urte

hasieran parte-hartze prozesu bat jarri genuen martxan herriko bi ikastetxeetako haurren ideia eta ekarpenak jasotzeko. Proposamenetako bat aukeratu eta, zenbait aldaketa eginda, martxan jarri genuen", adierazi du Josu Ezkurdiak, Udaleko Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

Haur-parke berria egiten aurreikusitako baina geroago hasi arren, bizpahiru aste barru amaituko dutelakoan daudela adierazi du Ezkurdiak; eguraldiak laguntzen badu. "Administrazio publikoko kontuak direla-eta apur bat berandu aritu gara lizitazioarekin, baina lehiaketa irabazi zuen enpresak irailean sinatu zuen kontratua eta azaroan lanekin

AURREIKUSPENEN ARABERA, GABONEN AURRETIK AMAITUKO DITUZTE HAUR PARKEKO LANAK

hasi gara. Aurreikusten dugu Gabonen aurretik amaituta izatea egin beharreko guztia. Edozelan ere, segurtasun-zorua jartzea geratzen da, eta horretarako eguraldi sikua behar dugu...".

Aniztasun funtzionala ardatz

Zarauzko Jolas enpresa izan da hautatua haur parkea egiteko, eta bertan ezarriko dituzten jolasek irisgarritasun inklusiboko ezaugarriak dituzte. Haur parkea egiteko aurrekontua 117.575,7 eurokoa da, BEZa barne, eta, berezitasun gisa, "2021eko TMA 851 aginduaren arabera, espazio publiko urbanizatuetera iristeko eta horiek erabiltzeko oinarriko irisgarritasun-baldintzei eta diskriminaziorik ezari buruzko dokumentu teknikoa garatzen duen lehenengo parkea da Euskal Autonomia Erkidegoan", adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Udaleko Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.



Iaz, ludotekan jarri zuten euskarazko jostailuak ezagutu eta probatzeko txokoa. I.B.

Euskarazko jolasak ezagutzeko eta probatzeko aukera

Aurten, Fernando Eskoriatza plazan jarri duten karpan izango da euskarazko jostailuen erakusketa

I.B. ESKORIATZA

Azaroaren 29tik abenduaren 1era bitartean, 17:30etik 19:30era, euskarazko jostailuen erakusketa izango da Fernando Eskoriatza plazako karpan. Jostailu erakusketa euskaraz eskaintzen diren mahai-jolas eta jostailuak batzen dituen erakusketa da, batez ere, baina badira oreka, azkartasun eta bestelako ezaugarriak ere badituztenak; hitz egitea behar ez dutenak, alegia. 2 urtetik hasi eta adin guztietara zuzendutako jostailu eta mahai jolasak daude eta urtero merkaturatzen diren jostailu

berriez ere hornitzen da erakusketa. Gainera, jolas kooperatiboak ere izango dira, eta, hori horrela, hiru eguneko hitzordua aprobetxatu nahi da euskara, sormena eta harremanak sustatzeko erakusketara bertaratzen direnen artean.

Erakusketa, plazako karpan

Aurten, Fernando Eskoriatza plazan jarrita dagoen karpak aprobetxatuko dute erakusketa egiteko. Eta bertaratzen diren haurrek eta helduek jostailuak ikusteko eta probatzeko aukera izango dute.

Herriko gazteak hausnartzeko batuko dira zapatuan

Eskoriatzako gazteek deituta, bilera irekia izango da zapatuan, 11:00etan, Fernando Eskoriatza plazan. *Jarraitxu deigun danon artien ereindako hazixa eraiten!* izenburupean, hausnarketarako tartea hartuko dute herriko gazteek. Aurtengo San Pedro jaiak antolatzeko indar eta gogo handia erakutsita, jarraipena eman nahi diote egitasmoari eta Eskoriatzako gazte mugimendu bat sortu nahi dute. Horrela, jaietan Txosna Batzordearen antolakuntza gain, urte osoan jarraipena izango duen ekintza-sorta antolatu nahi dute. Horrekin batera, herriko gazteen inguruan hausnartzeko espazioa sortu...

'Alzheimerrarekin elkar-bizi' hitzaldia hilaren 29an

Datorren martitzenean, Olazar Erretiratuen Elkarteak antolatuta eta Afagiren eskutik, alzheimerra edo beste demenztzia batzuk dituzten familia, lagun eta pertsonen Gipuzkoako elkarteko bi kidek hitzaldia egingo dute, 18:30ean, kultura etxean.

Iñaki Olalde Afagiko idazkariak eta Koldo Aulestia lehendakariak hartuko dute hitza, eta saioa irekia izango da. "Iaz ere antolatu genuen eta harreara oso ona izan genuen. Gainera, gure ahotan berba dagoen gaia da, eta, beraz, saioa errepikatzea erabaki dugu", adierazi dute Olazar Erretiratuen Elkarteko kideek.

Elkarlana eta ekintzak egiteko eskaera egin dute

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren baitan, Eskoriatzako mugimendu feminista taldeetako kideek Berdintasun teknikari baten beharra dagoela adierazi zieten udalbatzako kideei, eta elkarlanerako bidea zabaltzeko eskatu zuten

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Azaroko ohiko osoko bilkura izan zen martitzenean, eta, tratatutako gaien artean, gaurko eguna izan zuten berba: azaroren 25a, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna. EH Bilduk herriko talde feministekin adostutako proposamena eraman zuen batzarra eta EAJk, berriz, Eudelek egiten duen proposamena. Horrekin batera, osoko bilkuran zenbait herritar batu ziren eta zenbait eskaera egin zizkieten udalbatzako kideei, indarkeria matxistaren kontra egiteko bidean urrats batzuk egiteko asmoz.



Martitzenean osoko bilkuren aretoan batutakoak. IMANOL BELOKI

Ekintza zuzenen alde

Eskoriatzako EH Bilduk aurkeztutako adierazpen instituzional proposamena jarri zuten mahai gainean lehenbizi, eta Dorleta Sologaitoa EH Bilduko zinegotziak honako hau adierazi zuen: "Herriko talde feministekin kontrajarri dugu Eudelek adierazitakoa; herriko errealtatera gerturatzeko lanketa bat egin eta testu bat osatu dugu. Hala, urtean zehar aurrera eramateko ekintza zuzen batzuk atera ditugu ondorio gisa. Horrekin batera, gai hauek guztiak gizarate batzordean lantzen dira, eta gai hauek urtean zehar lantzen dituen herritar talde batek edo ordezkariaren batek batzordean parte hartzeko eskaera egin dugu".

Eudelen proposamena

EAJko bozeramaile Josu Ezkurdiak Sologaitoari erantzun zion. "Gai honetan denok batu behar dugu eta proposamen guztiak ondo etorriak dira", adierazi zuen. Hala, ezetza bozkatu beharrean, abstenitu egin ziren. Gero, Eudelek proposatutako adierazpen instituzionala jarri zuen mahai gainean EAJk. "Planteamenduak bateragarriak dira. Batean abstenitu gara eta biga-

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO EGUNA IZAN DUTE HIZPIDE OSOKO BILKURAN

rrenean, Eudelek proposatutakoan, guk aurkeztutakoaren alde egin dugu. Kasu honetan, Euskadi mailan dagoen batasuna argi adierazten duelako", adierazi zuen Josu Ezkurdiak.

Elkarlana eskatu

Ondoren, osoko bilkuren aretoan izan ziren herriko mugimendu feministako kideek hartu zuten hitza, eta SAP (Gurasoen Alienazioaren Sindromea) gaia landu dutela adierazi zieten udalbatzako kideei. Honako hau esan zuten: "SAPen ondorioz, ama horiek seme-alabengandik banatzen dituzte, eta haien zaintza tratatu txarrak ematen dituzten aitei eman. Instituzioek ere kolpatzen gaituzte, eta hori bistarazi nahi izan dugu, badaudelako kasu larriak. Gurekin jarri ziren harremanetan kasu hori sufritzen duten zenbait

pertsona, eta guk, mugimendu feminista eta herritar moduan, gizarteratu behar den gaia dela uste dugu. Udalak pauso batzuk eman behar ditu; izan ere, genero ikuspegitik gabezia bat dago, eta eskatzen dugu azaroren 25ean edo martxoaren 8an pankarta baten aurrean jartzearekin eta manifestu bat aurkeztearekin bakarrik ez goazela inora. Beraz, urtean zehar pauso batzuk ematea eskatzen dugu. Udalean Berdintasun teknikari bat jartzea, Udaleko langile guztiak formatuko dituen herrira begira berdintasun dinamikak sortu eta antolatzeke... Eta, horrekin batera, urtean zehar elkarrekin lan egin nahi dugu, orain arteko hutsune larriak berriro errepika ez daitezen", adierazi zuen Lore Diaz de Gereñu herritarrek.

Horren harira, Eskoriatzako alkateak, Joserra Zubizarretak, udaletxean sarrera ofiziala egin ote duten galdetu zien bertarutakoei, eta edozein eskara dela ere hori dela modua adierazi zuen. Hala ez bada, sarrera egin eta dagokion batzordean aztertuko dela azpimarratu zuen.

'Evaren alabak', indarkeria matxistari buruzko antzezlan

Errealitate gordina bistartzeko helburua duen saioa domekan izango da, Zaldibar antzokian, doan

I.B. ESKORIATZA

Antzezlanaz azaroren 27an Zaldibar antzokian eskainiko dute, eta bi saio egongo dira: lehenengo 18:00etan eta bigarrena 19:00etan. Antzezlanaz euskaraz izango da, eta sarrera doan da. Antolatzaileek adierazi dutenez, 12 urtetik gorakoentzat zuzendutako ikuskizuna da.

"Antzezlanaz gordina da, tamalez, errealitatea ere hala delako. Indarkeria matxistaren biktimetikiko errespetuz aritu nahi da, baina ikusleengan harridura sortuz. Hiru egoera islatuko

dira, hiru belaunalditak. Esperientzia honen bidez, zenbait gertaerari eta gaur egun gizaratean guztiz normalizatuta dauden egoerei garrantzia eman eta ikustarazteko aukera eta tartea eskaini nahi da. Antzezlanaz hiru esketxetan banatzen da, eta ikusleak esketx batetik bestera ibilbide bat eginez joango da".

Plazak mugatuak direnez, aurrez izena ematea komeni da; hain zuzen ere, H@ZI-ren bitartez edo 943 71 44 07 edo 943 71 46 88 telefono zenbakietara deituta.

GORA ETA BEHERA



Zubiko lanen iraupena, luze

Hauxe dio herritar batek: "Zazpi asteko epearekin, urri bukaeran amaituta egon beharko lukeen obrak itxura hori du aste honetan, lanak hasi eta hamabigarren astera".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).



Lau lurraldetako ardoak eta pintxo goxoak bihar

Urteroko hitzorduari eutsiz, Atxorrotx Kultura Elkarteak ardo dastatzea antolatu du zapatu honetarako. 18:30ean hasita, Fernando Eskoriatza plazan askotariko ardoak probatzeko aukera izango da, eta baita mokadutxo goxo bat jateko ere

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Ardoen dastaketaren errituan bost zentzumenak jartzen dira dantzan, baina Atxorrotx Kultura Elkarteak zapatu honetarako antolatu duen ardo dastatzean ez dira aritutako profesionalen tankeran ardoa nola probatu behar den irakasten. Izan ere, ikasteko onena dastatzea da; eta ardorik onena, berriz, bakoitzari gustatzen zaiona.

Hori horrela, hainbat ardo mota probatzeko aukera izango dute eskoriatzarrek, Fernando Eskoriatza plazan, herriko txistulariek girotuta, 18:30ean hasiko den egunerako prestatutako ardo dastatzean. Plazan jarrita dagoen karpa barruan zenbait gunetan banatutako postuak izango dira, eta bertan ardo onduak, ardo beltzak, zuriak eta cavak izango dira; eta horiek, Euskal Herrikoak, katalanak, galiziarrek eta Gaztelakoak. Gainera, edariari laguntzeko, urtero moduan, pintxo goxoak prestatuko dituzte: odolki-pintxoak eta Pates Zubiaren eskutik foie-pintxoak; guztira, 500 inguru.

Funtzionamendua eta prezioa

Kopa bat ardo hartzeko edo pintxo bat jateko tiket bidezko funtzionamendua izango da. Hau

da, tiketa erosi beharko da lehenengo, eta gero, edatekoa edo jatekoa eskatu. Hori horrela, ardo bakoitzak 1,5 euroko prezioa izango du, eta pintxoaren tiket bakoitzaren prezioa euro batekoa izango da. Pintxoari dagokionez, odolki-pintxoagatik tiket bat eskatuko da eta foie-pintxoagatik, berriz, bi tiket.

Ohiko formatuan eta aterpean

Bi urtez formatu txikiak egin da ardo dastatzea Eskoriatzan eta aurtengo edizioan ohiko formatura bueltatuko da ekintza.

"Funtzionatzen duen egitasmoa da ardo dastatzea. Adin askotariko herritarrek batzen dira bertan eta herria aktibatzen balio du ekintza honek; hala, urteroko ekintza puntual hau mantentzeko helburuarekin berriro antolatzea erabaki dugu. Aurten ez du bat egiten Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun egunarekin; hala ere, karpa dago plazan jarrita eta aterpea izango dute bertaratzen diren herritarrek", adierazi dute Atxorrotx Kultura Elkarteak kideek.



Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako ardo dastatze bat. IMANOL SORIANO

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikuskizun berriarekin gaur

Ikuskizun berriaren estreinaldirako sarrera guztiak agortuta daudela adierazi dute antolatzaileek

I.B. ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, *Urteak bete, abenturak bizi!* ikuskizun berriarekin izango dira Katxiporretako pailazoak Eskoriatzan. Pirritx, Porrotx, Marimotots eta eurekin batera oholtzara igoko

diren gainontzeko kideak Manuel Muñoz kiroldegian izango dira 17:30ean saioa eskaintzen, eta astelehena ezker sarrerak agortuta daude.

Eskoriatzako Udalak antolatutako saiorako 600 sarrera jarri

zituzten salgai, hasiera batean, ikuskizuna bi emanalditan banatuta, formatu txikiagoan egiteko asmoz. Hala ere, egun bakarrean saldu zituztenez guztiak, edukiera 1.000 pertsonara handitu, eta geratzen ziren sarrera guztiak saldu daude.

Pailazo taldeak 35 urte betetzen ditu, eta, hain zuzen, horren ospakizuna izango da saioa. Kantua, dantza eta Manuel Muñoz kiroldegian batuko direnen parte-hartzea ez da faltako, ezta tarta erraldoia ere...

LEINTZ GATZAGA | 19

EUSKARALDIA



Gatz Bidean dagoen enbor hutsa, mezuarekin. IMANOL SORIANO

Gaztainondo-enbor huts bat euskarazko mezuz beteko dute

Domeka honetan Gatz Museo inguruan egingo duten ekitaldian, hitzez ekiteko garaia dela adieraziko dute

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako Euskaraldia Batzordeak ez zuen egin irekierra jairik Euskaraldiaren hirugarren edizioari hasiera emateko. Hala ere, batzordeko kideak elkartu eta ariketa sozialak irauten duen bitartean zenbait ekintza egitea aurreikusten du.

Leintz Gatzagako erregistroari erreparatu, 89 pertsona ari dira parte hartzen Euskaraldian; momentuz, 65 *ahobizi* eta 24 *belarriprest*. Horrekin batera, euskaraz aritzeko aukera une oro bermatzen duten zazpi arigune daude herrian. "Egunotan Euskaraldiaren giroan sartzea dugu helburu herrian. Hori horrela, azaroaren 6an, Gatz Bideetik etorritako aretxabaletarrei eta eskoriatzarrei ongietorria egin ondoren, argazki bateratua atera genuen eta *Hustu ganbara* bigarren eskuko azokarekin borobildu eguna. Orain, Euska-

raldia martxan dela, gaztainondo-enborra Euskaraldiaren lekuko izendatuko dugu", adierazi du Jon Zuazabeitiak, Leintz Gatzagako Euskaraldia Batzordeko kideak.

Euskarazko mezua enborrean

Domeka honetan, azaroaren 27an, eguerdian, enbor eder bat ipiniko dute gatzagarrek Gatz Bidearen hasieran, Gatz Museo inguruan. "Ihartutakoa eta barrua hutsik duena izan arren, gaztainondo-enbor zaharrak bizi-bizi gogoraraziko dio hitzez ekiteko garaia dela Gatz Bidea egiten duen pertsona orori. Izan ere, anporrari mezu bat gehituko diogu euskararen gainean. Horretarako, herritarrek Labidea herriko denda-tabernako arbelean proposatutako esaldien artean idatzitakoan artean bat aukeratuko dugu", adierazi du Zuazabeitiak.

Bailarako elkarretaratzeetan parte hartzeko asmoa

Gaur, azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna da, eta Leintz Gatzagan ez dute elkarretaratzerik egingo udalerekin aurrean. Izan ere, asteon elkartu dira Sorginak Emakume Taldeko kideak, eta bailarako herrietako mobilizazioetara batuko direla erabaki dute.

Martitzenean batu zirenek urtean zehar zenbait ekintza anto-

latzeko asmoa agertu zuten, eta, hori horrela, datorren martitzenean hasiko dira ekintzekin. "Egun bakarrean elkarretaratzea egin barik, astero batzeko erabakia hartu dugu, posible dugun heinean, eta datorren astean izango dugu lehen hitzordua. Oraindik egutegia zehaztu barik, eskulanak, sukaldaritza tailerra... egitea da asmoa. Astez aste ekintzen proposamenak erabakitzen joango gara", adierazi du Sorginak Emakume Taldeko Garazi Orobengoa herritarrek.



Bi langile Zubieta kaleko errepidean lanean, eguazten arratsaldean, eskola zaharretik gertu. ENEKO AZKARATE

Gabonetarako berrituta egongo da Zubieta kalea

Zubieta eta Masterreka kaleak berritzeko lanak "aurreikusi moduan" doaz. Helburua da Zubietako bigarren fasea Gabonetarako amaitzea eta aste horietan ardatza trafikora zabaltzea; Masterrekan urtarrilaren 9an hasiko dira lanak, bizilagunekin batzartu ostean

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Agintaldiko obra esanguratsuen izaten ari den Zubieta eta Masterreka kaleak berriro urbanizatzeko lanak martxa onean doaz. "Aurreikusitakoaren arabera", Udal Gobernuak adierazi duenez, Gogora ekarri behar da Bergaran aspaldian egin den hirigintza obrarik handiena dela Zubieta eta Masterreka

ardatza berritzeko asmoz abiatutakoa; aspaldian bertan interbentzio aipagarriak egiteke, zaharkituta geratu zen ardatz osoa berritzeko lanetan dihardute. Eta inbertsio zein eragin aldetik proiektu handia izatera, gogora ekarri behar da hiru fasetan ari direla gauzatzen; lehen fasean, Zubieta kaleko zubitik Infernukuako bideguru-

rutzerainoko tartea berrituzuten, 2022ko urtarril erdialdetik uztail erdialdera bitartean.

Bigarren fasea, Gabonetarako Bigarren fasean dihardute orain lanean buru-belarri, Zubietako zubitik eskola zaharrrerainoko tartean: "Une honetan Zubietako bigarren fasea lantzen ari dira, eta Gabonak baino lehen amaitzea

espero da. Beste lan batzuk egin behar dira kale bereko 2. eta 4. zenbakien atarrietako aurreko zatietan, eta, beraz, aldi berean egingo dira. Atzo, azaroak 24, hasi ziren, eta aurreikusten da hiru astean amaitzea. Lan horiek gauzatu bitartean, oinezkoen bidea moztuta egongo da". Hori bai, Udal Gobernutik aurreratu dutenez eta azken orduko arazorik ez badago, behintzat, Gabonetan zehar trafikora zabalik egongo da urtarrilaren 17a ezkerreko itxita egon den Zubieta kaleko errepide zatia; betiere, asfaltatu egin behar dute lehendabizi, eta, giroa aldekoa bada, asfaltatu ostean irekiko dute.

Masterreka, urtarrilaren 9an

Hirugarren fasean Masterreka kalea berrituko dute: "Masterreka kaleko obren prestaketa lanak ere datozen egunetan egingo dira, baina erabaki da urtarrilaren 9ra arte kale honetako obrekin ez hastea. Obrak eten egingo dira Gabonetako asteetan, herritarrek ez ditzaten jasan obraren beraren eta ibilgailuen trafikoa ezinbestean egin beharko diren aldaketak".

Obrak hasi aurretik, aurreko bi faseekin egin moduan, bilera informatiboa deituko du Udal Gobernuak Masterreka kaleko bizilagunekin: "Udalak abenduan bilera informatiboa egingo du aurreikusten du, lanek inguruko biztanleengan eta haien mugikortasunean izango duten eragina azaltzeko, eta baita sor daitezkeen zalantza edo galdera guztiei erantzuteko ere". Masterreka kalea itxita egoteak ibilgailuen trafikoa eragingo dituen aldaketaren berri, beraz, aurrerago emango du Udal Gobernuak; betiere, bizilagunen iritziak eta ekarpenak jaso ostean.

"Apustu handia" Udalarentzat

Obra hasi aurretik Bergarako alkate Gorka Artolak adierazi duenez, "apustu handia" izan da Udalarentzat hura abiatzea: "Azken urte askotako inbertsiorik indartsuena izango da; lehen aldiz urte bat baino gehiagoko aurrekontua baldintzatuko du proiektuak. Izan ere, hiru urterako aurrekontua konprometituko du. Oso apustu inportantea egin dugu". Proiektuaren aurrekontu osoa 2.350.000 euro ingurukoa da eta exekuzio epea 18 hilabetekoa; hau da, fase bakoitza gauzatzeko seina hilabete inguru zehaztu zituzten eta, gorabeherak gorabehera, aurreikusitako epeetan gauzatu dira lehen bi faseak.

Bi noranzkoko, ezinbestean

Obraren helburu nagusia da ardatz osoan irisgarritasuna hobetzea, eta, horretarako, besteak beste, espaloien zabalera metro eta erdikoa izatea lortu nahi dute, kale osoan muga tekniko handiak egonda ere. Errepide berria zaharra baino nabarmen estuagoa izango da ardatz osoan, baina errepideak bi noranzkoko izan beharko du etorkizunean ere, Deba bailara Elosuarekin eta Azkoitiarekin lotzen dituen errepidea ere bade-lako, besteak beste. Horrez gain, ardatz osoan espaloien zabalera metro eta erdikoa izan dadin bermatzeko aparkaleku batzuk galdu egingo dira.

HIRUGARREN FASEKO MASTERREKAKO LANAK URTARRILAREN 9AN HASTEA AURREIKUSTEN DUTE

A25

EMAKUMEENGA NAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Parte hartu antolatutako ekintzetan!

INDARKERIA
MATXISTARI EZI!



BERGARA
izan, bizi, ekin



Begarako
Udala



BERGARAKO
HERRIAREN
KONTSEILA



BERRIAK



INDARKERIA
MATXISTARI
EZI!



EAJko Angel Murgiondo, Maite Agirre eta Iruñe Galarraga, Zubiaurren, eguaztenean. J.B.



Udal Gobernuako Ainhoa Lete, Gorka Artola eta Ekaitz Aranberri, udaletxean, atzo. B.U.

2022rako konpromisoak eztabaida iturri, 2023rako negoziazioen atarian

2022rako aurrekontuetan Udal Gobernuarekin adostutako konpromisoak bete ez direla salatzen EAJren agerraldiari erantzun dio EH Bilduk, oso bestelako irakurketa eginda; 2023rako aurrekontuetarako negoziazioak giro nahasiarekin hasiko dituzte

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2022ko aurrekontuetarako EH Bilduren Udal Gobernuak eta EAJk adostutako konpromisoak eztabaida politikoa eragin dute asteon. Eguaztenerako prentsa agerraldia deitu zuen EAJk, konpromisoak bete ez direla salatzen, eta Udal Gobernuak ohar bidez erantzun zien jeltzaleei konpromiso bakoitza ze puntutan dagoen esateko. Konpromisoak bete ez izana behar moduan arazoitu ez dietela iritzita, EAJk uste du EH Bilduren "kudeaketarako eta proiektuak gauzatzeko gaitasunik eza" dela arrazoia. "EH Bilduk ez ditu konpromisoak bete. Urtea amaitzean dago eta gehienak ez dira ezta martxan jarri ere", uste du jeltzaleen bozeramaile Maite Agirrek.

Adierazpen horien harira, "hainbat gauza" argitu nahi izan ditu EH Bilduk: "Ezezagutzak edo beste zerbaitek eraginda, emandako informazioan zuzenak ez diren hainbat gauza aipatzen dira. Bergararrek merezi dute udal ordezkarien aldetik informazio zuzena jasotzea; halaber, ordezkari instituzionalei dagokie herritarrek seriotasunez trata-

tzea eta ez okerrak diren informazioak zabaltzea".

Jaiotza-tasa eta hileta zibilak

Lehen konpromisoak udal eskumenen barruan jaiotza-tasa igotzeko azterketa bat egitea zuen aurreikusita. "Ez da egin eta ez da egingo, Eusko Jaurlaritzak atara duen berriaren ondoren", dio EAJk. EH Bilduk bestelako irakurketa egin du: "Bi taldeek urriaren 5ean egindako bileran ez egitea adostu zuten".

Hileta zibilak egiteko "espazio propio duina" egokitzeko lanke eta ez dela egin dio EAJk, baina EH Bildu ez da iritzi berekoa: "Eraikina egokitzeko diru partida maiatzeko bilkuratik pasatzen, eta 100.000 euro gehitu ziren. 185.000 euro gorde dira hori egiteko, Laboratorium ondoko antzinako zalditegian. Ordenantza berria ere lantzen ari da".

EAJ: "2022RAKO ADOSTUTAKOAK EZ DIRA GAUZATU; BERAZ, EH BILDUK EZ DU HITZA BETE"

Jolastokiak eta etxez etxekoa

Umeendako jolastoki estalietan dagokienez, EAJk dio ez dela gaia lantzeko lantalderik sortu, eta, beraz, ez direla horretarako 100.000 euro bideratu. Udal Gobernuak, berriz, azaldu du azaroaren 15ean egindako Lurralde batzordean esleitu zela proiektua eta lantaldea sortzea adostu zela bizilagunekin gaia lantzeko; gaineratu dute hurrengo bilkuran landuko dela kreditu aldaketa bat 100.000 euro bideratzeko.

Ume eta gazteek jasandako sexu abusuei aurre egiteko ekimenak martxan jartzeko 7.000 euro bideratzeko konpromisoa ere aipatu du EAJk, eta gaineratu Udal Gobernuak diola ez dela bere eskumenekoa eta ez dela egingo. EH Bilduk bere irakurketa egin du: "Sailen artean, elkarlanean heldu zaio gaiari. Hainbat proposamen aztertu ostean, hezkuntza mahaiari azaroaren 28an gaia lantzeko proposamena egingo zaio; proposamen honek ikastetxeetan trebakuntza emateko aukera barnebiltzen du, eta, aldi berean, hezkuntza komunitatea sentibilizatzen hastea ekarriko du".

Hirugarren adinera bideratutako etxez etxeko zerbitzua gauze ere eskaintzeko konpromisoari dagokionez, EAJk ulertu zuen egin beharreko azterketa egoki ikusiz gero proba pilotu bat martxan jarriko zela, 2023an zerbitzua martxan jartzeko. "Ez da egin", diote. EH Bilduren Udal Gobernuak ez du hala ikusten: "Zerbitzua martxan dagoen beste udal batzuetan informazioa eskatu da; lanketa hasita dago, hortaz".

Kartera-mapa eta lur-jausia

Kartera-mapa garatzeko baliabideak doitzeari dagokionez, oposizioko talde nagusiak dio Udal Gobernuak ez duela informazioirik eman; Gobernuak dio Gizarte Zerbitzuetako karteraren garapenaren lanketa Mankomunitatearen esku dagoela eta hori, aldi berean, Foru Aldundiak egiteko konpromisoa hartutako lanketa batek baldintzatzen duela. EH Bilduk gaineratu du gaia Gipuzkoa osoan doala motel.

EAJk betetzat ematen duen gai bakarra da Boluan lur-jausia gertatu zeneko mendi magala egonkortzearena. Lanen bigarren fasea bukatzean dago eta 2023ko aurrekontuetan hurrengo fase-rako partida gordeko da.

Martokoa eta Simon Arrieta

Bestalde, jeltzaleentzat lehentasunezkoa da Martokoa-Zubiaurre kaleak berriro urbanizatzea; horregatik egin zuten prentsaurrekoa bertan: "Aurreko agintaldian hasi ginen gaia bizilagunekin

lantzen eta 2022rako konpromisoa zen kalea berritzeko azterketa egitea; ez da ezer egin". EH Bilduk honako hau azaldu du: "Martoko bizilagunekin bilera epe laburrean egingo da, eta publikoa da. Bertan jasoko dira urbanizazioari buruz dituzten ekarpenak. Maiatzeko bilkuratik pasatutako laugarren kreditu aldaketan 40.000 euro hartu ziren gerakinetik".

Simon Arrieta plazako irisgarritasuna bermatzeko proiektua idatzi ez delako ere kezu da EAJ, eta EH Bilduk azaldu du konpromisoetatik oraindik heldu ez zaion "bakarra" dela: "Konponbidea ez da erraza, baina laster hasiko da lanketa".

Elorregi, Zabala eta Berener

Elorregin komuna jartzeko gerakinetik 50.000 euro bideratzeko konpromisoari erreparatuz, jeltzaleek diote ez dela diru izendapenik egin, baina Udal Gobernuak dio hori ez dela horrela: "Maiatzeko bilkurako laugarren kreditu aldaketan 50.000 euro hartu ziren gerakinetik. Proiektu teknikoaren lidergoa Oñatiko Udala eramaten ari da, eta Arrasateko, Oñatiko eta Bergarako udalek eta Foru Aldundiak sinatuko luketen hitzarmen zirraborra oso aurreratuta dago. Proiektuaren xehetasunak irailen argitaratu ziren hedabideetan".

Ondare aldetik balio handia duen Zabala etxeko fatxadarako lanketarekin ere ez daude ados bi taldeak. EAJk dio ez dela egin lanketarik eta EH Bilduk, berriz, 5.000 euroko diru-izendapena egiteaz gain 2023rako 40.000 euro jarriko direla: "Fatxadaren kokapen posible bat lantzen ari da Udala eta lanketa tekniko-juridikoa aurreratzean azalpenak emango dira".

Azkenik, subiranotasun energetikorako Udalak egin dituen urratsak ez dira nahikoa, EAJren ustez: "Ehunduren bitartez Udala ari da komunitatea sortzen, baina udal eraikinetan ez da ezer gauzatu". EH Bilduk beste ikuspegi bat dauka: "Berener sortzean da Ehunduren bitartez. Horrez gain, Agorrosingo teilatuen eguzki plakak jartzeko lanketa hasita dago. Maiatzeko bilkurako laugarren kreditu aldaketan 110.000 euro hartu ziren gerakinetik, 150.000 euroko partida osatzeko".

Eztabaida politikoak ez du launduko 2023ko aurrekonturako negoziazioetan; asmoa da abenduaren 19ko bilkuran onartzea.

EH BILDU: "ZUZENA EZ DEN INFORMAZIOA DAGO; BERGARARREK INFORMAZIO ZUZENA MEREZI DUTE"



Udaleko, Martxanterako, Duintasunako eta Berdintasun Kontseiluko kideak, joan den asteko aurkezpenean. BERGARAKO UDALA

Indarkeria instituzionala, kale ekintzaren aldarri

Bergarako Udalak, Berdintasun Kontseiluak, Duintasuna elkarteak eta Martxanterak taldeak bat egin dute azaroaren 25aren harira, eta egitarau bateratua antolatu dute: elkarretaratzea egingo dute herriko plazan, 19:00etan, eta Itaiak, 20:00etan

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría BERGARA

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Eguna dela-eta, mobilizazioak egingo dituzte gaur Bergaran. Lehena 19:00etan izango da, San Martin plazan. Kale ekintza bat egingo du Martxanterak taldeak, eta "indarkeria instituzional guztiei aurre egitea" izango du asmo, beste urte batez, espazio publikoa hartuta eta ekintza politiko-artistiko bat eginda.

Azaldu dutenez, bailarako mugimendu feministako kolektiboekin batera adostutako gaia da landuko dutena, eta "suaren sinbolismoa eta potentzialtasuna" izango dute lagun euren aldarriari eusteko. "Sistema patriarkal, arrazista eta kapitalista sostengatzen diren instituzioen indarkeriak seinalatuko dira". Eta horretarako, ondoan izango dute Candem Dance eskolako dantza taldea ere, bertako kideen ikuskizunarekin amaituko baita ekintza.

Salaketaz gain, ordea, emakumeek jasaten duten bortizkeria aurre egiteko antolakuntzaren eta elkar babestearen beharra ere azpimarratuko dute.

Hala, ez dira ekintza batera mugatuko, Bergarako Berdintasun Kontseiluarekin, Udalarekin eta Duintasuna taldearekin batera egitaraua antolatu baitute: hilaren 28an, emakume helduekiko indarkeria salatuko elkarretaratzea egingo dute, 12:00etan; eta abenduaren 15ean, Nerea Barlojak *Sexu izuaren eraikuntza* hitzaldia egingo du UNEDen.

Udalaren adierazpena

Udalak, beraz, bat egin du ekintza horiekin. Adierazpen insti-

"SISTEMA PATRIARKAL, KAPITALISTA ETA ARRAZISTA BABESTEN DUTEN INSTITUZIOAK" SEINALATUKO DITUZTE

tuzionala onartu du Bozeramailleen batzordeak, eta asteleheneko osoko bilkuran berretsiko du udalbatzak. Sei konpromiso hartu ditu, guztira, eta lehena da "emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak" ezagutzeta, tokiko politiken diseinuan eta garapenean kontuan hartzeko. Horretarako, inbertsioak sustatuko ditu.

Itaiaren mobilizazioa

Deba bailarako Itaiak ere mobilizazioa egingo du San Martin plazan, *Indarkeria matxistari aurre egiteko sozialismoa eraiki* lelopean, 20:00etan. Uste du "beharrezkoa" dela "indarkeria matxista normalizatzen eta sostengatzen duen gizarte kapitalista gainditzea" eta, era horretan, "hori helburu duen antolakuntza sozialista eraikitzea". Hala, "emakume langileen babesarako zein erasotzaileei aurre egiteko eraginkorrak izango diren baliabideak" sortzen eta garatzen jarraituko dute.

MUko ikasleek bost botila diseinatu dituzte Ibilirentzat

Tartean da Maitane Urkiola bergararraren diseinua ere; produktu bihurtzarekin bat, merkaturatu egingo dute

A.R.K. BERGARA

Sukaldeko tresneria egiten duen Bergarako enpresa da Ibili, eta, Mondragon Unibertsitatearekin duen lankidetzari esker, ikasleek bost botila diseinatu dituzte Ibilirentzat. "Ibilirentzat oso interesgarriak dira halako lankidetzak, gure erabiltzaileentzat gaur egun erakargarria izan daitekeenari buruzko ikuspegi eguneratua, berria eta gaztea eskaintzen baitigute".

Iaz egin zuten lehendabizikoa ekimena, eta lortutako arrakastaren ostean erabaki zuten bes-

te behin egitea. Orotara, 64 proposamen jaso dituzte, eta horietatik bost izan dira hautatuak, diseinuak produktu bihurtu eta merkaturatzeko.

Gainera, irabazleen artean Maitane Urkiola bergararra ere badago, *Marea* diseinuarekin.

lazko datuak

Joan den urteko bost irabazleen diseinuei dagokienez, 60 herrialdetara esportatzen den katalogoan eta Ibiliren webgunean jarri zituzten, eta 10.000 unitate baino gehiago saldu dituzte.

EH Bilduren mahai politikoak alkategai proposatu du Artola

2023ko udal hauteskondeei begira alkategaia aukeratzeko prozesuan dago murgilduta Bergarako EH Bildu, eta mahai politikoak Gorka Artolaren aldeko proposamena egin du aste honetan.

Jakinarazi dutenez, Artolak "prestutasuna" azaldu du alkate izateko hautagaitzara aurkezteko, eta mahai politikoak balorazio "oso positiboa" egin du agintaldian zehar Artolak eta bere gobernu talde osoak egin dituzten proiektuez eta oraindik egiten ari direnez.

Hala, beste hautagairik aurkeztu ezean, abenduaren hasieran berretsiko du militantziak Artolaren proposamena.

OHARRAK

Bibote mozketa

Movemberri amaiera emateko, lehenbizi, mendi buelta, eta, ostean, bibote mozketa eta enkantea, Irala kalean, 13:00etan.

Film emanaldia

Anti film laburren eta *Bizipenen bilduma* bideoaren emanaldia eta solasaldia Itziar Usandizagarekin eta Lupe Olabarriarekin, Irizar jauregian, 19:00etan.

Azken ostirala

Preso eta iheslariak etxeratzea eskatzeko, Sarek eta Etxeratek antolatuta, elkarretaratzea San Martin plazan, 19:30ean.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
KALITATEA

Enpresa Registrada N°90/025

Bosgarren garaipenaren bila Irazolaren mutilak

Senior mailako Soraluze BKE saskibaloitza ez zuen liga hasiera erregularra egin. Baina Xabat Irazolaren mutilek neurria hartu diote txapelketari eta azken lau partiduak jarraian irabazi dituzte. Saillkapeneko hirugarren postuan daude jada

Xabier Urzelai Atxa BERGARA

Soraluce BKE saskibaloitza taldea bolada onean da. Lau partidu irabazi dituzte jarraian, eta, horri esker, ligako oilarren multzoan sartu dira. "Eta gutxien espero genuen momentuan etorri da bolada on hori, egia esateko. Berez, jokalarik gutxi ditugu taldean, bederatzi lagun gara, eta, gainera, hainbat jokalarik min hartu dute eta badirudi denbora beharko dutela erreku-peratzeko", adierazi du taldean jokalarik eta entrenatzaile jarduten duen Xabat Irazolak.

Irazolak aitortu duenez, denbora batez entrenatzaile lanetan ibili beharko du buru-belarri:

"Belaunean hartu dut min; Borja Elkoroberezibar ere lesionatuta dago, eta jokalarik garrantzitsua da guretzat. Zorionez, baina, gainontzekoak oso ondo erantzuten ari dira, eta nabarmenezkoa da hutsune horiek betetzeko juniorrek eta hirugarren mailako senior taldekoek egin duten ekarpena; eskertzekoa da guri laguntzeko izan duten jarrera. Liga hasieran, mailari eustea zen helburua, baina, konaturatu orduko, gora begira jarri gara".

Etxean indartsu

Hori da Bergarakoen helburua, Labegarrietan indartsu egotea:

"Eta helburu horrekin hasi genuen liga, taldeek puntu gutxi eskura zezatela gure kantxan, baina hori esatearekin batera etxeko lehenengo bi partiduak galdu egin genituen". Kanpoko biak, baina, irabazi egin zituzten, eta ondoren etorri da bolada ona. Hala, etxean jarraian jokatutako azken bi partiduak Loiolaren kontra eta Atletico San Sebastianen kontra irabazi eta gero, hurrengo bi hitzorduak kanpoan dituzte. Biharko kontrario Donosti Dolphins bigarren dago saillkapenean (18:00, Benta Berri): "Urtero aurrealdean egoten den talde horietako bat da; ea irabazten diegun".

Ormaetxearen debuta

Bolintxo Okindegia-Lana taldeko Unai Ormaetxeak joan den astean egin zuen ziklo-krosea debuta, Lezamako lasterketan. Kadete mailako aramaiorrek lasterketa amaieran adierazi zuen zirkuituaren egoerak asko gogortu zuela lasterketa. Bestalde, Lokatzako gainontzeko txirrindulariak hasita daude neguko prestaketa-lanak egiten.



LOKATZA ZK

Pol-Polen hasi dira 2023ko aseguruak tramitatzen

Pol-Pol mendi elkartearen astelehenean hasi ziren datorren urterako mendiko aseguruak tramitatzen. Interesa duenak bi aukera ditu: www.pol-pol.net webgunearen bitartez egin dezake tramitazioa, edo mendi elkartearen bulegora joanda -San Pedro kalea 10: astelehen, ostegun eta ostiralean, 19:00etatik 20:00etara-.

Azken saillkatuaren kantxan jokatuko du Soraluze BKEk

Eskubaloian, senior mailako Soraluze BKE taldeak azken saillkatu Egiaren kontra jokatuko du bihar, zapatua (18:00, Donostia). Liga hasiera txarra egin eta gero -sei partidutatik bost galduta-, mahoneroak hasi dira egoerari buelta ematen, eta azken bi partiduetan lortutako garaipenei esker konfiantza erreku-peratu dute.

DEBAGOIENEN

PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiostudioa@gmail.com

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Ikerketa-kazetaritza eta arte eszenikoen fusioa

Mamiak kolektiboa kazetaritza performatikoa oinarri duen 'Ogiak hizketan baleki' obrarekin izango da Seminarixoa bihar, azaroak 26, 20:00etan: "Lehen karlistalditik ezkutuan egon den gertaera lazgarri bat aztertu eta egungo errealitatera ekarri dugu"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Mamiak kolektiboaren *Ogiak hizketan baleki* obra bihar, azaroak 26, helduko da Seminarixora (20:00). Kazetaritza performatikoa proposatzera datoz, lantaldeko komunikazio arduradun Txema Ramirez de la Piscinaren arabera: "Kazetaritza performatikoa ikerketa-kazetaritza eta arte eszenikoak zeharbatzen dituen artefaktu kultural bat da. Ezkutuan eta bazterrean zegoen gertaera bat aztertu, ikertu eta behatu ondoren, egungo errealitatera ekarri dugu". Sei lagunek osatzen dute lantaldea: Marina Suarez, zuzendari eszenikoa; Irantzu Lekue, arte zuzendaria; Josune Velez de Mendizabal, aktorea; Edu Zelaieta, gidoilaria; Ander Gondra, ikerketa historikoaren egilea; eta Txema Ramirez de la Piscina, komunikazio arduraduna.

1836an Gasteizen kokatua

Ezkutuko gertaera hori 1836ko Gasteizen dago kokatuta: "1835eko abendutik 1836ko apirilera Gasteiz okupatzen zuten 1.200-1.500 soldadu liberal ingeles hil egin zituzten. Historia ofizialaren arabera, Jose Elosegi okin karlistak den-denak hil omen zituen ogi pozoitsua erabilita. Egia izan ote zen? *Fake news* baten aurrean gaude? Ez da inoiz argitu. Batzuen arabera, Elosegi historiara pasa da inoiz izan den serieko hiltzailerik handiena bezala. Berez jazoera hura ikaragarria izan bazen ere –pozoitze masiboa ez da inoiz demostratu–, guk beste norbaitengan jarri dugu arreta: Jose Elosegiren alarguna izan zen Josefa Mugikarengan, hain zuzen ere. Zer sentitu zuen emakume hark senarra garrotez exekutatu aurreko egun eta ordu lazgarri haietan? Pasadizoa berreskuratzea eta gaur egungo klabeetan eskaini nahi izan diogu XXI. mendeko publikoari".

"Oso ondo funtzionatu du"

Urtebete pasatu da obra estreinatu zutenetik, eta orain arte harrera ona izan dela dio Josune Velez de Mendizabal aktoreak: "Hasieratik oso ondo funtzionatu du. Dena hasi zen Txemaren eskutik. Hark eman zigun albistearen berri, eta antzezlan bat egitea proposatu zidan. 2021ean, Toparabara aurkeztu ginen egitasmo batekin eta irabazle suertatu ginen. Lanean jarri eta sei hilabeteren buruan Oihaneder Euskararen Etxean aurkeztu genuen, eta jendea kanpoan geratu zen". Horrez gain, Velez de Mendizabal harro dago Josefa Mugikaren papera antzezteaz: "Doala aurretik Josefa Mugika gorpuztea zirraragarria zaidala. Emakume honetaz ezer gutxi dakigu. Zer sufrituko zuen? Nola egingo zion aurre gertakariari? Ze aukera zituen adie-

1.200-1.500 SOLDADU INGELES HIL ZITUZTEN GASTEIZEN, 1836AN; AHAZTUA IZAN DEN GERTAERA LAZGARRIA



Josune Velez de Mendizabal, Josefa de Mugikaren paperean. MAMIAK KOLEKTIBOA

razteko? Nolakoa zen XIX. mendeko emakumea? Emaztea? Alarguna?".

"Gerra-propaganda itzela"

Baina zergatik ez da apenas ezer ezagutzen gertaera lazgarri hartaz? Honela dio ikerketa historikoaz arduratu den Edu Zelaietak: "Gogoan hartu behar da, hildako soldadu ingelesez gain, Gasteiz hainbat tropa militarrek hartua zegoela, orduko hiri txikia sekulako kaosa zela, jendea gaixorik zegoela, goseak, hotzak, miseria gorrian... Gerra baten testuinguruan. Eta, noski, gerra-propaganda itzela zegoen". Zelaietak dio errazago zaiela ondorioztatzea zergatik leporatu zioten hilketa masiboa Jose Elosegiri: "Seguruenik, ofizial ingelesek, haien gudarosteak ez matxinatzeko, pagaburu bat behar zuten, eta Jose Elosegik profil ezin egokiagoa zuen: hirian ezaguna, alde aurretik negozioia eginga eta handitua, eragina zuena kontu publikoetan... Garaiko *influencer* bat zela esan liteke".

Emanaldiaren ostean lantaldearekin berba egiteko aukera egongo da; sarrerak, *seminarixoa*. *eus*-en, zortzi eurotan.



Oñatiko Potemkin, egun; lau kontzertu eman ostean agur esango dute. J.M. AZPITARTE

Rock asteburua dute kartzelan, Potemkin taldearen itzulerarekin

Gaur, Trini Fox eta Zeker taldeek joko dute (22:30); eta bihar, Potemkin eta John Dealer & The Coconuts (22:30)

J.B.L. BERGARA

Asteburu bete izango da honako hau ere musikari dagokionez. Danbaka musika lehiaketak laugarren gaua biziko du gaur (Ikus 34. orria), eta, horrez gain, kartzela zaharrean ere izango da zertaz gozatu; bereziki, punk rock doinuez. Gaur, Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenaren barruan, Azeptiko Trini Fox eta Elorrioko Zeker taldeek kontzertua emango dute (22:30); sarrera bost euro da.

Potemkin taldearen itzulera

Biharko jaialdia, berriz, berezia izango da: hamaika urteko etelaldiaren ostean, Oñatiko Potemkin taldeak itzulerako bigarren kontzertua emango du. "Itzulera dator Bonberoko (Bonberenea) Patxi Muñozak 25. urteurrenerako kontzertu berezi bat emateko deitu zigulako; gure bi diskoak han grabatu ditugu eta ezin genion ezezkorik eman proposamenari; arazoak izan ditugu entseatzeko

orduan gure agendak sinkronizatzeke, baina oso gogotsu gaude jotzeko. Agur duina eman nahi genien gure jarraitzaileei... Gonbidapena egiten diogu jendeari kontzertuetara etor daitezten, seguruenik behin betiko agurra izango da-eta", dio lantaldeko abeslari Aixibar Urteagak.

Abeslariak gaineratu duenez, 11 urte urte ez dira oharkabean pasa: "Nire kasuan, astuna egin zait orduko automatismoak eta tonuak berreskuratzea; bereziki, tonu altuak direnean". Lantaldeko baxu-jole Alexis Alonsok dio duela 11 urteko indarrarekin itzuliko direla: "Indartsu gatoz, gozatzeko eta gozarazteko asmoz". Lau kontzertu izango dira: gaur, Tolosako Bonberenean; bihar, kartzela zaharrean, Legazpiko John Dealer & The Coconuts-ekin –22:30ean; sarrera, zortzi euro–; abenduaren 2an, Ondarroako Portukoranpin; eta abenduaren 3an, "seguruenik, behin betiko azken kontzertua", Oñatiko gaztelekuan.

Harria talde berriak diskoa kaleratu du, "barrura begiratzetik"

Harria taldeak ikusmina piztu du kaleratu berri duen diskoarekin; Durangoko Azokan Ekin-en standean egongo dira. Honako kide hauek osatzen dute Harria: Belceblues eta What A Band (WAB) taldeko kide izandako Guille Sanz (bateria), Bidelapurak-eko Ekaitz Aranberri (gitarra eta ahotsa); Brigada Criminal, Fiachras, Bizardunak

eta WABeko kide izandako Aitor Aldanondo (ahotsa); eta Maitane Azkarate (ahotsa). Iker Barandiaran musika adituaren arabera, aberatsa da diskoa: "Hamabi kantu batzen dituen estreinako lan honek asko du barrura begiratzetik, sufritzetik, lanketatik, lorpenetatik zein garapen eta moldaketa aberatsetatik". Bergaran, Amua arropa dendan eta Aldoka Maldoka (Popis) eta Arrano tabernetan dago salgai. "Asmoa da otsailetik aurrera zuzenean aurkeztea", diote.

Aizkorberen 'Jaizkibel', Aldundiaren egutegian

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2023ko egutegiko hilabeteak osatzeko argazki aukeratu berri eman du. Hala, Iker Aizkorberen 'Jaizkibel' erretratuak ekaina irudikatuko duela iragarri du. Argazkilariak esan du "ilusioz" hartu duela albista

Maidar Arregi ANTZUOLA

Hiru egunean hiru sari eskuratu ditu Antzuolan bizi den Iker Aizkorbe argazkilari aretxabaletarrak. Azkena astelehenean bertan jakin zuen: Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2023ko egutegian ekaineko hilabetea, zehazki, haren argazki batek irudikatuko duela. "Jaizkibelgo koloreen haranean ateratako argazkia da. Kolore gorrixka, horixka eta urdina hartzen du haranak. Lehiaketak argazki koloretsua eskatzen zuen, eta horregatik argazki hori aurkeztea erabaki nuen. Lekua izugarria da, bertara heldu eta harri-garria da; margotuta dagoela dirudi".

Argazkia orain dela lau urte ateratakoa da eta ordubeteko ibilbide gogorraren ostean lortutako erretratu dela aitortu du argazkilariak. "Komeni zen egun lainotsu batean ateratzea argazki hori. Izan ere, eguzkiak koloreen kontrastean eragina dauka. Goizean abiatu nintzen Jaizkibelgo porturaino, eta, ondoren, 400-500 metroko desnibela jaitsi nuen. Egun osoko plana izan zen, eta argazkilaritzaz eta lekuaz asko gozatu nuen". Epaimahaiak baloratu du Aizkorbe Jaizkibeli eskainitako bestelako ikuspegia jaso izana.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2023ko egutegian ekaina irudikatuko duen argazkia. I.A.

ABENDUAN ARETXABALETAKO ARKUPEN EGINGO DU ERAKUSKETA AIZKORBEK

Beste bi sari

Aldundiaren sariaz gain, asteburuan beste bi sariren berri ere izan du Aizkorbe: zapatuan, *Nafarroa ezagutu* lehiaketako sari nagusia eskuratu zuen (Ikus beheko argazkia). Domekan,


berriz, Portugalgo Manteigas herriko *Imaginature* lehiaketakoa. Azken horretan, Jaizkibelen ateratako bost argazki osatutako serieak jaso du aipamena. "Kategoria artistikoan bigarren saria eskuratu dut eta oso pozik nago".

Erakusketa

Lan horiek guztiak abenduan zehar Aretxabaletako Arkupe kultura etxeko erakusketa aretoan izango dira ikusgai: "Hogeitabat argazki jarriko ditut aretoan ikusgai".

2023ko Nafarroako egutegiaren azala

Nafarroa ezagutu argazki lehiaketako sari nagusia eskuratu du Aizkorbe, eta Nafarroako 2023ko egutegiaren azala izango da Bardean ateratako *High voltage* izeneko erretratu ikusgarria. "Paisaia naturalen atalean eskuratu dut saria. Espero ez genuen ekaitza iritsi zen, eta beldurra ere pasa nuen. Ausardia ere baloratu du epaimahaiak".



Bardean ateratako argazki saritua. IKER AIZKORBE



I.A.A

10 gazta mota dastatu dituzte

Txomin Alberdiren eta Amaia Laskurainen ogibidea gertutik ezagutzeko, AMA TXO gaztandegia bisitatu dute debagoienarrek asteburuan. Hamar gazta mota ezberdin egiten dituzte Lamariano azpikoa baserrian, eta horiek ekoizteko egiten duten jarduna bertatik bertara ikusi dute. Artaldea maneiatzea, gazta ekoizteko pausoak eta abar.



GOIENA

80 kilo gaztaina erre dituzte

Azken urteetako etenaren ostean, Antzuolako Udalak gaztaina erre jana berreskuratu du aurten, eta 80 kilo erre zituzten domekan. Eguraldia zela-eta zalantza izan zuten plazan edo eskolako patioan egin, baina, azkenean, plazan egin zuten gaztaina-janaldia. Antzuolarrak gustura, erretako gaztaina guztiak banatu zituzten alkateak eta udal zinegotziek.

OHARRAK

Elkarretaratzea

Indarkeria matxista salatzeke elkarretaratzea gaur, 19:30ean, Herriko Plazan.

'Amaraun' ikuskizuna

Gaur, Torresoroan, 18:00etan izango da *Amaraun* ikuskizuna.

Antzerki tailerra

Bihar, 17:00etan, gazte txokoan antzerki tailerra egingo dute.

Eki-lur Antzuola

Astelehena, ostirala
10:00-13:30 · 16:00-19:00
Larunbatetan
10:00-13:00

☎ 943 57 58 48 ☎
Enkarguak Whatsapp bidez
☎ 747 45 16 31 ☎

AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

"Onbideratu egin dugu Udalaren egoera ekonomikoa"

IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA ELGETAKO ALKATEA

Zortzi urte alkatetzan nahikoa direla iritzita eta egindako lanarekin pozik, maiatzean utzi nahi du kargua Lazkanok. Bidean lagun izan dituenen lana azpimarratu du

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Bigarren agintaldia betetzear du Iraitz Lazkano Garitaonandiak (Elgeta, 1987). Ezohiko egoera asko egon direla dio, baina balorazio positiboa egiten du.

Ze ezaugarri izan ditu agintaldiak? Aurrekoa moduan, Udalaren egoera ekonomikoak baldintzatu du, neurri handi batean. Kalte-ordainak ordaintzen jarraitu behar izan dugu. Gero, bi mugarri esanguratsu izan ditu, nire ustez: alde batetik, Zaldibarko hondamendia, emergentzia egoeran sartu gintuelako; eta, bestetik, pandemia izan delako.

Bete dira agintaldiko helburuak? Orokorrean, bai, eta bete ez direnak bideratuta daude. Helburu nagusietako bat zen Udalaren egoera ekonomikoa onbideratzea, eta, poliki-poliki, kalte-ordainak ordaintzen joan gara. Hala, geneukan egoerari buelta eman, eta oso-oso zor txikiarekin utziko dugu Udala; banketxeekin 300.000 bat euroko zorra, aparejadore ohiaren kalte-ordaina guztiz ordainduta eta istripuarena ia-ia ordainduta. Geunden zulotik irteten goazela ikusten dut nik, ez "behea jota", eta orain, beste dimentsio bateko proiektuak egiteko aukera izango da. Bidean lagun izan ditudanak egindako lana azpimarratu nahi nuke.

Zeintzuk izan dira proiektu izarrak?

Proiektu asko zentratu dira gaur egun ditugun instalazioen hobekuntzan, eta uste dut salto handia eman dugula bai kiroldegian bai eskolan. Eskolan erabilgarri ez zeuden espazio asko jarri ditugu erabilgarri, eta estalpeko jolasguneak ere badaude orain. Kiroldegiari dagokionez, aldagelak eta leihoak berritu egin ditugu, eta margotu ere egin dugu. Efizientzia energetikoaren alorrean ere hobekuntza nabarmenak egin ditugu. Gehituko nituzke skate parkea berritzeko egindako apustua, argiteria publikoa LED sistemara aldatzeko inbertsioa, eguzki plakak jartzeko ahalegina, herriko jolas-parkeetan egindako hobekuntzak eta kafe antzokian eta museoan egindako argiteria aldaketa eta margotze lanak.

Arantzarik geratu zaizu?

Bai, noski! Hainbeste gauza ikusten ditut egiteko! Alkate izan naizen urteetan 1.300.000 euro ordaindu ditugu kalte-ordainetan, eta beharrezkoa izan

"EGOERA EKONOMIKO HOBEAREKIN BESTE DIMENTSIO BATEKO PROIEKTUAK EGIN AHALKO DIRA ORAIN"

da genuen diruarekin lehentasunak ondo finkatzea, eta uste dut asmatu egin dugula. Arantzak? Ba, kalte-ordainak guztiz ordainduta ez lagatzea, kultura etxea birgaitzeko proiektua egiteke uztea, udaletxeak berritze integrala behar du, kiroldegiko bigarren solairua ez dut alkate naizela eginda ikusiko... Gero, oso interesgarria da eskolak jangelarako sukaldia edukitzea. Guraso elkarte hasita dago lanean eta prest agertu gara laguntzeko.

Agintaldi honetan zelakoa izan da harremana oposizioarekin?

Ez da txarra izan, neurri batean, ez dugulako harreman handirik eduki. Uste dut oposizioaren lana ez dela lana izan. Gutxi gorabehera, hamar batzordetik lautan egon da oposizioko zinegotziren bat. Uste dut herriarekiko ezjakintasuna handia eduki dutela eta ez direla inplikatu. Proposamenak egiterakoan ere ez dute asmatu, nire ustez. Buruan dut agintaldi honetako lehen elurtea. Dezentekoa izan zen, eta kolapso egoerak ere izan ziren. Ba, gogoan dut oposizioko bozeramailea udaletzeko arkupean GOIENARI adierazpenak egiten esateko Udala Gobernuak ez zuela ezer egiten, eta, bitartean, alkatea eta zinegotziak pala eskuan udal brigadakoei laguntzeko. Uste dut une horrek



Iraitz Lazkano Garitaonandia, astelehenean, Espaloia kafe antzokian. L.Z.L.

laburbiltzen duela zein izan den oposizioaren lana.

Uemako lanak eta Udalekoak ondo bateratu dituzu?

Ez dut arazorik izan. Oso lan desberdinak izanda ere, oso gustura ibili naiz bietan. Esango nuke, gainera, Ueman egotea lagungarri egin zaidala harreman berriak egiteko eta Elgetarako interesgarriak diren gai batzuetan sakontzeko.

Hasi zarete hurrengo aurrekontua prestatzen?

Kalte-ordainak neurri handi batean ordaindu izanak arnas pixka bat emango digu. Egonko dira energiarekin lotutako proiektuak, energia komunitatearekin lotutakoak, lantaldean ere indartu beharko ditugu alor batzuk... San Roke kaleko lanak Gipuzkoako Urak-ekin batera egingo ditugu, zoria lautzarekin batera euri

"OPOSIZIOAREN LANA EZ DA LANA IZAN; HERRIAREKIKO EZJAKINTASUN HANDIA IZAN DUTE"

urak eta ur zikinak berezitu beharra badagoelako. Lanak bi fasetan egitea aurreikusten dugu. Esan bezala, Gipuzkoako Urak-ekin batera ari gara proiektua lantzen. Aurreikusen dut aurten hasia eta hurrengo urtean amaitzea.

Kiroldegiari beste solairu bat egitea ere mahai gainean duzue.

Azterketa sakona eginda ikusi dugu ematen duela kiroldegiak hori egiteko. Goian geldituko litzateke beheko moduko espazio bat, eta horrek ematen ditu aukera mordoxka bat. Orain, jakin behar dugu herriak zein behar dituen. Bi areto handi egin behar dira ala hobe da hainbat gela txiki egitea? Muskulazio gela bat behar da ala rokodromo bat? Herritarren eta erabiltzaileen iritzia ezagutu nahi dugu, eta asmoa da abenduan entzute-fase bat hasia.

Alkategai izango zara berriz?

Ez dut asmorik.

Politikan jarraituko duzu?

Ez dut asmorik.

Zein asmo duzu, orduan?

Lehenengo eta behin atseden hartu eta ingurukoez gozatu. Ondoren, lan bila hasiko naiz.



Uemako teknikari Arritxu Zelaia, Elgetan. L.Z.

Hamarretik seik euskaraz dihardu kalean

Uemak Elgetako euskararen kale erabilera neurketaren berri eman du. 3,9 puntu jaitsi dela euskararen kale erabilera dio. Haurrak dira euskara gehien erailtzen dutenak; halere, jaitsiera handiena izan duen taldea dela ere nabarmendu du

Maidar Arregi ELGETA

Uemak Elgetako euskararen kale erabilera neurketaren datuak jakinarazi ditu; hala, datuek diote 2017az geroztik ia lau puntu jaitsi dela erabilera. "Jaitsiera badago, eta kezkatzeko kontuak badira; hamarretik ia sei elgetar euskaraz entzuten da kalean. Kezka sortu dezakeena da haurren arteko euskararen erabilera izan duen jaitsiera", azaldu du Arritxu Zelaia teknikariak. Arreta haurrengan jartzen bada ere, azpimarratu du erabilera datu handiena haurrek dutela. Heldu-gazteek heldu-nagusiek baino gehiago egiten dutela euskaraz ere badio, eta igoera izan duela taldeak: hamarretik zazpi dihardu euskaraz.

Era berean, azpimarra jarri du etxeko erabilera eta lehen

hizkuntzan: "Kalean euskaraz egiteko determinantea da etxeko hizkuntza. Ezagutzak baino gehiago markatzen du kale erabilera. 1991n, %76,4 zen; 2021ean, aldiz, %51,2 da. Arnasguneetan dauden faktore askoren aldaketan emaitza da, ikuspegi integraletik aztertu beharrekoak".

Biziberritzeko urratsak

Euskararen ezagutza mantendu egin bada ere, euskararen kale erabilera behera egin duela dio Ane Bilbaok, Euskara zinegotziak. "Ezagutzaren eta erabilera arteko aldea nabarmena da. Izan ere, herritarren %77,8 euskaldunak izanda eta %11 ia euskalduna, herriko elkarrizketen %57,9 soilik dira euskaraz. Elgetako Udaletik ahalegina egin dugu azken ur-

teotan euskararen biziberritzean urratsak egiteko: hizkuntza paisaia euskaldunduz, euskara ikasteko dirulaguntza lerroa indartuz, berbalagun taldeak martxan jarriz, hitano ikastaroak antolatuz, AEKrekin elkarlanean euskara ikasteko talde bat sortuz... Oro har, saiatzen gara Udalaren jarduna eredarri izan dadin. Bide horretan, euskaraz jarduten dugu bai eguneroko lanean baita kanpora begirako komunikazioan ere". Baina asko dagoela egiteko ere badio: "Euskararen ezagutza unibertsalizatu eta erabilera esparru guztietara zabaltzea, alegia. Estrategikoak diren hainbat esparrutan lan handia dago egiteko, baina erabaki ausartak hartu eta politika sendoak egiteko. Bi adibide jartze aldera,

arlo sozioekonomikoa –industria, ostalaritza turismoa...– eta ingurune digitala euskalduntzea euskararen biziberritzerako ezinbestekoa dela uste dut".

Ohitura aldatzeko erabilera eragina izan dutela adierazi du: "Euskararen kale erabilera behera egin badu ere, nabarmenago da etxeko erabilera izan den jaitsiera. 1991n, %76,4k egiten zuten etxean euskaraz; eta 2021ean, %32,9k. Bikoiztu egin da etxean bi hizkuntzak darabiltzatenen kopurua. Lehen hizkuntzan ere aldaketa nabarmena da: 1991n, %83,6rentzako zen euskara lehen hizkuntza; eta 2021ean, elgetarren %56,9rentzako soilik da euskara lehen hizkuntza. Euskaldunen profil eta ohitura aldatzea hauek euskararen kale erabilera eragin nabarmena dutela uste dugu, eta etxeetan euskararen presentzia indartzea, pantailak euskaraz, ezinbestekoa dela".

Arreta, norbanakoan

Goibeko elkarteak Ainar Irribar presidenteak azaldu du hamar lagunetik sei ere ez direla entzuten euskaraz Elgetako kaleetan. "Erabilera jaitsi egin da eta horrek non duen muga ez da ikusten. Arnasgunea ez da hain arnagune osasuntsua. Arrazoiak arrazoi, hori da egoera. Goibekotik interesatzen zaigu bakoitzak jartzea horren arrazoiak, baina ez besteei begira, norberari begira baizik. Norbanakook norbanakoari begira, elkarrekin

"EMAKUMEEK PLAZA HARTU AHALA JOANGO DA HOBETO EUSKARA"

AINARA IRIBAR, GOIBEKO

elkarrekin eta erakundeek erakundeetara begira. Denok dugu zeregina, bakoitzak bere mailan".

Gaineratu du neurriak berandu baino lehen hartu behar direla: "Elkartean ez dugu baliabiderik horretarako, baina egin genezakeen apurra egingo da bazkideekin batera: koko-batzea gune euskaldun eta gaztea izatea, udazken jaia, euskaltzaleena, hedabide euskaldunak bultzatu, Korrika, Euskaraldia... Inork gogorik balu, badaki non joatea. Politika publikoak ere behar dira, galera hauek min handiagoa egin ez dezaten. Inbertsioa behar da kulturen, aisialdian, hedabideetan, lan munduan... Eta gure herri txikiak denerako ere ez du emango, baina daudenei eutsi eta modu euskaltzalean jardun behar dugu".

Emakumeen presentzia positiboa dela nabarmendu du: "Emakumeek plaza hartu ahala joango da hobeto euskara. Eta ez euskara bakarrik, emakumeek aipatutako gune guztietan presentzia izatea positiboa baino ezin da izan. Bestetik, haurren euskararen erabilera zergatik jaisten den asmatu beharra dagoela ere badio: "Datuek diote etxeko erabilera egiten dela behera. Datuak datu, huts izan ez daitezke jarri behar zaie testuinguru. Hala ere, ez genuke alarmismoan jausi nahi. Badugu aukera datuok beherago joan ez daitezke lan egiteko".

"ETXEKO EUSKARA ERABILERA INDARTZEA NAHITAEZKOA DA"

ANE BILBAO, EUSKARA ZINEGOTZIA

Euskal Herriko plazetarako dantza berriak, jendaurrean

Euskal Herriko plazetarako dantza berriak proiektuaren jendaurreko aurkezpena egingo du Patxi Monterok azaroaren 27an, domeka, 19:00etan, Espaloia Kafe Antzokian. Gipuzkoako Dantzagunea, Dantzan Ikasi eta Herrixa Dantzan ekimenak dira antolatzaileak. Gainera, musika-rekin zuzenean gozatzeko aukera ere egongo da, Alboka folk

taldearen eta Iker Allurren eskutik. Sarrera doakoa da.

Patxi Monterok sustatutako egitasmo horren helburu nagusia dantzaldietarako ere sormenaren bidea aldarrikatzea da; hain zuzen, sormen hori zentzuz egin dadila da xedea. Eta horixe adibideekin edo "etsenplua emanez" erakustea, alegia. Bigarren aldarrikapena ere badu egitasmoak: indarra ematea gutxi erabiltzen diren euskal tradizioeko hainbat dantza-molderi.

Pintxo Eguna gozatzeko aukera izango da domekan

Pintxo Eguna izango da domekan Elgetan. Lau taberna edo jatetxek hartuko dute parte: Bolatoki, Haizea, Lola eta Maialde. Euro eta erdiko prezioan eskainiko dituzte pintxoak, 12:30etik 14:30era, eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariak ibiliko dira kalea girotzen. Pintxo osagaiak asmatzen duten parte hartzaileendako sariak izango dira.

Ozkarbi Eguna ospatzeko 32 lagun elkarteko dira bihar

Bihar, azaroak 26, egingo dute Ozkarbi Eguneko bazkaria. Guztira, 32 lagun elkarteko dira elkarteetan bertan 14:30ean bazkaltzeko. Aurretik, baina, 13:30etik 14:30era, triki-poteoa egingo dute, eguna girotzeko. Bazkalondoren, berriz, erromeria izango dute, 18:30ak ingurura arte, Ozkarbi Eguna borobiltzeko.

OHARRAK

Ipuinak gaur

17:30etik 18:30era, liburutegian.

Azaroak 25

Bilkura, 19:00etan, plazan.

Elikagai bilketa

Ugari dendan izango da bilketa puntua gaur eta bihar.

Erretiratuak

Mahai-joko txapelketa egingo dute abenduaren lehen.



Xabier Igartua eta Izaro Elorza, Udal Gobernuaren aurrekontu proposamenaren aurkezpenean. O.E.G.

la 21 milioi euroko proposamena 2023rako

Aurrekontu "sozialak" direla nabarmendu du EH Bilduren Udal Gobernuak, "zerbitzu publikoak eta dirulaguntzak indartzea dakartenak, inbertsio mailari eutsiz". Inbertsioetarako 2,8 milioi euro bideratzea jaso du aurrekontu proposamenean

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Hogeita bat milioi euroko aurrekontu proposamena -20.964.904- egin du Udal Gobernuak datorren urterako, azkena baino %11,3 handiagoa. Ezauzgarrien artean aipatu ditu KPIaren igoerak orokorrean, eta energia kostuen garestitzeak bereziki, %9,7 igoera ekarriko diola zerbitzuen gastu atalari, dirulaguntza orokorretarako %10erainoko igoera proposatzen dutela eta 1,7 milioi euroko aurrezki arrunt positiboa izango lukeela proiektuak: "Ekonomikoki Udalaren egonkortasuna bermatzen da".

Egokitzapenak unibertsitatean

Sarrerei dagokienez, Oñatiko Udalak Europako Next Generation laguntzetara aurkeztutako Natur Eskolaren proiektuak 532.000 euroko laguntza jasoko duela jakinarazi dute Izaro Elorza alkateak eta Xabier Igartua Ogasuneko batzordeburuak Udal Gobernuak landutako aurrekon-

tuen aurkezpenean, eta gaineratu dute kopurua ongiatorria izan dela proiektuetara bideratzeko.

Inbertsioetarako 2,8 milioi euro jasotzen ditu proposamen honek. Horietatik 250.000 euro partaidetzazko aurrekontuetan boto gehien jaso dituzten proiektuetarako izango dira, oraindik zehaztu barik daudenak. Beste 290.000 euro, bestalde, Sancti Spiritus unibertsitatean Turismo Bulegoa eta ikasketetarako gela egokitzeko izango dira. Elorzak eta Igartuak azaldu dutenez, aurrera doaz Aldundiarekin eta HAEErekin zein Lege Soziologia Institutuarekin hasitako harremanak eta asmoa da proiektu hori hurrengo urtean gauzatzea; beheko solairura le-

**TURISMO BULEGOA
SANCTI SPIRITUS
UNIBERTSITATERA
LEKUALDATZEA DA
ASMOETAKO BAT**

kualdatuko dute Turismo Bulegoa eta lehen pisuan dagoen areto nagusia prestatuko dute formakuntza eta ikasketa gelak egiteko..

'Pump track' gunea

Pump track zirkuitu bat egiteko, kantxa urdineko teilatua konpontzeko, etxer etxeko laguntza zerbitzurako partida handitzeko, irisgarritasun lanak egiteko, Olakuako putzurako exekuzio proiekturako, kultur sormenerako laguntza gehitzeko eta jolasguneei buruz egindako diagnostiko txostenean proposaturiko zenbait esku-hartze gauzatzeko ere gorde dute dirua.

Egindako aurrekontu hauek "aurrekontu sozialak" direla nabarmendu dute Elorzak eta Igartuak, "oro har, zerbitzu publikoak eta dirulaguntzak indartzea dakartenak, inbertsio mailari eutsiz".

Abenduaren 15eko osoko bilkuran eztabaidatuko dituzte datorren urteko aurrekontuak.



Musika eskolako sarrerako atea. OÑATI

"Epe motzerako, San Martingo lursaila eskaini dezake Udalak"

Etorkizuneko musika eskola definitzeko egin den prozesuak emandako emaitzak aurkeztu ditu Udalak

O.E.G. OÑATI

Etorkizuneko musika eskola definitzeko azken urtean egin dituzten diagnosiaren, saioen zein inkestean emaitzak txostenean jaso eta aurkeztu ditu Udalak. Emango duen zerbitzu pedagogikoa, izango duen gobernantza eredu, espazioa zein kokapena izan dituzte hizpide prozesu horretan, baina puntu guztien artean kokapenak piztu du jakin-min handiena, eta hori oraindik erabakitze dago.

Prozesu horren arabera, 1.800 bat metro izan beharko ditu musika eskola berriak. Tamaina horretako eraikina egiteko edo egokitzeko zortzi kokapen ezberdin jasotzen ditu txostenak, bakoitza bere ezaugarriekin: San Martin ondoko lursaila, egun Udaltzaingoa dagoen eraikina, Bidaurretako mojen baratzea, agustindarren eraikina, Garaoa, Bidaurreta eraikina,

Kantonoste kalean elkarren ondoan dauden bi eraikin eta gaur egungo eremua. Horien artean, baina, etorkizuneko musika eskola "epe motzean egiteko San Martin egoitzaren eta etxebizitzaren artean dagoen lursaila da Udalak eskaini dezakeena. Badago espazioa egiteko, lursaila publikoa da, dirua badago eta bideragarria da", esan du Kultura batzordeburu Iñaki Olalde. Beste tokiak epe ertainerako edo luzerako ikusten ditu Udalak. Olaitturriko gunea ez dago jasota txostenean, baimenez gain "kontua ez delako eraikin bat orain hor jarri ingurua zertarako edo nola geratu daitekeen aztertu barik". Olalde gaineratu du sinesten duela hartutako elkarlaneko bidean, eta agintaldia bukatu orduko erabakia hartzeko konpromisoa hartu du. Musika eskolakoez ez dute irizirik eman.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Filmeko eszena bat grabatzen joan den uztailan. FILMEKO LANTALDEA

Gaztetxearen urteurrenei begirako fikziozko filma

'Ixilik nahi gaituztenean, Mari' du izena fikziozko filmak eta Oñatiko gaztetxe mugimenduaren eta Antixenaren ibilbideak ditu aipagai. Oñatiko zein bailarako herritar askok hartu dute parte eta abenduaren 8an da estreinaldia, zinema aretoan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko gaztetxe mugimenduko 40 urte bete ditu aurten eta hamar beteko ditu abenduan Antixenak, eta urteurren biak bateratu eta orain arteko ibilbide horri aitortza egin gura dion fikziozko filma estreinatuko dute abenduaren 8an herriko zinema aretoan. Antixenean sortutako eta hainbat herritarrek parte hartu duten proiektua da, izan zuzendaritzan, antzezpenetan zein lan teknikoetan.

2032an kokatzen da

Ixilik nahi gaituztenean, Mari du izena filmak eta drama distopiko bat da. 2032an kokatzen da: Udalak bidalitako gutuna jaso dute gaztetxean, utzi egin behar dutela esanez, eta gatazkak pilotzen hasiko zaizkio bertako kide Mariri (Paula Polo): gatazkak sortuko zaizkio Udalarekin, asanbladako beste kide batzuekin zein senideekin. Horixe da, hain zuzen ere, filmaren abiapuntua.

Duela urtebete hasi ziren gidoia idazten eta proiektuari forma ematen eta uztailan egin zituzten grabazio gehienak. Gaztetxean, Antixena parkean, Boga tabernan, Olaiturrin eta Ibarondo liburu dendan grabatu zituzten eszenak, besteak beste.

Herritar multzoa proiektuan

Filmak 45 minutu ditu eta lau lagunaren artean zuzendu dute: Anjel Lera, Jone Markuleta, Xanti Ugarte eta Mikel Garai. Euren artean banatu dituzte gidoia idazteko lana, produkzioa eta lan teknikoaren ardura. Aktore lanetan ibili diren herritarren artean daude, esaterako: Amaia Castañeda, Egoitz Aizpuru, Mikel Sagarzazu, Irazan

DURANGOKO AZOKAN ERE EMANGO DUTE FILMA: ABENDUAREN 9AN, IRUDIENEA GUNEAN

taldeko Danel Teran eta Izar Mendiola, Ibai Elorza, Eli Irizar eta Begoña Urrestarazu oñatarrak eta Arrasateko Mariasun Pagoaga. Teknikariaren artean, berriz: Sofia Morales –argazkigintza–, Oier Yaniz –bigarren kamera–, Mikel Letamendi eta Imanol Astudillo –soinua– eta Eñaut Zubizarreta AKA Trigger –musika–. Bestalde, kredituetan irudi eta argazki historikoekin egindako muntaia Eñaut Uribesalgok egin du. Gontzal Belategi da kartelaren egilea eta Xabi Rezabal argazkiena.

Laster emanaldia

Abenduaren 7an aurrestreinaldia egingo dute gaztetxean modu batera edo bestera parte hartu duten herritarrekin, luntx eta guzti. 8an, zinema aretoan emango dute, 19:00etan; eta 9an, 10ean eta 11n, Santa Anan. 9an, gainera, Durangoko Azokan eskainiko dute, Irudienea gunean. Sare sozialetan ere zabalduko dute bidea: @mari_filma.



Martitzen iluntzean egindako kale agerraldia. AITZIBER ARANBURUZABALA

Joseba Arregi espetxeratu dute, hirugarren gradua kenduta

Sare Herritarrak manifestazioa deitu du biharko. Herriko plazatik abiatuko da, 13:00etan

Miren Arregi Amasorrain OÑATI

Joseba Arregi Martuteneko espetxera itzuli zen martitzen arratsaldean, Auzitegi Nazionalak fiskalaren helegitea onartu ostean. Erabakia salatzeke egindako elkarretaratzean, senitartekoak eskertuta azaldu ziren herritarren erantzunarekin: "Kondena beteta du eta kalean egon beharko luke; egoera honen aurrean, eskertzen da herritarren babesa". 76 urte ditu Joseba Arregik eta 29 urte daramatza kartzelan. Zigorraren hiru laurdenak beteta eta legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu hirugarren graduan

eta baldintzapeko askatasunean egon ahal izateko.

Udalbatzaren adierazpena

Egoera salatzeke, Oñatiko udalbatzak adierazpen bateratua onartu du, eta kezka adierazi, "fiskaltzak espetxe-organoei hartutako ebazpenen aurka behin eta berriro errekurtsioak jartzen dituela eta". Hala, eskatu dute "ebazpen horiek bateragarriak izan daitezela espetxeetako administrazioko organoen erabakiekin, gradu progresiboak edo espetxekeo baimenak arau izan daitezkeen, eta ez salbuespena".



NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Iritzi bereziak

Euskarak, bere antzinasunagatik, zailtasun bereziak ditu hitzen jatorria zein den jakiteko. Hizkuntza latindarrek, adibidez, ez daukate arazo hau, baina euskarak buruhauste asko eman ditu eta ematen jarraituko du, ez baitakigu zein den haren jatorria. Iritzi desberdinak dituzten bi zatiki azalduko ditut: ZA eta IZ. Gaur egun, zatiki hauek ez digute ezer esaten, baina, batzuen ustez, bere garaian, ZA-k *aldapa* esanahia zuen: milaka baserriren izenak eta hainbat mendate; adibidez, Kanpanzar eta Barazar izenek adierazten duten bezala. Adineko pertsonen *zar* izena ere bere makurduragatik omen dator. Bizkaian, *Zarrabe* aldaparen behean dagoen baserria eta Nafarroako eta Gipuzkoako Gainza herria, *gain+za*= aldapa gaina, adierazgarri izan daitezke. IZ zatikiaren kasuan, urarekin lotzen dute, eta nahiko garbi agertzen da: *izotza* = ur hotza; *izurde* = uretako urdea, *Izubitta* = bi errekek bat egiten duten Bizkaiko toki ezaguna. Eta badira *i* hizkia galduta *Zubieta* toponimoa duten hainbat toki, non bi ur elkartzen diren. Bukatzeko, zorioneakoak gu, *sorioneku* hitzari esker.

Aitor Regueiro, gitarrarekin, *Hygge* diskoa ondoan duela. GOIENA

Etxeko goxotasuna Aitor Regueiroren ahotsean

Musikari oñatiar gazteak 'Hygge' izeneko zazpi kantuz osatutako lehenengo bakarkako lana kaleratuko du. Diskoaren aurkezpena luzatu egin den arren, azkenean, domekan ikusiko du argia, 12:30ean, Antixena gaztetxean

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Duela urte eta erdi hasi zen Aitor Regueiro *Hygge* lehen bakarkako lana eraikitzen. Prozesua luzea izan den arren, azkenean, aurkezpen ofiziala domeka eguerdian izango da Antixena gaztetxean, 12:30ean. Nerbioak igartzen dira Regueirorengan: "Oso urduri nago, urte eta erdiko prozesua izan da eta orain bala bakarria gelditzen zaigu, domekakoa".

Prozesua luzea izateko arrazoi nagusia dena "logika" baten barruan egitearen nahia izan dela aitortu du musikari oñatiarrak: "Lehenengo, diskoa izan nuen, eta, ondoren, beste guztia. Dena logika bat eramanda egin nahi nuen, eta horrek moteldu du prozesua". Bidean ere izan ditu gorabeherak. "Konposaketa unean, hasieran, dena oso arin joan zen, baina amaieran zalan-zak sortu zitzaizkidan". Azken emaitzarekin gustura gelditu da eta grabaketa unean dena oso "erraza" izan dela adierazi du.

"Bidea zaila eta polita izan da, eta helmuga, are politagoa".

Etxekotasunari abestutako kantak

Etxekotasunari abestutako zazpi kantuk osatzen dute *Hygge* diskoa, nahiz eta egileak berak aitortzen duen *etxekotasun* hitzaren esanahia ez dela "zehatz-mehatz" hartu behar. "Etxekotasuna aipatzen dudanean ez da mantaren azpian nolako ondo sentitzen garen unea, norbera hainbat espaziotan etxean bezala sentiaraztea baizik. Hori da diskoan transmititu nahi izan dudana". Hori lortzeko, musika goxoa eta entzuteko errazak diren kantuak bildu ditu haren bakarkako lehen lan honetan.

"IBILBIDEA ZAILA ETA POLITA IZAN DA, ALDI BEREAN, BAINA HELMUGA ARE POLITAGOIA ORAINDIK"

Erronkari ekiteko prest

Domekan estreinatuko du diskoa, Antixena gaztetxean, eta, lanak haren izena eraman arren, ez da bakarrik egongo taula gainean. Ondarroako lagun batzuen kolaborazioa izan du diskoan, eta talde moduan aurkeztuko dute *Hygge*. Formatu honekin zuzenekoak ez duela izango "leuntasun" bera nabarmendu du. "Interesgarria da diskoa lehen aldiz entzuten duzunean gauza bat izatea eta eta lehen aldiz zuzenean ikusten duzunean erabat ezberdinak izatea".

Momentuz, *Hygge*-ren ibilbideak geltoki bakarria duka, domekakoa, baina sortzen diren eta etortzen diren aukerei besoak zabalik helduko die Aitor Regueirok. "Taldekideak ondarrutarrak izanik, agian, han zerbait mugituko dugu, baina, hortik aurrera, ikusiko dugu ea zer iristen den". Diskoa domekako kontzertuan egongo da salgai eta baita Eltzia tabernan ere, hamar euroren truke.

'Alderray' antzezlanaren abenduaren 1ean Santa Ana antzokian

Urteroko ohituari jarraituz, Euskararen Eguna aitzakia hartuta aurten ere antzerkiaz gozatzeko aukera izango da Santa Ana aretoan. Tartean taldearen *Alderray* antzezlanaren izango da ikusgai abenduaren 1ean, egue-nean; Patxo Telleriak zuzenduta, Mikel Martinez eta Sandra Fernandez Agirre egongo dira aktore lanetan. Beti bezala, bi emanaldi izango ditu antzezlanak: eguerdian ikasleendako eta iluntzean, berriz, herritar guztientzako. Gainera, Euskaraldia ospatzen ari dela kontuan izanik, antzezlanaren Euskaraldiaren egitarauan sartu dute. Egitarau horren barruan, mintzodromoa egingo da bihar plazan, 11:30ean.

Asfaltatze-lanak herriko sarrerako bi biribilgunetan

Azaroaren 26an, larunbata, eta 27an, igandea, asfaltatze-lanak egingo dituzte herriko sarrerako bi biribilgunetan: Osinurdingo eta Santxolopetegiko biribilgunetan, hain zuzen. GI-2630 errepideko zoruaren egitura birgaitzeko proiektuaren barruko lanak dira, eta, beraz, txandakako pasabidea jarriko dute lanak amaitu bitartean.

Txorbela Otxotearen kontzertua, Aita Madina omentzeko

Aita Madinaren heriotzaren urteurrenako azken emanaldia egongo da domekan, hilak 27, San Migel parrokan, 19:00etan. Arrasateko Txorbela Otxotearen kontzertua izango da. Duela 50 urte hil zen musika konpositore oñatiarrak otxoteendako pieza asko idatzi zituen, eta horiek kantatzen txapelketa bat baino gehiago irabazi zituen, esaterako, Oñatin sortutako Irrintzi Otxoteak, 60ko hamarkadan, otxoteen goraldian. Madina eta haren lana ondo ezagutzen zuten musikariak ekarri gura izan dituzte urteurren honetako egitarauan, eta ezin falta otxotea. Domekan egingo diote keinu formatu horri.

Herri batzarra egingo du bihar EH Bilduk gaztelekuko sotoan

Goizko hamarretan hasiko da eta ondorengo gaiak izango dituzte hizpide: Plano Politiko Nazionalaren aurkezpena, udalgintza eta herrigintzako proiektuak, hauteskunde prozesuaren inguruko informazioa eta diagnostiko tailerra egingo dituzte. Proiektuarekin bat egin edo ekarpenak egin nahi dituen edonor deitu dute parte hartzera.

GORA ETA BEHERA



Zikinkeria Azkoagaingo harmailetan

Herritar batek Azkoagaingo futbol zelaiko eserleku berrietan ateratako argazki hau bidali du GOIENARA. Han pilatutako zikinkeriak eta zaborrak atentzioa emanda: "Ikusita nola utzi zituzten neska-mutil batzuek Azkoagaingo harmailak, argi dago gizarte osoak duela arazo handi bat".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.





DANBAKA)))) ^{5.}
M U S I K A L E H I A K E T A

KTARSIA • ILUMINATIZZ ERROMINTXELAK • ETXEPE

Bergarako Seminarixoa | **Azaroaren 25ean, egubakoitza** | 21:30

Chill out gunea, 20:00etatik aurrera, San Martin plazan (Errege Seminarioaren arkupeetan), DOAN
Artista gonbidatua: Ion Arteaga 'Buda' (musika elektronikoa)

Sarrera arrunta **4€** • *Goiena app*-ean alta ematen dutenek **2€** • Goienakideek, *Goiena* txartela erakutsita **0€**

Abenduak 16

**ARRAGOA • ISLABAT
ORHI • SINDY BERBENAS**

BABESLEAK

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanikidetas, Gazteria
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Depe



Bergarako Udala

LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA





Malen Osa, aste barruan, Goiena telebistan. GOIENA

"Momentua aprobetxatu nahi dut, zain egon barik"

MALEN OSA ANDA SALOMON ETXeko MENDI LASTERKARIA

Aloñako Igoeran debuta egitetik –azken bi edizioak irabazi ditu– nazioarteko lasterketetan nabarmenezera pasa da: "Bertigoa ere ematen du, oso azkar doa dena"

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Hamabost hilabete pasa dira 2021ko abuztuan Jacan oporretan zela Malen Osak (Oñati, 2002) lehenengoz mendi lasterketa bat egin zuenetik. Oroeleko igoeran egindako lanaren ondoren –irabazi egin zuen– etorri dira, batzuk aipatzearen, Aloñako Igoerako bi garaipenak, Lugon irabazitako junior mailako Espainiako txapelketa, Olla de Nuriako bigarren postua, Montblanceko 23 kilometroko lasterketako garaipena...

Eta duela hilabete Golden Trail Series-etako finalean Madeiran (Portugal) egindako balentria. Open kategorian nagusitasunez irabazi zuen, eta elitekoen artean onenen multzoan egon zen.

"SALOMONEKO TALDEAN OSO ONDO HARTU NAUTE, ETA ATEAK IREKI DIZKIT NAZIOARTEAN"

Salomon etxean ere azkar ibili dira oñatiarra fitxatzen.

Amaitu duzu denboraldia?

Bai; Madeiran lehiatu eta gero, pare bat aste hartu nituen atsedeen hartzeko, eta dagoeneko hasi naiz poliki-poliki entrenatzen.

Atzetik aurrera hasiko gara: espero zenuen Golden Trail Series-etako finalean halako lana egiterik?

Inondik inora. Ekainean Madeirara joatea proposatu zidatenean, nire lehenengo erantzuna izan zen: "Bai, zera!". Kar-ka-kar. 110

kilometro bost egunean, 7.000 metroko desnibela gainditu behar... Sekula egin gabeko distantziak ziren eta sekulako errespetua ematen zidan. Mentalizatzen joan nintzen eta harra sartu zitzaidan, ilusioa nuen, baina lesio bat tarteko uda gorrira izan nuen; gero, giharretako arazoak etorri ziren... Bada, ez nuen lortu Madeiran elite mailakoekin lehiatzeko txartela, baina taldekideen bitartez Open kategorian lehiatzeko aukera izan nuen, eta ederra izan da. **Open kategoriako bost etapak irabazi zenituen; bazirudien ez zeneukala kontrariorik...**

Bada, bazeuden bai, eta lehia estua izan nuen eurekin, gainera. Lehenengo etapetan oso tarte txikiagatik irabazi ahal izan nuen, baina egia da laugarren eta bosgarren etapetan oso lasterketa onak egin nituela. Eta, konturatu orduko, niretzako telebistako izarrak diren korrikalari horien ondoan nindoan; ezin nuen sinistu.

Garaipen honek txiki utzi du, esaterako, Montblancen irabazi izana...

Sekulako poztasuna hartu nuen Montblancen, bai lasterketa irabazi nuelako baina bereziki izan nituen sentsazioengatik. Izan ere, denboraldi hasieran ez nintzen batere ondo sentitu...

Eta, hala ere, ondo egon barik Lugon edota Aloñako Igoeran irabazteko kapaz izan zinen.

Bai, baina garaipenei baino garrantzi handiagoa ematen diet lasterketan izaten ditudan sentsazioei, eta orain esan dezaket lasterketa haietan ez nengoela batere ondo. Jendeak barre egiten du hau esaten dudanean, baina Aloñako Igoeran ez banintz irteera puntura aurkeztu, hobeto. Pentsa... Alde horretatik, urtea nahiko gazi-goza izan da.

Balio handia ematen diozu esperientziadun korrikalarien ondoan egon izanari. Izan ere, hasiberria zara...

Halaxe da, bai, eta aitortuko dizut honek guztiak bertigo apur bat ere ematen duela... Hotzean pentsatzen baduzu, azken urte honetan lortu dituzte.

"EZ DUT GEZURRIK ESANGO: ZAILA IZANGO DA ALOÑAKO IGOERAN EGOTEA; SAIATUKO NAIZ"

dan emaitzak... Batzuek diote azkarregi noala, baina nik beti diot gauza bera, ez dakigula etorkizunak zer ekarri behar digun eta, bihar gertatuko denaren zain egon barik, hobe dela momentua aprobetxatzea. Ingurukoek esaten didate sakrifizio bat egin izanaren fruituak jasotzen nabilela, baina nik diot gozamenaren oparia dela. Hau opari bat da, munduko bazterrak ezagutzeko aukera ematen dit, jendea ezagutzeko aukera... Azkarregi banao, bada, bizitzak berak geratuko nau.

Urteko beste mugarri bat izan da Salomonekin fitxatu izana...

Bai; Lugon irabazitako Espainiako txapelketa garrantzitsua izan zen Salomonen deia jasotzeko. Salomon Next Gen izeneko proiektua dute abian, talde gaztea egin dute, eta hor egoteak ate mordoia ireki dizkit. Mundu mailan dagoen marka erreferenteetako bat da, eta niretako ametsa da bertan egotea. Jendeak baloratzen du puntako materiala jasotzen dugula, baina niretzako garrantzitsuagoa da bertako atletengandik ikasten nabilela, edota nazioarteko lasterketetara joateko ematen diguten aukera. Gure poltsikotik ordaindu beharko bagenu, ez litzateke posible izango.

Zer eskatzen dizute Salomonetik? Seguru zure Instagram kontuak ez duela orain dela urtebetekoarekin zerikusirik, ala?

Iaz, sare sozialetan ez nintzen existitzen! Kar-kar-kar. Egia da Salomon multinazional bat dela, baina gazteen alde egin duten apustua benetakoa da eta ni oso maitatua sentitzen naiz taldean. Bestalde, jendeak uste duena baino konpromiso gutxiago ditugu, egutegia guri aukeratzaren uzten digute... Baina bai, sare sozialetan aktibo izan behar duzu, eta egia da kosta egin zaidala.

Eta ze itxura du datorren urteko egutegiak?

Erabaki dut nazioarteko lasterketetara salto egitea –Madeiran irabazita, Golden Trail Series-etako hiru lasterketetan esku hartzeko txartela irabazi du–, eta kanpoan ibiliko naiz, baita Estatu mailako txapelketetan ere. Euskal Herrian apenas lehiatuko naiz. Baten bat egitekotan, Aloñako Igoera izango da, baina oraindik zehazteke dago egutegia.

Derbia: Agorrosin berria ala Ipintzan jokatu da?

FUTBOLA Zapatuan, Bergarak eta Aloña Mendik neurtuko dituzte indarrak, 16:30ean. Agorrosin berrituan jokatu da mahoneroen nahia, baina aste barruan azken ukituak egiten ibili dira futbol zelaian eta Udalak gaur baimena ematea espero dute

Xabier Urzelai BERGARA

Lerro hauek idatzi bitartean, oraindik ez dago garbi Bergararen eta Aloña Mendiren arteko derbia Agorrosinen edo Ipintzan jokatu duten. Aste barruan langileak azken orduko ukituak egiten ibili dira futbol zelaian, eta, normala den moduan, jokariak berdegune berria estreinatzen desatzen daude. Horretarako, baina, klubak Udalaren baimena behar du. Eta, GOIENAK jakin duenagatik, gaur, egubakoitza, jasoko dute erantzuna (Azken ordukoa, *goiena.eus* atarian).

Estreinatzen gogoz

Jokalariek aste barruan berdegunea zapaldu ahal izan dute, baina ez dute askoz ere gehiago egiteko tarterik izan: "Ea Agorrosinen jokatzeko dugun. Egia da hasieran arraroa egingo zaigula, Ipintzako berdeguneak dagoeneko kautxu asko du eta belar gutxi, eta zelai berria kontrakoa gertatzen da, inpresioa ematen du. Baina bai, hasieran egokitu egin beharko dugu. Hala ere, gure zelaian gaudela pentsatu behar dugu, zaleen babesa izango dugula eta Aloña Mendi kontrario ederra dela mendeen hartzeko, baita kontrario zaila ere. Zelaia derbi batekin estreina-



Langileak, aste barruan Agorrosinen; jokariak hostoak kentzen ibili dira. GOIENA

natzea... ezin dugu gehiagorik eskatu", adierazi du taldeko entrenatzaile Iker Ruiz de Larramendik.

Aloña Mendiko entrenatzaile Garikoitz Nuñezek ondo daki bergararrak ze egoeratan dauden, oñatiarrek ere duela gutxi estreinatu dute eta Azkoagaingo berdegune berria: "Etxeko lehen partiduan, Vasconiaren kontra, ez ginen zelaian batere eroso egon, partidu arraroa izan zen; ea eurei gauza berbera gertatzen zaien. Egia da aldea lortu dugula sailkapenean eta La-

gun Onaken kontrako garaipena oso garrantzitsua izan zela guretzat, baina Bergara ere kanpoan irabaztetik dator eta horrek konfiantza emango zien".

Mondrak eta UDAk ere etxean

Mondrak eta Aretxabaletak ere etxean jokatu dute. Biek dute egoera iraultzeko beharra, baina zuri-moreen egoera da bereziki zaila. Hain zuzen, Arrasatekoen kontrario Oiartzun hirugarren dago sailkapenean. Eta Aretxabaletaren kontrario Urola erdialdean dago.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

Bergara-Aloña Mendi

Zap. 16:30. Agorro.

Mondra-Oiartzun

Zap. 16:30. Mojategi.

Aretxabaleta-Urola

Dom. 16:30. Ibarra.

EMAK. OHOR. ERREG.

Leintz Ariz.-Hernani

Dom. 11:00. Mojategi.

Bergara-Touring

Dom. 16:00. Ipintza.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Bergara-Añorga

Zap. 12:15. Agorrosin.

Romo-Aretxabaleta

Zap. 16:30. Getxo.

GOINGOEN MAILA

Antzuola-Bergara

Zap. 16:00. Eztala.

Ordizia-Mondra

Zap. 16:00. Altamira.

Billabona-Aretxabal.

Zap. 18:00. Arratzain.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Goierrri-Mondrate

Zap. 18:00. Urretxu.

Gora-Eskoriatza

Zap. 18:30. Bilbo.

GIPUZKOAKO TXAP.

Tolosala-Mondrate

Gaur. 22:15. Tolosa.

SASKIBALOA

EBA

Clinica Sur-MU

Dom. 16:30. Valladolid.

EMAK. LEHEN MAILA

MU-Lointek Gernika

Dom. 18:00. Iturripe.

GIZ. LEHEN MAILA

Goierrri-MU

Dom. 16:00. Urretxu.

GIZ. GIP. TXAPELKETA

Donosti D.-Soralue BKE

Zap. 18:00. Benta Berri.



Aialaren kontra. GOIENA

Astigarragako-Mekalki Al.

Zap. 18:00. Astigarraga.

ESKUBALOIA

GIZON. EUSKAD. TXAP.

Lau Bide-Fagor I. Aloña

Zapatua. 19:15. Legazpi.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Const. Aloña-Leizaran

Zap. 18:00. Zubikoa.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

Egia Kosko-Soraluce BKE

Zap. 18:00. Egia.

Ormaiztegi-Mugarri Ingou

Gaur. 19:30. Ormaiztegi.

GIZ. GAZTE MAILA

Lana Aloña-Ingou Arrasate

Zap. 12:00. Zubikoa.

PILOTA

Gipuzkoako eskuz binakako txapelketako finalak:

Aretxabaletan. Zapatua.

16:30:

Hernani-Aretxabaleta

(hirugarren mailako

adateak)

Ataun-Intxurre (bigarren

mailako kadeteak)

Oiarpe1-Lapke2 (bigarren

mailako gazteak)

PILOTA Gipuzkoako eskuz binakako finalak Aretxabaletan

Bihar, zapatua, 16:30ean hasita jokatu dituzte Gipuzkoako eskuz binakako txapelketako finalak, Iturrigorri pilotalekuan. Eta arratsaldeko lehenengo partiduan, gainera, herriko ordezkariak izango dira lehian. Hala, hirugarren mailako kadeteen finalean, Aretxabaletako Markel Beitiak eta Unax Gonzalezek Hernaniko Joseba Arretxe eta

Manex Alberdi izango dituzte aurrean.

Bigarren partidua bigarren mailako kadeteena izango da, eta Ataungo eta Intxurreko pilotariak izango dira zein baino zein gehiago, Oier Izagirre eta Aetz Lopez Josu Colladoren eta Unax Madinaren kontra; arratsaldeko azken partidua, berriz, gazte mailakoena izango da: Oiarpe klubeko Hantz Aranburuk eta Xuban Goñik Lapke taldeko Jon Erauskinen eta Martin Kejetaren kontra jokatu dute.

ttap

Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

DOAN
Euskarazko
aldizkari digitala
zure mugikorrean



ASTE HONETAN

Eñaut Elorrieta

Kantaria

"Nire muinera gerturatu naiz"



DANBAKA))))



Bergarako Ktarsia hirukotea. KTARSIA



Aretxabaletako eta Otxandio musikariek osatutako Iluminatizz. POLI 666 KARPO



Musikari eskarmentudunek osatzen dute Erromintxelak boskotea. ERROMINTXELAK



Musika urbanoa egiten duten Etxepe taldeko kideak. ETXEPE

Freskotasuna eta eskarmentua

Ktarsia, Iluminatizz, Etxepe eta Erromintxelak taldeek osatzen dute gaurko lehiakideen zerrenda; 21:30ean hasita, ordu erdiko emanaldi bana egingo dute Seminarixo barruan; Ion Arteaga 'Buda' bergararrak girotuko du chill out gunea, 21:00etan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Hogeita hamar talde ari dira bosgarren Danbaka musika lehiaketan lehiatzen; hiru kontzertutan banatuta, dagoeneko hamabi musika proposamen bertatik bertara ezagutzeko aukera izan da, eta beste lau talde izango dira gaur, egubakoitza, 21:30ean hasita, Seminarixo barruko agertoki gainean finalerako txartela eskuratzeko lehiatzen.

Leihatilan eskuratu behar dira sarrerak eta hainbat salneurri daude: lau euro, sarrera arrunta; *Goiena APP*-a dutenentzako, bi euro; eta Goienakideentzako, dohainik.

Denetarikoa gaur ere

Aurreko emanaldietan moduan, 21:30ean igoko da lehenengo lehiakidea taularen gainera: Bergarako hiru neska gaztek osatzen duten Ktarsia izango da

oraingoan. "2020ko abenduan kasualitatez sortu genuen taldea eta kasualitatez jarraitzen dugu jotzen. Bertsioak egiten genituen hasieran, nagusiki, baina hasi gara gure kantuak sortzen. Bi gitarrarekin eta kaxarekin igoko gara taularen gainera, modu akustikoan pop eta rock doinuak eskaintzeko".

Aretxabaletako eta Otxandio musikariak batzen dituen Iluminatizz taldeak hartuko du lekukoa. "Oinarrian rocka bada ere, ez dugu estilo zehatzik eta prest gaude eremu berriak esperimentatzeko. 2014an sortu

DOINU AKUSTIKOAK, JAZZ UKITUDUNAK, ROCKZALEAK ETA URBANOAK, GAURKO ESKAINTZAN

tako proiektua da; 2015ean egin genuen lehen kontzertua, baina bereziki pandemia garaian indartu zen taldea".

Musika urbanoa eta jazz

Danbakaren ezaugarria da askotariko talde motei eta estiloei tokia egitea, eta gaurko eskaintza ere horren erakusle da. Musikari profesionalak eta irakasleak dira Seminarixoko agertoki gainera igoko diren hirugarren taldeko kideak; bada, jazzaren sustraletara bidaia bat proposatuko du Erromintxelak boskoteak, betiere, Europako mu-

SARRERA ARRUNTA, LAU EURO; 'GOIENA APP'-A DUTENEK, BI EURO; GOIENAKIDEEK, DOHAINIK

sika tradizionalarekin nahastuta eta inprobisaziorako gaitasun nabarmena erakutsita. "Gipsy swinga lantzen dugu; hala, musika dantzagarria eta alaia eskainiko dugu".

Debagoienean egosten ari den musikaren adierazle, doinu urbanoek borobilduko dute gaurko lehiakideen zerrenda, *autotunea* lagun, rapa, trapa eta bestelako doinuekin dantzarako eta festarako gonbidapena eginez Arrasateko Etxeperen eskutik.

Chill out gunean elektronik

Gozoa da Seminarixo kanpoan dagoen chill out gunea. Gustura hartzen dute kontzertuetara doazen zaleek. Aretora sartu aurretik, gozoki proposa da Sanprubusa ate ondoan aurkitzea, zerbait edan eta jateko aitzakia proposa, zuzeneko musika lagun. Bikote akustikoa izan zen gonbidatua aurreko emanaldian, eta elektronikoa doinuek hartuko dute lekukoa gaur, 21:00etan, Ion Arteaga *Buda* gonbidatuta. Bergarako Txapa Irratiko *Haus of Beats* saioko gidarietako bat da *Buda*, musika elektronikoa ibilbide luzea duen bergararra.

Goiena telebistan eta sarean

Lehiakideen emanaldiak osorik grabatzen dira, Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian eskaintzeko gero. Eguenetan eskaintzen dute telebistan, 21:00etan eta 23:00etan, eta asteburuetan ere beste hainbat emanaldi izaten dira (Ikus 38. orria).

Publikoaren Sariaren sailkapena

- AIERT**
Oñati
Botoen %24,8
- SUKENA**
Oñati
Botoen %18,9
- KIIMAK**
Antzuola
Botoen %13,9
- ILUMINATIZZ**
Aretxabaleta-Otxandio
Botoen %8,9
- BROKEN LEGACY**
Oñati
Botoen %7,5
- 112**
Arrasate
Botoen %6,4
- KTARSIA**
Bergara
Botoen %4,4
- THE CLAYTON**
Aramaio
Botoen %4
- INGUMA**
Oñati-Bergara
Botoen %2,7
- JASAN**
Aretxabaleta-Eskoriatza
Botoen %2,4
- LEMAK**
Bergara-Antzuola
Botoen %2,1
- LETAGIN**
Oñati
Botoen %1,4
- BALARRASA**
Aramaio-Eskoriatza
Botoen %0,8
- ETXEPE**
Arrasate
Botoen %0,5
- ORHI**
Bergara
Botoen %0,5
- EYHARTS**
Bergara
Botoen %0,4
- ISLABAT**
Bergara-Elgoibar
Botoen %0,2
- SINDY BERBENAS**
Arrasate
Botoen %0,2
- ARRAGOIA**
Bergara
Botoen %0,1
- ERROMINTXELAK**
Arrasate-Bergara
Botoen %0,1

BOTOA EMATEKO

Danbaka.eus webgunean edo *Goiena.eus* webgunearen *Danbaka* izeneko kanalean eman daiteke botoa, **2023ko urtarrilaren 10era bitartean.**

'Aireportuan': Potx eta Lotx pailazoen lan berria

Sei kantu berri jasotzen ditu, baina, disko formatuan beharrean, Pernan Goñiren ilustrazioekin osatutako liburuxka da 'Aireportuan' lana, pailazoen laugarren bilduma; abenduaren 28an, Oñatiko Santa Ana antzokian eskainiko dute ikuskizun berria

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Euren txikitako amets batean murgilduko dira Potx eta Lotx pailazoak; izan ere, Los Angelesera bidaiatzeko ametsa dute, baina ezin izango dute eta Gasteizera egin beharko dute bidai. Ametsa lortuko ez duten arren, egoerari buelta emango diote, bizitzan aurrera egin behar dela azpimarratzen dute eta. "Bizitza ez dela gauza lineala ikusarazi nahi diogu jendeari; inprobisatu egin behar dela, aurreikusten dituzun gauzak, askotan, ez direlako gertatzen gero", dio Itziar Arkauzek, Lotxek.

Aurreko lanekin moduan, barre eragiteko tartetxo bat eskaintzea dutela helburu gaineratu du Josu Zubiak, Potxek: "Oholtzaren gainean daudenei funtzio pedagogiko bat egotzen zaie, baina hortik irten nahi dugu guk. Publiko kritikiko bati eskaintzen diogu gure ikuskizuna, eta bakoitzak hausnar dezala ikusten duenarekin".

Disko fisikorik ez da izango

"Diskorik bako diskoa da", diote, eta zera gaineratu dute: "Liburuxka formatuan dago eta abestiak entzuteko barruan dagoen QR kodea eskaneatu beharko da telefonoarekin. Era berean, zabalkundean apustu



Potx eta Lotx pailazoak, eguaztenean, *Aireportuan* lana aurkezten. IÑIGO BARRENA

berezia egin dugu eta QR kodea duten paperezko bi hegazkin egiteko aukera ere badakar liburuxkak; bada, hegazkina egin eta maite duzun lagun horri bidali abestiak partekatu ahal izateko. Debagoien eta Euskal Herri osoa beteko dugu gure hegazkinekin".

Pernan Goñi ilustratzaileaz gain, kolaborazio gehiago dituzte: Txinparta Bertso Eskolakoek sortu dituzte hitzak eta Zubiak musikatu ditu, Oriol Flores bateria-jolearen eta Xabi Yaniz gitarristaren laguntzarekin.

Durango Azokan standa

Azaroaren 27an erakutsiko dute Gasteizko aireportuan grabatu duten bideoklipa, eta abenduaren 26an estreinatuko dute, pertsonaia berriekin, Bilboko Campos Eliseos antzokian ikuskizuna, eta Oñatiko Santa Ana antzokian bi emanaldi egingo dituzte abenduaren 28an. Durango Azokan ere izango dira; standa izango dute, estreinakoz -Goienkale 18an-. Eta Sagunbarra aretoan egingo dute proiektu berriaren aurkezpen ofiziala, abenduaren 8an.

bete behar izango du. Izen-emate epea zabalik dago eta azaroaren 30a da azken eguna. Online egin behar da, *Goiena.eus* atariko *Kantari* atalean.

Kantu berriak

En Tol Sarmiento, Huntza, Nogen, Kai Nakai... taldeen abesti berriak abestuko dituzte parte hartzaileek. Abenduaren 12ko astean jakinaraziko zaie gurasoei, Whatsapp bidez, egokitutako abestia eta entsegu eta grabazio egunak.

Badator Debagoieneko zortzigarren Kantari karaokea

Azaroaren 30era bitartean eman behar dute izena parte hartu nahi dutenek, 'Goiena.eus'/Kantari' atalean

A. Aranburuzabala ARRASATE

Urtarrilean abiatuko da zortzigarren Kantari saioa. Orain arteko aldietan moduan, herriz herri egingo dira emanaldiak, ikuskizunaren aurreko asteburuetan entseguak egin ondoren.

Debagoieneko 7 eta 11 urte arteko gaztetxoek izango dute euskal kantuen karaokean parte hartzeko aukera, hiru, lau edo bost laguneko taldeak osatuta. Taldea egin ondoren, partaide bakoitzak izen-emate orria

Goienakideen txokoa

AZAROKO SARIAK



Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora

ERRIGORA

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OÑATIKO BAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandende.org
Datuak Merkatari Gurea produktua

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

["sariaren izena"] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LDFD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuen Itxarotegi automatizatu baten sartuko direla. Datu bikoitzaren helburu bakarra da indarrez dagoen zozketaren gestioa. Ekididako langor-ikus dituzten sariak, baki sariak eta abar ez dira helburu honetarako. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Tartean Teatroari esker

'Alderney' ikuskizunerako sarrerak ditugu

Oñati | Santa Ana antzokia | abenduak 1 | 19:00

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "Alderney"

["bazkidearen zenbakia"] 688 69 00 07 zenbakia.

*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen LDFD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuen Itxarotegi automatizatu baten sartuko direla. Datu bikoitzaren helburu bakarra da indarrez dagoen zozketaren gestioa. Ekididako langor-ikus dituzten sariak, baki sariak eta abar ez dira helburu honetarako. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

BERGARAKO BATZOKIA, JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: azaroak 29.



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



*Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea

["bazkidearen zenbakia"] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantaila ez gozatzeko...



2023rako Goienakide eginez gero, hemendik aurrera jaso Puntua DOAN
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus




DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Unai Lopez Elkoro
Abenduaren 1ean, 6 urte. Zorionak, amama Mari Carmenen eta Severen partetik!




OÑATI
Urdax Erostarbe Aramburu
Azaroaren 28an, 5 urte. Zorionak, maitia! Ze handi egin zaren jada. Muxu potolo bat bereziki Ganixen partetik. Askok maite zaitugu!



ARRASATE
Sebas Gutierrez Cardenas
Azaroaren 28an, 9 urte. Zorionak, Sebas! Ondo pasa zure urtebetetze eguna eta segi halako jator! Muxu handi bat etxekoan partetik.



ARRASATE
Izar Lorenzo Martinez
Azaroaren 27an, 9 urte. Izartxo, 9 urte! Zorionak etxeko danon partetik. Askok maite zaitugu!



OÑATI
Hodei Benito Alzelai
Azaroaren 27an, 10 urte. Zorionak, Hodei! Ondo-ondo pasa zure urtebetetze eguna. Etxekoan partetik. Askok maite zaitugu.



ARRASATE
Malen Etxeberria Agirreurreta
Azaroaren 26an, 6 urte. Zorionak, Malen! Muxu pila bat familia osoaren partetik. Ederto ospatu zure eguna. Aitona eta amama.



OÑATI
Oihan Odriozola Larrañaga
Azaroaren 26an, 3 urte. Zorionak, Oihan! Ondo pasau zure egunian eta patxo pila bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Aimar Hernandez Lopez
Azaroaren 25ean, 8 urte. Zorionak, Aimar! Ondo-ondo ospatu zure zortzigarren urtebetetze eguna! Besarkada handi bat etxekoan partetik.



LEINTZ GATZAGA
Unax Heriz Zubillaga Lopez
Azaroaren 23an, 3 urte. Zorionak, pittinxo! Hiru urte! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Aitaxoren, Gorkaren eta amatxoren partetik.




ARRASATE
Irantzu Souto Lasa
Azaroaren 22an, 12 urte. Zorionak, Irantzu! Oso ondo pasatu zure eguna lagun eta etxekoan artean! Muxu handi bat denon partetik, sorgintxo!



ARETXABALETIA
Garikoitz Blanco eta Xixili Olabe
Azaroaren 21an, Xixili 79 eta Garikoitz 7 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasa eguna! Milaka muxu etxekoan partetik!



OÑATI
Ilargi Agirregabiria Agirre
Azaroaren 21ean, 14 urte. Zorionak, Ilargi! Muxu potolo bat etxeko danon partetik. Egun polita pasau.



OÑATI
Miren Hernandez Juan
Azaroaren 19an, 6 urte. Zorionak, Miren! Ondo-ondo pasa zure eguna! Besarkada handi bat Oñati aldetik!



ESKORIAZUA
Kimetz Karpio Azpitarte
Gure mutikote, hamaika urte polittek. Zorion bero bat! Zure amama Resu, osaba Gorka, Ion txakurtxue eta aitita Txomin!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. 92 metro koardroko etxebizitza ematen da errentan, erdigunean, Iparragirre kalean. Bigarren solairua, igogailuarekin. Orientazio ona. Altzariekin edo gabe aloka daiteke. Bi garaje ibi izateko aukera ere bai, zuzeneko sarbidearekin. 657 26 78 51 (Maria)

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan. Familia langilea gara. Telefonoa: 631 46 56 98

Oñati edo Zubillaga. Bi edo hiru logelako etxebizitza erosi nuke Oñatin edo Zubillagan. Telefonoa: 673 35 95 98

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Ume zaintzailea. Oñatiko baserri baterako pertsona

euskalduna behar da, umeak eskolatik jasotzeko eguerdian, pare bat ordutarako. Autoa izatea beharrezkoa. 679 55 60 15 edo 943 78 20 42

402. ESKAERA

Arrasate. Egunean zehar, orduka, nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko gertu nago. Telefonoa: 655 46 54 32

Arrasate. Egunean zehar, baita orduka ere, garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. 632 83 32 44

Debagoiena. Edozein motatako lan bila nabilen neska naiz. Ostalaritza, garbiketak, umeen zaintza eta abar. 656 792 837

Debagoiena. Garbiketetan lan egingo nuke: lokalak, hotelak eta abar. Telefonoa: 632 48 72 30

Debagoiena. Pertsona adinua zaintzen egingo nuke lan. 672 556 735

Debagoiena. Mutila prest pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo zama lanak egiteko. 641 44 16 30.

Debagoiena. Mutila gertu igeltsero laguntzaile moduan, garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egiteko. Jardun osoz zein orduka. 632 97 11 94

Haur zaintzaile. Haur hezkuntzako irakasle arrasatearra naiz. Euskaldun, arduratsu eta aktiboa. Prest nago abendutik aurrera goiz eta eguerditan haurrak zaintzeko. Nirekin harremanetan jarri nahi izanez gero, deitu edo idatzi zenbaki honetara. 689 09 09 97

8. DENETARIK

801. SALDU

Karabana. Bañaresko kanpinean karabana, abanxe itxarekin, salgai. Prezio eskuragarria. Deitu: 688 86 79 76

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ESKER ONA



Jesus Ruiz de Laramendi Lezaun

Mertxe Urbinauren alarguna

2022ko azaroaren 18an hil zen, 94 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko azaroaren 25ean.

ESKER ONA



Fernando Martin Aguirre Altuna

2022ko azaroaren 22an hil zen, 62 urte zituela.



Hartu duzu zure trena.

Haren izeba: Nati Aguirre. Lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.

Bergaran, 2022ko azaroaren 25ean.

ESKER ONA



Teresa Ibabe Ruiz de Zarate

Pedro Mari Altuberen alarguna

2022ko azaroaren 18an hil zen, 88 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko azaroaren 25ean.

BERRI-ZAKUA



Urrezko ezteiak gaur

Luis Mari Ugarte eta Nieves Larrañaga angiozartarrek bihar ospatuko dute. "Mila esker guraso bezala egindakoagatik. Zorionak!".

OROIGARRIA

Mikel Lezea Iriarte 

2022ko azaroaren 20an hil zen, Donostian.

*Topa bizi izan ditugun bizipen guztiengatik.
Bidai ona izan, lagun.*

gatillazo

Arrasaten, 2022ko azaroaren 25ean.

OROIGARRIA

Mikel Lezea Iriarte 

2022ko azaroaren 20an hil zen, Donostian.

*Laister elkartuko gara izar alaiago batetan.
Maite zaitugu, beti gure bihotzetan.*

Zure kuadrilla.
Arrasaten, 2022ko azaroaren 25ean.

OROIGARRIA

Mikel Lezea Iriarte 

2022ko azaroaren 20an hil zen, Donostian.

Ainara eta Juankar; Amets eta Luis; Zigor eta Yunaisis; Oihana eta Jokin; Jone Alaitz eta Mikel; Ezti eta Joan; Yon eta Maide.

*Ustekabean joan zara
eta zaila izango da
zure hutsunea betetzea.
Beti-arte, "Txinito".*

Maitasunez, zure lehengusuak.
Arrasaten, 2022ko azaroaren 25ean.

OROIGARRIA


Javier Zubia Pagalday 

2020ko azaroaren 27an hil zen, 64 urte zituela.

*Urteak zein azkar igaro diren; joan zinen,
baina gure artean izango zaitugu beti.*

Zure senideak.
Aretxabaletan, 2022ko azaroaren 25ean.

OROIGARRIA

Jose Luis Etxebarria Izurrategi 

'Porru'

2022ko azaroaren 20an hil zen.

Gure oroitzapenean beti, lagun.

Alberto eta Arantza.
Arrasaten, 2022ko azaroaren 25ean.

OROIGARRIA

Jose Luis Etxebarria Izurrategi 

'Porru'



2022ko azaroaren 20an hil zen.

*Izar berri bat piztu da
han goian zeruan
tio Porrurena dugu
bakarra munduan.*

*Maite genuen guztion
bihotzen onduan
pizturik mantenduko da
bizitza osuan.*

Maitxe zaitugu. Zure ilobak.
Ainhoa, Xabi eta Anitz; Maider, Anartz, Unax, Amets eta Haizea.

URTEURRENA

 **Javier Iñarra Anduaga** 

2020ko azaroaren 28an hil zen, 72 urte zituela.

Bigarren urteurreneko meza domekan izango da,
azaroaren 27an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokiak.

Elizkizunera joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2022ko azaroaren 25ean.

URTEURRENA

 **Bittor Ezkurra Aranguren** 

2021eko azaroaren 26an hil zen, 81 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da,
azaroaren 27an, 11:00etan,
Antzuolako Errukizko Amaren parrokiak.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Antzuolan, 2022ko azaroaren 25ean.

OROIGARRIA

Antolin Lobato Carton 

'Toli'

2020ko azaroaren 25ean hil zen, 67 urte zituela.

*Maite dogun arbaso bat
bapatean hiltzen zaigunian,
zerura joan dala esaten dogu
eta ordutik zeru zati bat
daramagu beti gure bihotzian.
Aita, aitxixa... asko maite zaitxugu.*

Bergaran, 2022ko azaroaren 25ean.

1. URTEURRENA

Manu Zubizarreta Arenaza 

2021eko azaroaren 23an hil zen, 75 urte zituela.

*Buru argi,
eskua zabal,
bihotza bero,
polita irribarrea,
ederragoa izaera,
holakoa zinen eta holan
gordeko zaitugu gogoan.
aita, eta aitita maitea,
zuretzat muxurik goxoena.*

Urteurreneko meza domekan
izango da, azaroaren 27an,
12:30ean, Aretxabaletako
Jasokundeko Amaren parrokiak.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2022ko azaroaren 25ean.

URTEURRENA

Fernando Astigarraga Mugarza 

2021eko uztailaren 15ean hil zen, 75 urte zituela.

*Urte bat azkar pasatu da
urte batez, ez zaitugu aditu
orain bai baitzaude, eta ez lehen,
gutziz mutu.*

*Baina zer den heriotza!
Orain bai ahal gaituzu entzun
beraz, hauxe nahi dizugu esan:
gurekin zaude, maite zaitugu.*

Urteurreneko meza Oñatiko
Mikel Goiaingeruaren parrokiak
izango da, zapatuan, azaroaren
26an, 19:00etan.

Aldez aurretik, mila esker.
Oñatin, 2022ko azaroaren 25ean.

Oroilore  **BARRESLEA**

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako
guztiei euren bidea aurkitzen
lagundu diegu, orain arte
bezala, eta guztiek izango
dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak guran
izan duzun konfiantzagatik
eta maitasunagatik.*

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**BALARRASA ETA BROKEN LEGACY TALDEAK**

Danbakako hirugarren kontzertuko emanaldia entzuteko aukera: 13:00etan Balarrasa, eta 14:30ean, Broken Legacy.

'Danbaka' Egubakoitza, 13:00 eta 14:30

**GAZTAINEI BURUZKOAK**

Udazkenak ematen duen produktu izarraren gainekoak azalduko ditu Txomin Madinak bi saiotan.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**BERGARA-ALOÑA DERBIAREN LABURPENA**

Partidu inportantea bi taldeendako. Puntu gosez daude etxeokoa, zulotik irteteko. Aloña lasaiago dago, sailkapenaren goialdean.

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30

**DEMOGRAFIA DATUAK AZTERGAI**

Azken bi hamarkadetan (2001-2021) demografiak Hego Euskal Herrian eta, bereziki, Debagoiengan izandako bilakaera aztergai.

'Hemen Debagoiena' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**EÑAUT ELORRIETARI ELKARRIZKETA**

Joni Ubedak egin dio elkarrizketa Ken Zazpi taldeko abeslariari. Besteak beste, *Fantasia* diskoaren gainean egingo dute berba.

'Elkarrizketa' Eguaztana, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 25**ARETXABALETA 'Minbiziaren ikerkuntza, bizitza ulertzeko' hitzaldia**

Arkaitz Carracedok egingo du berba, Mondravemberrek gonbidatuta.

Lanbide Eskolan, 09:00etan.

ARETXABALETA Mural margotzea

Euskaraldiaren baitan.

Gernika plazan, 16:30ean.

ELGETA Ipuinen ordua

17:30ean, HHko 3. eta 4. mailetakoa; 18:00etan, HHko 5. mailakoa eta LHko 1. eta 2.ekoak; eta 18:30ean, LHko 3., 4. eta 5. mailetakoa.

Liburutegian.

ARRASATE Santa Zeziliaren omenezkoa

Arrasate Musikaleko banda gaztearen eta gaitarien kalejira.

Kaleetan, 17:30ean.

ESKORIATZA Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Urteak bete, abenturak bizi ikuskizuna.

Kiroldegian, 17:30ean.

OÑATI 'Stop farmazeutiken inperialismoari' hitzaldia

Eneko Landaburuk egingo du berba, Artez Hazten taldeak gonbidatuta.

Kultura etxean, 18:30ean.

ARRASATE Dantzaldia Kulturolan

Dantzazale guztiendako, Portaloi Elkartearen eskutik.

Kulturolan, 18:30ean.

OÑATI Brigade Loco, Bull Brigade eta State Alerta taldeak

Sarrerak agortuta daude.

Gaztelekuan, 21:00etan.

BERGARA Danbakaren laugarrena

Ktarsia (Bergara), Iluminatizz (Aretxabaleta eta Otxandio), Erromintxelak (Arrasate eta Bergara) eta Etxepe (Arrasate) oholza gainean.

Seminarixoan, 21:30ean.

ZAPATUA 26**ARRASATE Mondravember Eguna**

09:00etan, mendi irteera; 13:00etan, talde argazkia Herriko Plazan; eta, 14:30ean, Mondravember taldeko kideen bazkaria.

Arrasaten.

ELGETA Irteera Bilboko City Jump-era

LH-6 eta DBH-3 maiala artekoendako.

Mendizaleen plazatik, 09:15ean.

ARRASATE Ez Donk Amaitu topaketa

Arrasateri buruzko panelak erakusleihatetan ipiniko dituzte; 22:00etan, kontzertua gaztetxean: Kañeria 13, 112, Pubic Enemy eta Perlata & Perlitak taldeak.

Arrasaten.

ARAMAIO Biolentzia obstetrikoari buruzko hitzaldia

Esku Hutsik elkarteko kideek egingo dute berba.

Udaletxean, 10:30ean.

OÑATI Mintzodromoa

Euskaraldiaren baitan.

Foruen plazan, 11:30ean.

ELGETA Ozkarbi Eguna

12:00etan, poteoa buruhandiekin; eta 14:30ean, bazkaria eta dantzaldia elkartean.

Ozkarbi elkartean.

ARRASATE Arrasate Musikal Big Band eta Gasteiz Big Band taldeak

Ibai-arteren eskutik, kontzertua egingo dute.

Herriko Plazan, 12:30ean.

OÑATI Tomaxen Abenturak

Adi, grabatzen, ekin... ikuskizunaren emanaldi bikoitza: 16:30ean eta 18:00etan. Sarrerak, bost euro.

Institutan.

OÑATI Petti eta gaztaina jana

Gaztaina jana, 18:00etan, eta Pettiren kontzertua, 19:30ean, Araozko auzotarrek antolatuta.

Araotzen.

ARAMAIO 'Gorpuztu larrua' eta 'Margarita Molotov' antzezlanak

Obra motz eta arinak, Euskararen Egunaren harira.

Untzillan, 18:00etan.

ESKORIATZA Ardo dastatzea

Ardo ondu berezia, ardo zuri berezia eta foie-pintxo bereziak, Eskoriatzako txistulariek eskainitako erromeriak lagunduta.

Fernando Eskoriatza plazan, 18:30ean.

ARAMAIO Santa Zeziliaren omenezkoa

Bizente Goikoetxea, Urkanta eta Mairu abesbatzen emanaldia.

Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA 'Ogiak hizketan baleki' antzezlanak

Mamiak Kolektiboaren lana. Ostean, solasaldia.

Seminarixoan, 20:00etan.

ARETXABALETA Organo kontzertua

Jose Luis Franzena organo-jotzailearen eta Mariatxen Urkia sopranoaren emanaldia.

Parrokian, 20:00etan.

BERGARA Potemkin eta John Dealer And The Coconuts taldeak

Sarrerak, zortzi euro.

Kartzela zaharrean, 22:30ean.

DOMEKA 27**OÑATI Espeleto Txiki**

Erreserba egiteko: 943-08 20 00 edo arrikruz@onati.eus.

Arrikruzten, 10:30ean.

ARRASATE Familia-meza haurrekin

Katekesian parte hartzen duten familiendako, hileko azken domekan.

Parrokian, 11:00etan.

ELGETA Pintxo Eguna

Lau taberna edo jatetxek hartuko dute parte: Bolatoki, Haizea, Lola eta Maialde. 1,5 euro pintxo bakoitza.

Tabernetan, 12:30ean.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Sexu askatasuna

Sexu Askatasuna Bermatzeko Legea indarrean sartu berrikan, zalaparta sortu du hainbat delitu egilek jarritako helegiteen ondorioz jasotako zigorra murriztu izanak. Errealitate hau inolaz ere gutxietsi gabe, mingarria delako, ez genuke bistaz galdu behar lege berriaren izpirituua zein den. Zigorrak ez ezik, prebentzioak duen garrantzia. Sexu indarkerien atzean ezkatzen diren egitura patriarkal ikusezin horiek. Zenbat biktimaren garrasia ez ote da ito epaitegietan, *onespenaren* putzu lokaztuan. Onespena? Bizia galtzeko beldur sarritan, askotariko menpekotasunengatik besteetan...

Zer esanik ez emakume migratzaileen kasuan, emakume izateaz gain, beraien egoerak oraindik eta zaugarriago egiten dituen *intersekzio* horretan. Adin txikikoek jasaten duten sexu indarkeria ere hor dago. Erabateko menpekotasuna baliatuz isil-isilik egin izan direnak.

Sarritan gertatu ohi den bezala, ilargiari begiratu ordez, ilargia erakusten digun hatzari begira geratu dira asko. Orain arte izenik ez zuten delituei izena jarri zaie, eta ez da gutxi.

Azaroak 25 ditu gaur. Bientzia matxista jasan duten guztiak gogoan, poliki-poliki bada ere, bagoaz bidea egiten.

GOIENA OKM GIDA

"Denoit datorkigu ondo fisioarengana joatea"

IONE MOÑUX FISIOTERAPEUTA, OSTEOPATA ETA PNI

Urte hauetan guztietan ikasitakoaren nahasketa egiten du Moñuxek pazienteak tratatzeko; dioenez, askotan, minaren zergatia egunerokotasunean egon daiteke

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Mediku, erizain edo fisioterapeuta izan nahi zuela argi zeukan Ione Moñux bergararrak. Azkenean, fisioterapia aukeratu eta Soriarra joan zen ikastera. Beste zentro batean lan egin ostean, duela 17 urte zabaldu zuen fisioterapia zentroa jaioterrian.

Nolatan fisioterapeuta?

Umetatik tirita-zalea izan naiz eta fisioterapia aukeratu nuen kirolarekin zuen erlazioagatik. Zer zen ikusi nuenean, geroz eta gehiago gustatu zitzaidan; oso zabala baita gure lana.

Pazientearen mina artatzen duzu. Horretarako, erreminta asko erabiltzen ditut: fisioterapia, osteopatia, psiko-neuro-immunologia... Jendeak azken hori ez du ezagutzen, baina horrek organismoari eragiten dion gutzia hartzen du kontuan: bizi-estiloa, elikadura, loa, atsedena, ariketa fisikoa eta emozioak, besteak beste. Neuromodulazio ez-inbaditzailea erabiltzen dut. Formatzen joan naiz eta jakintza horien nahasketa egiten dut.

Beraz, giharreko minaren arazoa errutinatik etor daiteke?

Askotan, pazienteak problematika batekin etortzen da, baina,



Ione Moñux, astelehenean, Burdinate plazan duen kontsultan. I.A.A.

Gorputza indartsu mantentzea da gakoa

"Bizkarreko mina da ohiko lesioa, baina ekidin daiteke. Jendeari gomendatzen diot bizitza estiloa aldatu eta ariketa fisikoa egiteko; nork bere neurria. Askotan, aztertu behar da loa, elikadura... Baina gorputza indartsu mantentzea da sekretuetako bat. Jendeak zortzi orduz egiten du lan eserita eta uste du postura horrek ez duela kalterik egiten. Baina jarrita egoteko, muskulaturak sendo egon behar du, eta urteak aurrera doazen heinean, sendoago".

horri tiraka hasten garenean, bestelako arazoak ikusten ditugu: estrespean dagoela ikusten dugu, edo ez duela ondo lo egiten, elikadura ez dela egokia...

Neuromodulazioa aipatu duzu. Zertarako erabiltzen duzu?

Loa tratatzen dut, batik bat. NESA deitzen da eta emaitza oso onak ematen ditu. Jendea oso gustura dago. Orkatilakoak eta eskumuturrekoak eta beste elektrodo batzuk jartzen dira zirkuitua ixteko. Frekuentzia baxuko korrante batzuetan jartzen da gorputza eta nerbio-sistema autonomoa modulatzeko da horrekin, eta oreka bat sortu. Loan eta maskuri hiperaktiboan hobekuntzak ikusi ditugu, eta gustura nago emaitzarekin.

Sarriago joan beharko genuke fisioterapeutarengana?

Bai. Patologiarik ez izan arren, urtean pare bat aldiz etortzea komenigarria dela uste dut. Denoio datorkigu ondo; mantentzerako eta molestiak ez ditugulako nabaritzen.

Lanaren alderik onena?

Pazienteei laguntzea. Kontsultara sartzean baino hobeto ateratzen direla ikustea pozgarria da. Gainera, harreman estua egiten dut eurekin saioetan.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Mendira joatea gustuko dut; baita irakurtzea, jendearekin sozializatzea eta familiarekin egotea ere.

Bergarako lekurik gustukoena?

Gorlarako oinezko bidea. Astean pare bat aldiz egiten dut eta oso gustuko dut.

Goiena Okm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida



Goienakide izatea %30 merkeago

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehenetsuneko mezenasgo jardura izendapena jaso dugu aurten Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.

Goienakide zaren hori, zerga onurak ezarriko zaizkizu 2022. urtean Goienari egin diozun ekarpenarengatik. Horrenbestez, zure kuota %30 merkatuko zaizu errenta aitortpena egiterakoan.



Zure datuak Aldundira bidaltzeko onespina emateko, sartu hemen:
<https://goiena.eus/datuenbabesa>

Edo del egiguzu: 943 25 05 05

Epe-muga: 2022ko abenduaren 11n.



Okm: batzen gaituen distantzia